


ANTONIO ZAVALA, S. I.



LEKO BERTSOLARIA



AUSPOA LIBURUTEGIA

LEXO BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

79 - 80 - 81

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio, Ategorrieta.—San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

LEXO BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1968

D. L. S. S. 611/68

San Sebastián - Octubre 1968
IZARRA - Peña y Goñi, 13

A R K I B I D E A

Lexo bertsolaria	11
(1892) Bertso Berriak: "Larogei ta amabi urte..."	31
(1894) Bertso Berriak: "Komentuan zer pasa dan..."	36
(1895) Bertso Berriak Juan Jose Lezoarrak jarriak: "Milla zortziregun larogei..."	44
(1902) Bertso Berriak: Mutil zar baten bizitza: "Milla ta beratzi eun ca..."	53
(1903) Jerusalem'go Funtziyuaren Bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriak	60
(1903) Bertso Berriak: "Gipuzkoa'ko partian..."	67
(1904) "Milla beatzireun eta laugarren..."	78
(1905) Bertso Berriak: Munduan asiera eta Aita Eternuaren ejenpluak: "Jakintsu batek obligatu nau..."	79
(1907) Bertso Berriak Juan Jose Sarasola'k jarriak: "Gauzak obligatzen nau..."	88
(1909) Lourdesko Bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriak: "Mundu ontako nere bizitza..." ...	96
(1914) Europa'ko gerraren bertsuak Sarasola'k jarriak: "Emeretzireun urte pasata..."	103
(1914) Kostako trumoiaren bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriak: "Emeretzireun eta amalau..."	111

(1915) Konzeziyo Garbiko Koru'ko Ama Birjiñari: "Emeretzireun kunplitu eta..."	116
(1916) Bertso Berriyak Europa'ko gerrari jarriyak: "Iya emeretzieun..."	123
(1918) Garizumako bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Milla bederatzireun ta emezortziya..."	132
(1920) <i>Cruz Roja</i> 'ko bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Indarrik eztubena..."	140
(1921) Azpeiti'ko funtziyoaren bertsuak: "Emeretzireun ta ogei ta batian..."	144
(1921) Bertso Berriyak: "Milla beatzireun kunpliturikan..."	152
(1922) Elkanoren bertsuak Juan Joxe Sarasola'k jarriyak: "Milla eta beatzireun da..." ...	158
(1922) Bertso Berriyak: "Emeretzireun urte eta ogei ta bi..."	168
(1923) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Bertso berriyak jartzera nua..." ...	175
(1923) Bertso goguangarriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Ogeigarrengo giza-aldiyan..."	181
(1923) Arantzazu'ko Ama Birjiñaren gertaerak Juan Jose Sarasola'ren partetik: "Bertsuak paratzia..."	187
(1924) Bertso Berriak Juan Jose Sarasola'k jarriak: "Nere jakinduriya..."	198
Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k bigarren aldiz jarriyak: "Bertsuak paratzia gogora zait neri..."	208
Jakintsu baten uts-egiña: "Fernando Amezketarra eta emaztia..."	218
(1925) Keixetaren onran: "Milla beatzireun da ogei ta bostian..."	225
(1925) Juan Jose Sarasola'ren promesa: "Milla ta beatzireun da ogei ta bostian..."	232
(1926) Abiadorien Bertsuak: "Bertsuak paratze-ko jarri naiz gayian..."	239

(1927) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Milla beatzireun da ogei ta zazpiyan..."	250
(1928) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Milla ta beretzireun da ogei eta zortzi..."	260
(1929) Asuero'ri graziyak Juan Jose Sarasola'ren partetik: "Ogeigarren sigluan ogei ta beretzian..."	266
(1929) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Asuero'n famak bigarren aldiyan..."	272
(1929) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Ogeigarrengo gizaldiyan..."	279
(1932) Urte Berriyaren Bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Urte berri asierako..."	285
(1932) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Milla bederatzi eun da ogei ta amabiyen..."	291
(1932) "Kantak jartzen naiz abiyen..."	296
(1933) Bertso Berriyak: "Ogei ta amairugarren urtian..."	303
(1933) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Milla betzireun da ogei t'amairuan..."	309
(1934) "Ogei ta amalugarren urtian ogeigarrengo sigluan..."	314
(1935) Bertsolari-egunean	319
(1935) "Oraingo gizaldiyan ogeigarrenguan..."	321
(1935) "Milla beretzireun da ogei ta amabostian..."	329
(1935) Gorputz onaren bertsuak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Milla ta bederatzireun da ogei ta amabosta..."	334
(1936) Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Urte gogongarriya millatik urrena..."	341
(1943) Bertso Berriyak: "Milla beatziz eun da berrogei ta iruan..."	347

Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak Ama Santisimaren Aita San Joakiñei: "Ze- ñek ikasi nai du..."	357
Bertso Berriyak Juan Jose Sarasola'k jarriyak: "Aurtengo Ilbeltzeko katu biren festa..." ...	366
"Uste ez nuen batek..."	371
"Bertsua paratzia..."	373
"Ganaruan artian..."	379
Bertso Berriyak: "Iñuriaren garbitasuna txan- txangorriyan bixita..."	380
Bertso Berriyak: "Gure Gipuzkoa'ko kapital gar- biyan..."	386

LEXO BERTSOLARIA

J A I O T Z A

Juan Jose Sarasola Azkue bertsolaria, Lezo'n jaio zan, Irurzun baserrian, 1897'-garren urteko Garagarrillaren lenengo egunean, goizeko amarretan.

Gurasoak, Jose ta Joxepa Antoni zuten izena; biak Lezo'koak ziran; aitaren aldeko aiton-amonak: Inazio Sarasola ta Juana Bautista Garmendia, Lezo'koak; amaren aldekoak: Franzisko Antonio Azkue ta Maria Brijida Iruzkiza, Lezo'koak. (1)

Lezo'n jaioa zalako, Lexo edo Lexo bertsolaria esan zioten beti. Guk ere ala esango diogu.

Lexok onela esaten omen zuan:

—Bertsolari zar bat dan errian, ura iltzen danean, beste bertsolari berri bat

(1) Lezo'ko irugarren bataio-agiri liburua, 50'garren orria.

sortzen da ondorengo gazteetatik. Ardote, Xenpelarren osaba, Lezo'koa zan, ta aren ondoren Lezo'n sortu dana, ni izan naiz. (2)

Ta, Lexoren esana egiztatzeko, guk ere esan genezake Lezo'ko erriak kimu berria eman duala bertsolaritzarako, Lexo il da gero: Gaintxurizketa'ko Xanti Zabala bertsolari gaztea.

GAZTE DENBORA

Lexoren gazte denborako bertso batzuk, guganaño elduak dira, Jaunari eskerrak. Orra oietako bat:

Garai artan oitura zan bezela, Lexo ta bere lagunak neskatxetara joan ziran, jai-arratsalde batez, baserri batera. Aitak, ordea, atalaiarekin bialdu zituan. Ta Lexok bertso au bota zuan orduan:

Danak izaten degu
dibertitu naia,
gaztiak ibiltzeko
egia da jaia;
etorri balitzaio
gustoko galaia,
etzuen dantzatuko
aitak atalaia. (3)

(2) Patxi ta Inazio Lazkano, Otxoki, Alza.

(3) Pello Zabaleta bertsolaria zana, Errenteria.

Beste bi bertso auek, berriz, neskatxa bat eta Lexok alkarri botiak dira. Neskatxa tabernari baten alaba zan. Biak alkarrekin pixka bat tratatzen asiak zirala ematen du. Dana dala, arratsalde batez Lexo neskatxa orrengana joan zan, bañan arek bertso onekin despatxatu zuan:

Aizu, Juan Joxe, pixka batian
atzian egon zaitia,
oraindik ez da libertaderik,
itxia dago atia;
nik izanâtik zureganako
guztizko borondatia,
aitak eta amak ez baidute nai
gu biyok esposatzia.

Ta Lexok onela erantzun zion:

Disimuluan utzitzen nazu
gurasoen aitzekiyan,
zu neretzako etziñadela
lenago're banekiyan;
beste norbaitek faltako balu
ni nitzan aren tokiyan,
ez dezula nai esan zaidazu,
zertan zabilta tranpiyan? (4)

Lenengo, bere bertsoetatik ageri danez, Errenteria'n kaputxinoetan edo or nunbait lan egin zuala ematen du. Bañan gero

(4) Lino Kalonje, Bentaberri, Donosti.

Antigua'ra etorri ta bertan bizitu zan erio-tza arte, Donostia'ko kale-garbitzalle be-zela bizimodua ateriaz.

EZKONTZA

1894'garren urteko Ilbeltzaren 9'an, Irun'go parrokian, Bizenta Bengoetxea Muguruza'rekin ezkondu zan.

Emaztea, Irun'go baserri bateko alaba zan. Gurasoak, aita, Salbador, Oiartzun'goa zan, ta ama, Frantziska, Irun'goa.

Ezkontza onetatik, bederatzi seme-ala-ba jaio ziran: lau, aur txikitan illak; bes-te bat, Margarita, orain urtebete il zana; ta beste lau, oraindik bizi diranak: Ade-lina, Jose Joakin, Blas ta Sebastiana.

Itzaurre ontan eman ditugun ta eman-go ditugun argibide guziak, besterik abi-xatzen ez bada, alaba Adelinak esanda ja-kin ditugu. Eskerrik asko, beraz, berari. Alaba onekin bizi izan zan Lexo, il arte.

Donostia'ko Antigua'n bizitu ziran beti.

Irurzun baserrian, berriz, Lexoren anai bat, Markox, gelditu zan bizi izatera. Au il zanean, ordea, beraren ondorengoak ba-serria utzi ta kalera jetxi ziran. Gaur egu-nean beste famili bat bizi da Irurzun ba-serri ortan.

BERTSO-JARTZALLEA

Lexok irakurtzen bazekian, idazten ez ordea. Orregatik, firmatu ere beatza paperaren gañean jarrita egiten zuan. Bañan irakurri, poliki bada ere, asko irakurtzen zuan. Gauetan saiatzen zan, antiojuak jarrita.

Euskal egutegia egunero pasatzen zuan, orria kenduta. Etzuan egunik faltatuko, eguzkia ta illargia zer ordutan atera ta sartzen ziran irakurri gabe; ezta itxasoak gora ta bera noiz egiten zuan kontuan artu gabe ere.

Mariano Castillo'ren *pronostikua* ere irakurgai jakiña zuan. Baita *Argia* euskal errebista ere. Beste bat, oso bere gustozkoa, Lardizabal'en *Testamentu zarreko eta berriko kondaira* zuan. Oietaz gañera, meza ta debozio-liburuak ere bai.

Ala, poliki-poliki ta batetik eta bestetik, asko irakurtzen zuan. Orrekin esana dago, guk uste, nundik ateratzen zuan ainbeste bertsoarako gaia.

Bañan, zer esanik ez, irakurtzen zuan guzi-guzia euskerazkoa izaten zan; erdera etzuan entenitzen ta bearko.

Ta idazten etzekian ezkeru, beste nor-

baiten sekretariotza bear izaten zuan bertsoak paperean jartzeko.

Ezkundu baño len, ta bere aurrak koskortu baño len, beste norbait izango zuan noski, bañan gero bere alaba Adelinaz baliatzen zan lan orretarako. Gero semeakin asi zan.

Bere seme Jose Joakinek kontatu digunez, maiz xamar onela egiten zuten: aita goizeko iruretan jeiki, semea esnatu ta onela esaten zion:

—Orain kopiatuko al dizkidak bertsoak?

—Bai!

Jeiki, mesanotxiaren gañean papera jarri ta aita bertso esaten ta semea idazten asten ziran; bost eta erdietan aita lanera ta semea berriro oiera, zortzirak arte.

Gero alabaren alaba batek, Margari deritzanak, idazten zizkion bertsoak.

Ta ala, besteren laguntzaz eta eskuz bada ere, Euskalerriko bertso-jartzallerik ugarienetako bat izan zan. Erruz atera zituan bertso-paperak. Liburu au, bildu al izan ditugunakin osatu degu. Geienetan, eztakigu zergatik, Irun'go Díaz moldiztegian inprentatzen zituan.

Inprentara gabekoak ere badira liburu ontan, esan bezela, alaba, seme edo billobaren eskuz idatzi ta, nola edo ala, etxetik atera etziranak.

Ta oietaz gañera, gure eskuetara gabe gelditu diranak, asko ta asko izango dira oraindik.

Iñori faltatzeko bertsorik etzuan jarri nai izaten. Egun batez, mutil gazte bat ate-ondora etorri ta onela esan zion:

—Nere andregaiaren kontrako bertsoak bear ditut, ta gordin xamarak nai nituzke.

Ta Lexok onela erantzun zion:

—Ez, ez dizkizut egingo! Ta egitezkerore, zerorrek zere firma jarri bearko zenduke.

Mutillak etzuan olakorik nai, ta bat ere jarri gabe partitu ziran.

Inprentatu ondoren, *Besamotza*'ri ematen zizkion saltzeko. *Besamotza* bertso-saltzalle bat zan; seguru asko, Euskalerrian iñoiz izan dan bertso-saltzallerik eza-gunena. Bizkai'ko Urduliz'en jaioa zan. Arrobi batean lan egiten zuan. Bañan, egun batez, desgaraiean lertu zan tiro batek bi eskuak kendu zizkion. Geroztik, bi-zi-modua nolabait ere ateratzearren, ber-

tso-paper saltzeari ekin zion, erriz-erri Euskalerra guzian barrena ibilliaz. Gerraz geroztik il zan, ta oraindik ere euskaldun asko dago aretzaz oroitzen dana.

Andreak onela esaten zion Lexori:

—Orain ere gizon orri eman bear al dizkiozu bertsoak?

Ta Lexok onela erantzuten zion:

—Gizajo orrek nolabait ere bizi bear du!

Laguntzeagatik ematen omen zizkion. Besamotzak amarna xentimo saltzen zitan paperak. Noizean bein biak alkarrekin saiatzen ziran bertso-paper saltzen, eliz-atarietan, plazetan eta olakoetan kantari asita.

Bañan orretarako etzuan Lexok balio. Oso boza txarra zuan, oso eztarri bajua. Bozik ez ta luzitzen ez. Altabozik ez garai artan. Onela esan digu bertso-zale batek:

—Gertatu izan zait neri tabernan aren ondoan egon ta aren bertsoa ezin ente-nitzea. (5)

Orregatik, etzan plazaz-plaza ibiltzen. Aotik-aora ezin ta bertso jartzeari ekin zion, beraz.

(5) Patxi ta Inazio Lazkano, Otxoki, Alza.

Bañan tabernan eta lagun artean jarduten zan. Bera oso zartuta zegoala bada ere, berarekin bertsoan saiatuak dira gaur eguneko zenbait bertsolari: Uztapide, Zepai, Sebastian Salaberria, Patxi Lazkano...

Auek, eta ezagutu zuten guziak ere berdin, aotik aora ere oso bertsolari polita ta xuxena zala diote. Eztarriarena pena geiago artzeko da, beraz.

Ta beste ezer baño geiago balio duana, oso gizon umilla, txintxua ta leiala omen zan; oso lagun atsegiña. Ala esan digute ao batez ezagun zuten guziak.

Andrea ere oso bertso-zalea omen zan; beti kantari aritzen zana ta oso emakume alai. Biak ere, bata bestearen diña, beraz.

Lexorentzat bertsolaririk onen-onena Txirrita zan. Beraren erretratua, periodiku batetik guraizez ebakia, mesanotxiaren gañean paretari josita zeukan, errosarioa ta Jesus Aurra ta Ama Birjiñaren estampa batzuekin batera. Auen urrengotzat ote zeukan pentsa genezake, beraz.

Lexok etzuan buruan bertsoak beste pentsamenturik. Bertso zarrak kantatzen edo bertso berriak jarri bearrez ari zan beti.

Bein batez, Antigua'ko tunelean, bere seme Jose Joakin ta onen lagun batek, Donostia'ra zijoazela, Lexo etxe aldera zertorrela ikusi zuten. Semeak onela esan zion lagunari:

—Aldamenean pasatzean, bultza nazazu beraren kontra, ia konturatzen dan zein naizen.

Ala, lagunak bultza zuan aitaren kontra, bañan onek, kasorik egin gabe, bere bidean aurrera segitu zuan. Urrengo egunean, bazkaritan ari zirala, semeak onela esan zion:

—Zer pasa zitzaizun atzo tunelean, aita?

—Ezer ez! Bi mozkor pasa ituken ta bat gañera etorri zitzaidan.

—Eskerrik asko!

—Zer ba?

—Mozkor aietako bat ni nintzan! Apropos egin nizun ia konturatzen ziñan!

Ainbesteraño betetzen zioten bertsoak burua.

BIZI-MODUA

Lexo goizeko bost t'erdiak baño lenago jeikitzen zan. Jantzi, kafea berotu, ta be-

rak artu ez-ezik, andreari oera eramaten zion.

Gero, oñez Antigua'tik Donostia'ra. Kaleko zakarrak biltzen kaleetan barrena buelta egin ondoren, bederatzi t'erdietan-edo, amarretakoa artzera etxera.

Amarretakoa, arraultza prejitua baso bat ardorekin izaten zuan geienetan. Billobak berealaxe inguratzen zitzaizkan; Aietako bat edo bi belaunetan exeri, aientzat ogi-puska bana gorringoan busti, ta ala, danen artean, jaten zuten arraultza. Beste batzutan, berriz, sardin zarra prejitua edo errea izaten zuan.

Gero berriz lanera, kale garbitzera, amabiak arte.

Bazkalondoan siestara joaten zan. Ordu-pare bat egiten zuan. Lan neketsua zuten ta ondo premizkoa zuten siesta ori. Lauretan berriro lanera ta illuntzean etxera ostera.

Ez goizean eta ez bazkalondoan, etzuan ezeren bearrik ordu-orduan esnatzeko. Loak, bere garaiean, bat-batetan alde egiten zion.

Jaietan, ingurumarian erromeri edo festarik bazan, ara joaten zan, baita, egokiera bazan, bertsorik kantatu ere, arta-

ra iñork deitu ez izanagatik. Oñez joaten zan. Oso ibiltaria zan ta mendi-bideak ondo ezagutzen zituan. Orrela, Usurbil, Lasarte, Urnieta, Ernani, Zubieta, Igeldo ta beste erri ta toki askotara alleгатzen zan.

Ta iñoiz, erromeria zan lekuan medalla erosi, ura zinta gorri batekin ageri-agerian alkandoratik zintzilik jarri, ta pozez zorutzen etortzen zan.

Apetito aundiko gizona zan, bañan poliki-poliki ta txukundade aundiz jaten zuana. Edan ere, pixkabanaka, tragoxka txikiak egiñaz ta tragoxka bana ondo milixkatuaz edaten omen zuan. Ta etzuan sekulan geiegizko tantorik edango.

Oso elizkoia zan: konfesatu ta Jauna artu, maiz xamar; Irugarren Ordenakoa; errosarioa egunero etxean; jeiki ta oerakoan, bere otoitzak; urtero Lezo'ra ango Santo Kristori bisita egitera, bedera-tziurrena zanean; iñoren kontrako arrazoi txarrik gabeko gizona; ain gutxiago lagun urkoari gaitzik egingo ziona; al zuan guzia lagundu bai...

Illeta guzietara joaten omen zan, ta, orregatik, bera il zanean, erruzko jendea izan zuan.

Ortaz gañera, patxara aundiko gizona

zan; iñoiz presarik etzuana, ta sekulan, etxean beintzat, aserre ikusi etzutena.

Lexo, bruxa beltzez jantzita ibiltzen zan beti. Satenezko bruxa nai izaten zuan, diz-diz egiten zuana, alegia. Diz-diz ori baño gauza dotoreagorik Lexorentzat etzan.

Ta urtero-urtero, Gabon-gaua baño egun batzuk lentxeago, Antigua'ko gazteak bruxa eske etortzen zitzaizkan, ura jantzita Olentzaro atera ta kalez-kale kantari ibiltzeko.

Trajea bazuan, bañan egunik aundiengan bakarrik jazten zuan: etxeko baten eztaietan, bataioan eta olakoetan alegia.

Txaketari armilla deitzen zion. Onela esaten zuan:

—Armilla? Otzik egiten badu jantziko det, bañan bruxa gañean detala, baserritarrak bezela, ni ere baserriko semea naiz ta!

E T X E A N

Lexoren andreak zazpi urte egin zituan itxututa. Ta ortaz gañera, oñazeak ere izaten zituan begietan. Mediku askotatik pasa ondoren, etsita zegoan. Bañan azkenik, Martikorena'k lenengo oñazeak

kendu ta urrena begiak ostera argitu egin zizkion. Emakume gajoaren poza berriro ikusteaz, len añean ez bazan ere! Onela esaten zion alabari:

—Makiña bat negar egin diñat! Bañan ez diñat geiago egingo, nere denbora guziko negarrak egin dizkiñat eta!

Lexoren emaztea 69 urterekin il zan, 1937'garren urteko Agorraren 5'an.

Garai artan, Lexo erretirua artuta zegoan. Orregatik, bera etxean gelditzen zan, bañan alaba ta sua lanera joaten ziran, aita billobatxo baten zai utzita.

Billobatxo ori, amonarekin oituta zegoan. Len ere esan degunez, amona ori, Lexoren andrea, beti kantari aritzen zan, billobari ere alaxe aritzen zitzaion lo arrerazteko, ta aurrari ere alaxe gustatzen.

Orregatik, onela eskatzen zion billobatxoak aitonari, amona il da gero:

—Aitona, kanta nazazu amonak bezela!

Ta Lexo gizagajoak, aurrak orrela emazteaz oroitu-azita, negarrari eman da erantzuten zion:

—Zer kantatuko dizut nik, ba?

Aiton-billobak negarrez, beraz, ta etxe-

koak ere bai, aiek ala utzi ta fabrikara joan bearrean ziralako.

Erretirua artu ondoren, etxeko egaztiak eta konejuak Lexok gobernatzen zituan. Beste eginkizunik ez baitzuan, patxaraz ta presarik gabe aritzen zan, ta beti bertso kantari. Konejuak ere aren bertsoak entenitzen zituztela ematen zuan.

Konejuentzako belarra Txirain eta Muntzuene baserrietatik ekartzen zuan, zaku batean, eta itaia belarretan sartua zuala.

SAGARDOTEGIAN

Illunabarrero sagardotegira joaten zan Lexo. Geienetan Lopexene'ko sagardotegira. Antxen bere lagunekin biltzen zan. Bere lagunik aundiena, Oriamendi baserrian jaio ta Bentaberri'n bizi zan Lino Kalonje bertsolaria zuan. Bertso kantari aritzen ziran. Bertso berri ta zarrak. Etziran berealakoan aspertzen. Askotan ordubata jo ta gero erretiratzen ziran.

Lexoren alaba Margarita, oiera gabe, aitaren zai egoten zan. Lexok onela esaten zion:

—Oiera joan besterik ez dezu! Ni etorriko naiz!

Bañan alabak etzion kasorik egiten, ta urrengo gauean ere berak idikitzen zion atea.

Urte aietan, udaran, bi orduz aurrera-tzen zuten erlojua. Lexo garaiz erretira-arazitzeko atarramentu txarra zan ori, eguzkiarekin oituta baitzegoan. Orregatik, onako bertso au kantatu zuan bein batez sagardotegian:

Goizeko bostak illun-pian da
gabeko amarrak argitan,
olako martxa jarri digute
oraingo lege berritan;
etxera jun da emakumiak
ematen naute erritan,
gizon gaizto bat banitz bezela
artua naute begitan. (6)

Etxeko emakumeak, erritan egitean, onela esaten zioten:

—Sagardotegian ez al dago erlojurik?

Ta Lexok erantzuten zien:

—Bai, bañan bizkarrez nengoan ta ez nuan ikusten!

Azkenean, amenazu au egin zion alabak:

—Begira: amarretarako etortzen ez ba-

(6) Lino Kalonje zana, Bentaberri, Donosti.

zera, neroni joango naiz zure billa sagardotegira!

Ta Lexok onela erantzun zion ikaratauta:

—Ez, ez, ez olakorik egin, Jainkoagatik! Etorriko naiz!

Lotsa aundia ematen zion etxeko iñor beraren billa sagardotegira joateak. Ta ala, andik aurrera amarretarako txintxo-txintxo etortzen asi zan.

Tabernara joatean, kuartillo bat ardo eskatzen zuan; ori zuan eguneko bere errazioa. Bañan iñork ori pagatzen bazion, berak beste bat eskatuko zuan. Diru ori gastatzeko asmotan etorria zan, ta diru ori tabernan utzi gabe etzan etxera bueltatzen.

Guziak dakitena, gerra ondorengo urteetan gauza guziak garestitu ziran, ta, ori ez-ezik, eskasiya aundia izan zan. Etxekoak, noski, olio, ogia, azukrea ta olakoakgatik kezka zeuden. Lexori, ordea, etzioten gauza oiek bildurrik ematen, bai ordea baxo-erdiak. Onela esaten zuan:

—Oraingo baxo-erdiak, elbiak anak bustitzeko aña eztira!

ERIO TZA

1950'garren urtean, berak 83 urte zitu-
tuala, billoba baten semea jaio zan. Le-
xoren poza bere familiaren laugarren gi-
zaldia ikusteaz!

Bataio-eguneko bazkarian ari zirala,
Lexok, alako batean, bertsoa bota zuan.
Guziak arren da arren geiago kantatze-
ko asi zitzaizkion. Bañan berak onela
erantzun zuan:

—Ez! Zeñek kontra egin ez daukat! Ne-
ronek esan da neronek errespuesta eman,
nola egingo det bertsoan?

Orduan, aur jaioberriaren lenengo Jaun
artzerako bertsoak paratu bear zitua-
la esan zion norbaitek. Bañan Lexok one-
la erantzun zion:

—Bai! Orri korda etortzen zaionerako,
neri joango zait!

Ta ala gertatu zan. Andik bi urtera il
baitzan.

Askotan onela esaten zuan:

—Gure Jainkoak, bizitza ematekotan,
osasunarekin eman deigula; bestela, era-
man gaitzala!

Ta Zeruko Jaunak bete zion desio ori.
Bere denbora guzian bi alditan egon zan
gaxorik: bata, 1920'garren urtean, urda-

llean *úlcer*a zuala ta *Cruz Roja*'n operatu ta bertan ogei egun pasatu zituanean; bestea, 1925'garren urtean, alborranakin gaxotu ta Manteo'ko ospitalean operatu zutenean. Bañan gañerakoan oso osasun sendo ta trinkoa izan zuan.

Osasun ona, bere bizimoduaz konforme, ta bertsoak alaitasun-iturri oparoa zituala, benetan zorioneko bizitza eramán zuan Lexok mundu ontan.

Ta eriotzerakoan ere etzuan ez oñazerik ez gaitz luzerik izan. Amar egun etzítuan oiean bete.

1952'garren urteko Urriaren 22'an gaxotu zan. Bera apaiz eske asi zan:

—Apaiza, apaiza ekar zazute!

Alabak esaten zion:

—Au pasako zaizu, aita!

Ta berak:

—Ez, ez; ez gaitun betiko etorriak!

Medikuak esan zuan *bronconeumonia* zuala; *antibiotikoak* eman zizkioten, bañan alperrik; gibelak gaizki artu zituan.

Apaiza ere etorri zan; Antigua'ko Don Jazinto Etxeberria izan zan.

Urriaren azken egunean il zan, arratsaldeko ordu bi t'erdietan, ta ezaguera guziz il ere.

Ordubete lenago, egarriak zegoala esan zuan. Baso-sagardoa ekarri zioten ta gustora edan zuan. Bere denboran sagardoak askotan lagundu zion ondo bizi-tzen, ta bai azken orduan ondo iltzen ere...

Urrena, eguardi inguru xamar bazan ere, besoa atera ta argiaren giltza billa-tzen asi zan. Alabak galdetu zion:

—Zer nai dezu, aita?

Ta Lexok:

—Argia piztu, faborez!

Bista galdua zuan gizagajoak. Orregatik alabak esan zion:

—Bai, konpañi aukeratu beti gaizki dabil-tza ta orain ere ez dago argirik!

Orduan etxeakoak, oiaren inguruan ja-rrita, errosarioa errezatzen asi ziran. Asieran berak ere erantzuten zuan. Ne-katu egiten zala ikusirik, apaizak onela esan zion:

—Ez erantzun, Juan Joxe; zuk pentsa-mentuz bakarrik errezatu!

Andik aurrera ezpañak mugitzen zi-tuan, gero ta gutxiago ordea; ta ala, erro-sarioa bitartean, itzaltzen-itzaltzen joan zan...

(1892)

BERTSO BERRIYAK

1/ Larogei ta amabi urte
milla zortzireun da,
aurten gazte jendia
gurekin lagun da;
batzuen mingañian
izketa legun da,
zer buruzbide duten
ortan ezagun da.

2/ Lengan lagun batek
agindu dit neri,
bertsuak paratzeko
dama gazte biri;
oiek nai dituenik
ez da iñon ageri,
bañan pasatzen dute
amaika inbiri.

- 3/ Goguak ematen dit
klaritzen astia,
eziñ estenditu det
ixillik uzta;
bat española da ta
prantzesa bestia,
biyak ere arropa
zuzenak ezta.
- 4/ San Esteban egunian
izanduak zian,
pabrika ekustera
dotore an zian;
buelta bat eman eta
gero onuntzian,
bertan aritzen zeuan,
burla egin zian.
- 5/ Zenbat persona geran
ainbeste klase,
ixiltzen zallak dira
zenbait mingaiñ luze;
ortzak berdindua naiz
zuek bezelaxe,
dakiyena engañatzen
dezute Juan Jose.

- 6/ Neskaxa polita da
dama Alfonsita,
ederki ematen du
dotore jantzita;
nerekin probetxorik
ez dutela etsita,
tratuan asia da (1)
pabrika utzita.
- 7/ Modu ortako zenbait
emakume gazte,
maleziya ta tranpa
gallenduak zauzte;
Lezo'n mutillik danik
ez al dezu uste?
an ere amak semiak (2)
egiten dituzte.
- 8/ Trespiziko korreran (*sic*)
ondoko atian
izketan gelditu zait
iñular batian;
Prantziya'n izandua
ori bitartian,
ondotik asi banitz
neretzat kaltian.

(1) Bertso-paperean: *asi da*.

(2) Paperak *aman semiak* dio; bañan nabarmen
dago *amak semiak* bear duala, ta ala jarri degu.

- 9/ Alfonsita zeguen
izketako eran,
argatik galdetu dit
nobiyarik deran;
orrekin tratatzeko
ez nago tankeran,
beste batena juan
obe du aukeran.
- 10/ Tolosa'ko alaba da
orlako tajua,
txoruak zintzotzeko
zer aparejua!
laister konprenditzen du
gustoko ujua,
gaxua aspalditxo
txutxurrutxo jua.
- 11/ Mutilla engañatzen
ainbeste enpeño,
lagunari egiñaz
begiyakin keño;
biyotza tranpan eta
itzegiten laño,
uzteko obia zaude
artutzeko baño.

- 12/ Inutilla bezela
 tratatu nau orla,
 aspaldiyan egin dit
 makiña bat burla;
 eskerrak krediturik
 galdu etzaigula,
 Jaunak pazientziya
 eman dezaigula.
- 13/ Mandatua egin ziran
 gero ezkontzeko,
 gayian zeguela
 zerbait pentsatzeko;
 gogua izanagatik
 ondo konpontzeko,
 nola portatuko zan
 ez da piyatzeko.
- 14/ Lezo'k ori artuta
 sujetatzen lana,
 gero desgusto asko
 pasa bear zana;
 alaja egokiya
 zatoz neregana,
 gaztia zera baño
 onenak emana. (3)

(3) Bertso-papera, "Imp. Macazaga. — Rente-
 ría", Aizarna'ko Josefa Aizarna'gandik.

(1894)

BERTSO BERRIAK

Jarri-aldi ontako 10'garren bertsoan, urte artako San Juanetan, Garagarrillan alegia, 27 urte kunplitzeko edo kunplituak zituala esaten du Lexok. 1867'garrenean jaioa zan ezkerro, 27 urte kunplitzen zitzaizkion urtea, 1894'garrena zan. Ordukoak dira, beraz, bertso auek:

- 1/ Komentuan zer pasa dan askok du jakindu, oso oker aundiyak egin bagendu, kulparik eztuenak ipurdiyan min du, aguriak ordena ustez eragin du; ala itzegin du, baña utsegin du, ez degu ordendu, besteri agindu; ark ere nai duenik ezin egin du.

2/ Zer kontatua badute
gure lanteriyen,
kaputxino fabrikan
Errenteriya'n;
orrelakorikan ezta
pasa aspaldiyan,
jendia gaiendua
zeguen konpañiyan;
etzauren premiyan,
panparroikeriyan,
oien istoriyan
metitu nagiyan,
ustez ez gera ibilli
zabarkeriyan.

3/ Geroztik ari gera
komersaziyan:
nola utsegin degu
botaziyan?
gizon jakintsuna asko
zeuden leziyan,
guk berriz sartu nai ez
oien soziyan;
enaiz sesiyuan
ari traiziyan,
fin negoziyan,
satisfaziyan,
parterik izan gabe
okasiyan.

4/ Gureztat porpinarik
etzan bitartian,
aurten bezela pobre
gauden urtian;
negonek segitu dut
sei illabetian,
azkeneko egunak
labe zar batian;
gauden suertian,
kolera fuertian,
andik juatian,
tristura betian; (1)
alegratuko gera
lagun artian.

5/ Askok kausatu dute
beren enpleuak,
galtzeko beldur ziran
bensajeruak;
desiatuagatik
zerbait anparuak,
guretzako eztaude
leku seguruak;
gizon onraduak,
artu nai graduak,
beste jeneruak
itzdun lijeruak;
iya gaiendu dira
forasteruak.

(1) Bertso-paperak *batian* dio. Poto, beraz. Ori inprentaren utsegiteren bat izango dalakoan, *betian* jarri degu.

6/ Botorik ez degunak
lanteritik fuera,
abill-ustian tonto
gertatu gera;
asko dakiten oiek
gutxi gora-bera
gu despatxatutzeko
artu dute era;
daukaten kolera,
denantzat galera,
oien ezaguera
dakigula gera;
ez dago segurantzik
onez aurrera.

7/ Frantzes ta aleman
español ta prusi,
jende langilliantzat
denak nagusi;
nola portatu diran
nai dut ariyazi,
eztimaziyo txarra
ez degu ikusi:
obligatzen asi
ziran lendabizi,
lana galazi
ta bazterrak nasi; (2)
orreatatik ez gera
juango igesi.

(2) Bertso-paperean: *bazterras*.

8/ Listero dagoena
eskribientia,
ura're Don Karlosen
ayudantia;
izena ta nonbria
ark artuak-tia, (3)
zuzen entreatu du
gure apuntia;
bazuen partia,
zerbaiten portia,
gizon prudentia,
persegiantia;
beti kastigatua
trabajantia.

9/ Zerbait duenan alde
askok uniyua,
biarrak ematen du
opiniyua;
agintzen ari dena
itzdun seriyua,
gero izango dalako
erremeriyua;
arrazoi pillua,
maiz desafiyua,
txarra jeniya,
burura iyua...
ez dek orrela guardatzen
relijiyua!

(3) Bertso-paperean: *artuak dira*.

10/ Galde egin ziraten
zer edade detan:
ogei ta zazpi urte
San Juanetan;
nai dituztenak sartu
enpleo onetan,
guk obeditzia nai
oien esanetan ;
nor bere lanetan,
egin arte bertan,
ondoko egunetan
batzuek penetan,
kulpa aundirik gabe
modu onetan.

11/ Orain eman digute
buruz-bide gaitza,
gure irabaziya
galdu da aisa;
aziyo txarra dana
jendiak deritza,
obligatu gaituzte
nai bagendu mintza;
traiziyoko itza,
Judasen bizitza,
komeni dan gisa
onratu al banitza...
txoruak engañatzen
zertan dabilta?

- 12/ Gurekin agintia
erraz da izaten,
len ere zer zijuan
jakingo zuten;
beti leku batian
ez gera egoten,
bestela're lan dago
gurekin irauten;
zer egin diguten
ari naiz esaten,
uste gabe aurten
utsegiten zuten...
zergatik aritzera
eman eztuten?
- 13/ Guregatik ibilli da
ainbeste komeri,
batzuek ez diyote
utzi lanari;
kargarik ez diyot bota
kulpa gabiari,
pazientziya eskatu
denan Jabiari;
bengantza ugari
egin digute guri,
saltsan enaiz ari,
egiya da ori...
penarik dubena bada
kejatu beri. (4)

(4) Bertso-paperean: *beti*.

14/ Motigua orrengatik
sartu gabe preso
eskatuko al da
Juan Jose Lezo?
gure gañera dator
amaika eraso,
alare ez gabiltza
estutuak oso;
egon animoso,
izan kuriyoso,
paperak eroso
nai duenak jaso,
bi sosenetan badira
amalau bertso. (5)

(5) Bertso-papera, "Impr. Baroja. — San Sebastian"-en inprentatua, ta Baroja etxean betran jaso.

(1895)

BERTSO BERRIAK
JUAN JOSE LEZOARRAK JARRIYAK

1/ Milla zortziregun larogei
ta amabost urte,
illaren ogei ta bosta
señaladamente,
misionero oiek
diran mediante,
bertsuak paratzera
obligatu naute;
obra baliyosua
danak egin dute.

2/ Gizon oien mingañoak
badu talentua,
atzentzeko etsaian
atarramentua,
konserbatu dezagun
animan frutua;
Jesusek badaruka
guzion kontua;
agur parrukua ta
ayuntamentua!

- 3/ Don Zelestino Arbide
gizon atsegiña,
Jaungoikozkua eta
ondo itzegiña;
guregana zeukan
amoriyo fiña,
orren esanetara
umiltzen bagiña,
erakutsi nai digu
fedezko dotriña.
- 4/ Jaunaren bitarteko
ero giyariyak,
oiek dira Don Pedro
Arrue ta biyak,
jendia konbertitzen
apropos jarriyak;
erakarri zituen
Alza'ko erriyak,
San Franziskoren seme
estimagarriyak.
- 5/ Martxuan amaseian
etorri lenbizi,
amazazpiyan ziran
predikatzen asi;
jaun prestu oiengandik
degu milla grazi,
danantzat zori ona
nai dute erabazi,
gaizki itzegiterik
ez dute merezi.

- 6/ Oiek ejenplo onak
dizkigute sortzen,
gaiztua zana franko
asi dira ontzen;
berak dabilta gure
anima salbatzen,
prokuratu gaitian
zeruetan sartzen,
len irabazia da
ezpadegu galtzen.
- 7/ Don Pedrok ots egin du
garboz eta trebe,
ez luzaro egoteko
konfesatu gabe,
propositu firmia
artutzia obe,
Maria Santisima
egĩn dedin jabe,
bestela sekulako
galduko gerade.
- 8/ Esperantza onian
nai badegu bizi,
gurasuak umia
errespetoz ezi;
kulpitutik digute
au ariayazi:
pekatuko biretik
egiteko igesi,
entregatu baño len
anima Judasi.

9/ Mandamentu oietan
astera nijua:
Jaungoikua amatzeko
lendabizikua;
ezta txorakeriya
bigarrenekua,
jurementua alperrik
ez egitekua;
ta irugarrena jaiak
zelebratzekua.

10/ Okasiyua orretan
bada zenbait jende,
ojala trabatuak
ezpaldin bageunde!
Ez blasfemia egiñez,
ibilli *en grande*,
meza osua entzun
jai eta igande,
jarri nai ezpadegu
Luziferren mende.

11/ Au da pulpitutikan
esandako itza:
nork bere gurasuak
errespeta bitza;
beti gu persegitzen
etsaiak dabilta,
desiatuagatik
San Pedroren giltza,
ez degu probetxurik
gaizki bagabiltza.

12/ Bostgarren mandamentua
iñor ez iltzia,
projimuari gaitzik
ez desiatzia;
obe denbora dala
konsideratzia,
gugatik artu zuan
Kristok gurutzia,
lastima da Beraren
legia galtzia.

13/ Utzi seigarreneko
oitura gaiztua,
despreziatu gabe
Jaungoiko justua;
kunplitzen baldin bada
munduko gustua,
noizbait etorriko zaigu
ordena estua;
gugatik nola il zan
ez egon aztua!

14/ Misiyo santu oiek
justuen legera,
Don Ramonek deituta
egin dute sarrera;
baldin deskuidatuak
gertatzen bagera,
gu engañatzen dabill
Judasen bandera;
kuidadua iruki
emendik aurrera!

15/ Kontu aundiya biar du
lapurretarkiñ,
biziyo txarra dala
askok degu jakiñ;
mantxa ori daukana
beti dago zikiñ,
erraustaziyua egiten
obe degu ekiñ,
baliatu dedilla
nor beriarekiñ.

16/ Deskreditua sortzen
dionak iñori,
kontzientziya dauka
pisu eta eri;
ez besterengatikan
murmuratzten ari;
ezaguera degunak
badakigu ori:
asko zor diyogula
Jaungoiko Jaunari.

17/ Gizon ta emakumia,
zertâko da gala?
gaztiak iltzen dira
zarra bizi dala;
frailiak egiñ digute
guri egiñala,
desiyo desordena
laja biar dala,
ez pentsatu bestela
libratzen gerala.

18/ Aita Eternua dago
zerutik begira,
gu bereganatzeko
nai luke segira,
mundura erreguka,
argatik ari da;
orien mandatariyak
Alza'ko errira,
berriz ere obra onak
egiti izan dira.

19/ Segitu zuten mirabe
eta gurasuak,
egunik galdu gabe
famili osuak;
kontuz egiti ditzagun
munduko pausuak,
desanparatu ez gaitzan
Jaun amorosuak,
au erakutsi digute
relijiosuak.

20/ Erregutu diyogun
guziyok Jesusi,
gugatik zutelako
gurutzian josi;
alkarren uniyuan
bizitzen ikasi,
injuriya gaiztuak
barkatu lenbizi,
betiko premiyua
nai badegu irabazi.

- 21/ Gero ikusiko degu
denak Josef at'en
beren animetara
gorputzak juaten,
zelai zabal batera
publikuan erten;
orduan ezipagera
graziyan egoten,
jakiña zer sententzi
emango diguten.
- 22/ An bereziko gaitu
Jesus gure Jaunak,
gaiztuak ezkertera
eskuiera onak;
Antekristoren mende
batzubek juanak,
gloriya sekulako
zerua daukanak,
eternidadeko penak
kastigatzen danak.
- 23/ Bederatziurrenien zuten
frailiak serbitu,
asestitu gabe're
ez gera gelditu;
sendatu dute zenbait
anima eritu,
aurrera ere ala
biagu segitu,
San Migelek gure obrak
pisatuko ditu.

24/ Orra ogei ta lau bertso
onradamentian,
portatu dutelako
Alza'ko partian;
ordena kunplitzera
saiatu gaitian,
trabatu gabetanik
etsaian katian,
San Pedrok sar gaitzala
zeruko atian. (1)

(1) Bertso-papera, "*Imprenta de V. Iraola*",
Errenteria'ko Jertrudis Arrieta zanarengandik.

(1902)

BERTSO BERRIAK MUTIL ZAR BATEN BIZITZA

Bertso auetan, Antonio Morte mutil zarraren bizitza kontatzen da. Bertso-paperetan ez da ageri bertso auek Lexorenak diranik. Bañan Aita Donosti zana-ren bertso-bilduman bertso-paper au ere arkitu degu. «*Imp. Fernández y Diego.—Eibar*»-en inprentatua dago, ta eskuz erantsita itz auek ditu: «*Autor Juan José Sarasola / de Lezo, que vive en Donostia que tiene / ahora 57 años... (Hoy 25 Nov. 1923)*».

Aita Donosti'k emen Lexo bertsolariatz dion guzia, egia da, zenbat urte zituan orretan izan ezik. Orduan 56 urte zituan, ez 57. Egia esateko, utsa. Beraz, beste argibide guziak egia izanik, ez daukagu, nik uste, zer duda egin bertso auek Lexorenak izango diran ala ez.

Ortaz gañera, Lexoren alabari Morte-
ren aditzera ba ote zuan galdetuta, baietz
erantzun zigun, bere aitak askotan aita-
tzen zuala, Morte esaten ziola, mutil za-
rra zala, ta bertsoak jarri ote zizkion
errezelua ere bazuala.

Aita Donosti'ren bertso-paperaz gain,
beste iru tokitan ere arkitu ditugu bertso
auek, irutan egillearen izenik gabe, ta
Aita Donosti'ren bertso-paperarekin alda-
ketarik ez daukatela, inprentaren utse-
giñen bat edo beste izan ezik:

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz.—Irún»,
Getari'ko Garro baserrian jaso.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea,
Fernando Artola «Bordari»-k emana.

Bertsolariya bertso-errebista, 22'garren
zenb. 1932/II/14.

- 1/ Milla ta beratzi eun da
bigarren urtian
Morte allegatzen da
tristura fuertian;
Cuba'n besteren orde
nabillen artian,
pauso txarrak emanaz
neretzat kaltian,
noizbait mudatuko naiz (1)
egunen batian.

(1) Bertso-paperean: *mundatuko*.

2/ Andik etorri nitzan
señale ta guzi,
geroztik ikusten det
zenbait menosprezi;
erdi gosiak nabill
lanetik igesi,
asko jokatu eta
gutxi irabazi,
modu ontan gustora
ez niteke bizi.

3/ Uranga det nonbria,
Antonio izena,
amak egin ninduben
erropa zuzena;
beti afiziyua
kontrako gauzena,
parranda egiten det
al dedan maizena,
geienak badakite
gaiztua naizena.

4/ Ni naiz Antigua'kua,
Antoniyo Morte,
beti jeniyo txarrak
tiratutzen naute;
Cuba'n eritu nintzan
oraintxen sei urte,
gero diariyua
ematen dirate,
ez naiz erretiratzen
gastatu bitarte.

5/ Egunez zurrutian
asitzen naiz baña,
arratsian kanpuan
askotan kamaña;
zerbait izanagatik
lanerako maña,
buruzbide gaiztuak
artutzen dit gaña,
beñere eziñ egiñ det
mantentzeko aña.

6/ Gertatu naizalako
Cuba'n enbaliyo,
eguneko bost errial
dadukat diariyo;
zintzo dabillenari
luzituko diyo,
bañan neretzat eztu
askorik baliyo,
buru gogorrekua
naizela meriyo.

7/ Paga artu ezkerro
tabernara korri,
gero nere ondoren
bada zeñ etorri;
danak gastatu arte
izaten naiz larri,
preziso biar ditut
korrituan jarri,
lizuntzen egon gabe
zoko-betegarri.

- 8/ Zenbait agure zarrek
gure edadian
apanak bazituben
abillidadian;
bañan ni ibiltzen naiz
beti maldadian,
desgubernuan eta
kanpuan gabian,
bizi nitekiana
estadu obian.
- 9/ Aita illa det baña
maitatzen nau amak,
sujetatuko banitz
banituke famak;
kariñoz ikusi nai
senire ta danak,
nik ez ditut aditzen
oriyen esanak,
argatik galdu ditut
proporziyo onak.
- 10/ Lenago andregai bat
topatu genduban,
ura ere ni bezela
zebillen munduban;
aren igesi juanda
izan nitzan Cuba'n,
bertan gelditu banitz
yankiyen onduan,
igualeko pakia
eman biar nuan.

- 11/ Lanerako egunak
egiten ditut jai,
beste jeniyo-klase
geiago ere bai;
modu ortan utziyak
dauzkat bi andregai,
ikusirikan zenbait
begiratu alai,
ta oraiñ berriz iñork
ez gaitu artu nai.
- 12/ Lenguak utzirikan
ain desprezioso,
nola egingo diyot
berriyari kaso?
berak ere ez naute
itz egiten gozo,
estimaziyo gabe
arkitzen naiz oso,
mutill zarren bandera
biarko det jaso.
- 13/ Ostaturik onenak
bizi naiz galduta,
zerbait uts egitian
andikan bigalduta;
askotan tokatzen naiz
erdi zerbailduta,
dantzan puskatzen edo
norbaiti elduta,
gaiztuak onra txarra
eman biar du-ta.

14/ Zori onian nintzan
Cuba'n erituba,
erritik kobratzen det
ango merituba;
gastatu arte bada
zeñek segituba,
gero zokuan eziñ
erremedituba,
toki onian zio
nere kredituba.

15/ Orra amabost bertso
Antoniyorenak,
eskarmenta ditezen
gayian daudenak;
iñork artu nai ez ta
nik daduzkat penak,
beti desesperatzen
jai ta astelenak,
onezkero sekulan
ezkonduko enak. (2)

(2) Bertso-paperean: *ez nak.*

(1903)

JERUSALENGO FUNTZIYUAREN
BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Milla bederatzi eun da
irugarrenian,
proposito firme bat
daukat barrenian:
bi bertso paratzeko
kapaz gaudenian,
kunplitu al baneza
nere ordenian;
saiatuko naiz al dan
modu onenian.

2/ Jerusalem'dik datoz
notizi berriyak,
konsideratu ezkeru
akordagarriyak,
ordenamentu onak
guretzat jarriyak:
uzteko gorrotuak
eta pikardiyak,
zeruan ikusteko
anima garbiyak.

3/ Pelegrinaziyo bat
aurtengo urtian,
logratu dute Jeru-
salen'go partian,
Maiatzeko ill ori
pasa bitartian,
promesa kunplitu zan
askoren artian,
goguan izateko
egunen batian.

4/ Leon Aita Santua
dago Italiya'n,
uniyo baten galdez
joan dan aspaldiyan;
sazerdotien itza,
ezta uskeriyan, (1)
alegiña egin dute
beren istoriyan,
katolikuen onra
galdu ezteriyan.

5/ Izandu eztiranak
biraje onetan,
ejenplo onak ematen
asi dira bertan:
limosna partitu da
aurreko egunetan,
deboziyua dagon
erreino danetan...
gutxi eman degunak
gabiltza penetan.

(1) Bertso-paperean: *euskeriyan*.

- 6/ Katoliku oietan
badira trebiak,
Elizari laguntzen
gu baña obiak;
kunplitu nai badira
obrazko legiak,
aberatsak bezela
dauzkigu pobriak;
ez gaitu bereziko
guziyon Jabiak.
- 7/ Gure Jabia dago
gurutze pisuan,
danori erreguka
beti abisuan;
Aita San Antoniyok,
arturik besuan,
manifestatzen digu
kariño osuan,
guregatikan nola
padezitu zuan.
- 8/ Ala enpeñatu zan
gu anparatzeko,
munduko kriaturak
bereganzeko,
bendiziyo on bana
guziyak artzeco,
pekatu mortalaren
arraiza kentzeko;
aingeruak eman nai
ditu laguntzeko.

- 9/ Erroma'tikan ere
badatoz ordenak,
memoriya argitzeko
premiyan daudenak:
despreziaturikan
biziyo txarrenak,
garbi edukitzeko
nork bere barrenak,
abisatzen du Leon
amairugarrenak.
- 10/ Ogei ta bost urtian
dago Aita Santu,
irurogei ta beatzi
enpliu au artu;
artzai umillak nai du (2)
ardiyakin juntu,
otsuak galdu gabe
egiñ digu kontu,
geroko desonrarik
eztekien sortu.
- 11/ Ezin konbertiturik
orrenbeste naziyo,
aspaldiyan pasa du
bost persekuziyo;
ala ere guregana
dauka bokaziyo,
apartatu nai digu
zenbait okasiyo,
izatiagatikan
berekin soziyo.

(2) Paperean: *artzai umilla*.

12/ Orla sufri-azitzen
gure Aita Leoni,
sentimentu aundi bat
sartu zait nedoni;
amoriyo aundiko
gizon prestu oni,
kontra ibilli gabe
len aña armoni,
guk errespetatzia
ez al da komeni?

13/ Gizaldi berriy'ontan
egin du zenbait gastu,
Adanen oñordiak
ibiltzeko prestu;
libertade geyegiz
ez beñere poztu,
Jaunaren sententziya
izango da justu,
kontra egiñda iñork
modatuko eztu.

14/ Pelegrinatzia zan
Jerusalenian,
gurasuentzat ditxa
gero ondorenian,
anima salbatzeko
modua danian,
seme-alabak jarri
leziyo onian,
penarik izan gabe
denbora juanian.

15/ Bataio santotikan
dauden poderiak,
andik libratu ziran
zeruko bidiak;
berriz topa ditzagun
trabatu gabiak,
anparatu nai gaitu
Birjiña Mariak,
zein dira ori baño
enpeñu obiak?

16/ Gauza biarrak dira
bezpera ta mezak,
nola penitentziyak
ala interesak;
zuzentzen baditugu
kontu alrebesak,
geroko zori ona
gorrotorik ezak;
akordatzeko diyo
guziyon juezak.

17/ Oraziyo egiñez
obe degu bizi,
eman dizkigulako
orrenbeste grazi;
bere odolarekifi
ginduen erosi,
gu salbatziagatik
gurutzian josi,
orain ofenditzia
litzake itsusi.

18/ Misiyuak ez dute
gutxitan aitatzen,
au konsideratuta
konfesa gaitzen,
alegiñak egiñez
Jauna errespetatzen,
gugatik asi gabe
berriz azotatzen...
saiatu bear degu
garbi presentatzen!

19/ Jaio giñan ezker
gabiltza torpezan,
bizi biar onekiñ
estu eta presan;
pazientzia artu
dezagun pobrezan,
deboziyozko itzak
biaitugu esan,
diabruak indarra
eduki ez dezan.

20/ Orra Jerusalem'go
obrak eta lanak,
abertentzi aundiyak
dauzkagu emanak;
gu izaten bagera
alkarrentzat onak,
eskojituko gaitu
Jesukristo Jaunak,
bere tribunalera
azkenian danak. (2)

(2) Bertso-papera, "Imprenta de V. Iraola",
Errenteria'ko Jertrudis Arrieta zanarengandik.

(1903)

BERTSO BERRIAK

Bertso-paperetan ez da esaten bertso auek zeñenak diran. Bañan Lexorenak dirala, bertsozale askoren aotik entzun izan degu. Ta *Bertsolariya* bertso-erre-bistan, bertsoak dauden tokian olakorik esaten ez bada ere, arkibidean Lexoren bertsoetan daude.

Bertsoak, 1903 urtean jarriak dira, ta garai artako langille jendearen kezkak agertzen dituzte. Agian orregatixe etzuan Lexok bere izenik jarriko.

Doñua, Pello Zabaleta bertsolaria zaren aotik degu; beti orrela kantatu omen dira bertso auek. Ambrosio Zata-rain jaunak idatzi du doñua, magneto-fonotik entzunda.

Gi-puz-ko-a-ko par-ti-an ka-ri-ñoz bi-zi
 gai-ti-an u-ni-yo e-der ba-ti-an la la
 la-ra-la-lai mi-lia bea-tzi-reun bai-ru-ga-rre-no
 kun-pli-tzen zai-gun ar-ti-an Jain-ku-ak di-gun
 suer-ti-an jus-tu ga-bil-tza por-ti-an o-sa-su
 -na dan ar-ti-an la-la-la-la-la la-ra-la-la-la
 -la-la-lai o-sa-su-no dan ar-ti-an

Pello Zabaleta zanak kantatua

1/ Gipuzkoa'ko partian
kariñoz bizi gaitian
uniyo eder batian;
milla beratzireun ta irugarrena
kunplitzen zaigun urtian,
Jainkuak digun suertian,
justu gabiltza portian,
osasuna dan artian.

2/ Bertsuak jartzen naiz asi,
ez derizkiot itsusi,
gusto dubenak ikasi;
erreinu ontan desiatzen du
estranjeruak nagusi;
guziyak nai degu bizi,
oiek ainbeste noblezi
guk ez al degu merezi?

3/ Aurten mudantza berriya
Donostiya'n da jarriya:
ordubetako neurriya;
zortzi orduan irabazten da
jornaleruen ogiya;
argitu zaigu begi ya,
au ez da txorakeriya, (1)
bazan zerbaiten premiya!

(1) Bertso-paperetan, *txorakeriya* edo *txarrakeriya* dago, guk uste, txorakeriya bear du, ta ala jarri degu.

4/ Oraingo reglamentubak
zuzendu ditu puntubak,
ez daude lengo kontubak;
zenbat fabore egiñ lezaken
gizon baten talentubak!
baliyo du errespetubak,
geroko eskarmentubak,
oik dira pundamentubak!

5/ Beiñ akordatzen naizela,
kintzena billa guazela,
bost urte bada au zela,
nagusi bati aditu niyon
pioiarentzat biartzela
ordu askoko kartzela,
amenazua bestela,
Txina'ko beltzak bezela.

6/ Gure orduko jarrera
pentsurik gabe lanera,
biurtu giñan larrera;
beti mendian nai ginduztenok
lengo oitura zarrera;
eman diguten karrera
oraiñ artian txarrera,
ez dakit onez aurrera.

- 7/ Langilliaren bizitza
bastante penagarritza,
jendiak ala deritza;
guk dabillkigun diariyua
ez da uts egiten gaitza;
kunplitzen ez bada itza
estimaziyo murrirtza,
progaturikan gabilta.
- 8/ Nekazalien itzketa,
penoso dala uste-ta,
estutasunez beteta,
kontribuziyo aundiyarekin
eziñ burutu zuten-ta,
zedulak eta patentak,
lenagokuak errenta,
argitutzeko kopeta.
- 9/ Zer moduz itz egiñ zuten
egonduba naiz entzuten,
bat edo batek miñ zuben;
baserritarrak aritu zaizkit
dauzkatzen penak esaten;
nun-nai gizonak izaten,
oaiñ batalla bat jo zuten,
arrazoi ere bazuten!

- 10/ Tratalariyen legia
batzuen abillidadia,
guk degun bañan obia;
al dezakenak etxe aldera
bere posiblidadia,
libre balego bidia,
geienak degun iria;
nik aitortzen det neria.
- 11/ Izan da zerbait agoztu,
guziyak giñaden poztu,
oraindik ez zaigu aztu;
jenero dana errira sartzen
bagendun naiko apostu;
saiatzen danari justu
irabazirik ez ostu,
beretzat geiegi eztu.
- 12/ Batzuben atrebientziyak
maliziyetan jantziyak,
elkarri erakutsiyak;
urikan gabe mostillu utsez
bete zitazken ontziyak;
tragatu ditu Frantziya'k,
gu gaude baju utziyak,
oientzat abundantziyak.

13/ Gure Españaia'n lan dute,
zergatik dagon arlote,
konsideratzen al dute?
jakiña dago, gauzik onena
kanpora bigaltzen badute,
deretxua abundante,
alperrak gizendu arte;
oiek pegatzen digute!

14/ Ortik ez dator gauz onik,
bear degun ontasunik,
bizitzezkero personik;
zerbait dubenak aditu nai ez
arlotiaren esanik;
kulpante asko izanik,
ez det esaten izenik,
bagaude jende zuzenik.

15/ Zorioneko botuak
nola litezken justuak
ortik atera kontuak;
egun batian ondo itz egiñ,
andik aurrera lutuak;
engañiyoko tratubak,
gu gaude obligatubak,
ordenak estu artubak.

- 16/ Agintzalleak kejavu
eziñ dirala bajavu,
aundiyenera jokuvu;
langillearen izerditikan
zenbaitek nai du zupavu;
bere legiak ukavu,
oponiyua trukavu,
ori ez al da pekavu?
- 17/ Gauza guziya gazitzen,
guri sufritu-azitzen,
erakusteko bizitzen;
jornal txikitik ari geranak
seme-alabak azitzen,
eskola erakutsitzen,
mantentzen eta jantzitzen,
ez degu erraz luzitzen!
- 18/ Emen bizi dan jendia
gauza onaren zalia,
debalde sortzen balia;
baserritikan biltzen ez bada
pobrezan dago kalia;
geienak diru-aldia, (2)
beti zerbaiten galdia:
oiek egiyak al dia?

(2) Bertso-paperean: *iru aldira*.

- 19/ Gaur etxe asko genduan
juntu alkarren onduan,
jabiak daki non duan;
preziyo ona izan ezkeru
obe genduke lenguan;
garexti daude suelduan,
iñork ez du nai galduan,
au pasatzen da munduan!
- 20/ Langille baserritarra,
ez det ikusten bakarra,
indartu nairik bazterra;
zenbait nagusik egiten daki
gero gañetikan farra;
errenta jarri azkarra
kargatziatik bizkarra,
edukaziyo kaskarra!
- 21/ Danak ez dira kulpante,
nai dubenari bakante,
graziyak eman aparte;
beste zenbaitek langillientzat
kariño obia daukate;
oiek diran mediante,
argitzen gera bastante,
jениyo iguala ez dute.

22/ Kalian daukagun mora:
pobria betikan gora
telltubaren ondora;
eskallerarik mantxatu gabe
pasa dezala denbora,
ordenantza egongo da,
naiz errenditu lengora,
aidian eziñ joango da!

23/ Gu gaude beti nekian,
sobrante gutxi kofrian
gastatutzeko golpian;
endredo asko ez degu jartzen
kasinuan ta kalia;
au esan biar nukian
onena zer litekian
pobrezan eta pakian.

24/ Badegu aiudantia,
guziyen jabe maitia,
bertute aundiz betia;
desio nuke modu obian
jenerua eramatia;
nik badet borondatia
zabaldutzeko atia;
auxen da errematia. (3)

(3) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Zaurantz'ko baserri batean jasoa.

Bertso-papera, "Imp. de Orúe. — Eibar", Berriatua'ko Alzalegi baserrian jaso.

Bertso-papera, "Imp. Fernández y Diego. — Eibar", Anizeto Kalonje'k emana (Oriamendi, Aiete, Donosti).

Iru bertso-paper auek, berdin-berdin dauzkate bertso-guziak; aldaketarik ez dute beren artean.

"Bertsolariya" bertso-errebista, 10'gn. zenbakia, 1931XI/22. Aldaketak: 1/4: milla beratzireun ta ogeigarrena; 4/2: zuzendu ditugu puntubak; 7/6: kunplitzen ez baida itza; 8/7: lenagokua errenta; 12/4: mustillu; 12/5: zitezken; 16/7: opiniyua; 18/6: geienak iru badira.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Zarautz'-ko Lorenzo Zulaika'ri jaso. Aldaketak: Onak amabost bertso ditu; onako auek falta ditu: 8, 9, 12, 13, 14, 15, 19, 21 ta 24'garrena. Gañerakoen aldaketak: 1/3: naitasun eder batian; 1/4: milla beatzi-reun ogeita; 1/5: beatzigarren urtian; 2/3: nai dituenak ikasi; 2/4: gure arteko pasadizua; 2/5: nai nuke adierazi; 2/6: guziyok; 2/7: askok ainbeste noblezi; 3/1: Orain mudantza berriya; 3/2: nunai daukagu jarriya; 3/4: zortzi orduban irabazten du; 3/5: jornaleruak ogi ya; 4/2: zuzendu ditu juntubak; 4/7: gañera eskarmentubak; 5/3: urte batzuek au zala; 6/4: ginduztenak; 7/2: naikua penagarritza; 10/3: guk badegun baña obia; 10/6: geienak degun idia; 10/7: libre balego bidia; 11/2: guziyok; 11/5: genduben naiko apustu; 16/1: Batzuek cira keiatu; 16/6: legia; 17/1: gauza guziya gaiztitzen; 18/6: geienak diru aldia; 20/3: edertu nairik bazterra; 20/4: baña zenbaitek egiten daki; 20/6: errenta altzatze azkarra; 23/4: enredo ez degu jartzen; 23/5: kasinuan da kafian; 23/8: duenarekin pakian.

(1904)

«MILLA BEATZIREUN ETA
LAUGARREN...»

Onako bertso au, Ernani'ko Antonino Pagola zanak emana degu, Lexok jarritako sail baten asiera zala esanaz. Bañan, zori txarrez, bertso-paper ori ez degu, orain arte beintzat, iñondikan eskuratu.

Milla beatzireun eta laugarren
urtian gera gertatzen,
oraingo fiesta dominikalen
ordenak errespetatzen;
etsai gaiztuak asiagatik
noizian ta bein tentatzen,
bere onduan nai gaituenak
ez du ezertan paltatzen;
lendabiziko fundaziyotik
astera nua kantatzen.

BERTSO BERRIAK
MUNDUBAREN ASIERA ETA
AITA ETERNUAREN EJENPLUAK
1905

Bertso-paperetan ez da ageri bertso auex Lexorenak diranik. Bañan *Bertsolariya* bertso-errebistak ala esaten du; ta Lexoren alaba Adelinak ere ori bera esan digu, bere aitarenak dirala alegia.

Itzaurrean, alaba onek berak esanda, adierazi degunez, «Testamentu zarreko eta berriko kondaira» deritzaion liburu, oso Lexoren gustokoa omen zan, ta askotan jarduten omen zan liburu ori irakurtzen; ontatik artu omen zituan bertso auetako esakizunak.

- 1/ Jakintsu batek obligatu nau
istoriya bat letzera,
errespetuan saia nedilla
bertso berriyak jartzera,
kristau fielak uni gaitezen
katolikuen antzera,
egiyak klaro deklaratuaz
eskandaluak galtzera;
ori egiñ nai duenik bada
ez nua engañatzera.

- 2/ Begi argiyak ikusten dira
klaro danian gabetan,
guri begira arriturikan
oraingo zenbait legetan;
negarrez gaude destierroko
ballera triste onetan;
Aita Eternuak zer egiñ zuen
asteko sei egunetan,
ejenplu ori adierazi
nai nuke euskaldunetan.

- 3/ Obra bearra mundu zabal au
fundatzen asi zanian,
bakardadea beste lagunik
etzuen aldamenian;
Espirituen bertute aundia
enpeñatu zan lanian,
zerua, lurra, uda, sua ta
argiya modu onian,
bost gauza oiek egiñ zituen
lendabiziko egunian.

- 4/ Bigarrenian egiñ zubena
lenengo firmamentua,
goiko estali urdiñ ori da
bistako formamentua;
gañeko urak beenetatik
berezitzeko kontua,
gala aundiyan eragiñ ziyen
beren apartamentua,
kabo gabia izan bear du
Jaunaren fundamentua.
- 5/ Irugarrengo esperientziya
erakusten digu gertu,
beste lagunik izan baño len
nola lezakian artu:
goguan zeukan pensamentutik
sekulan etzan okertu,
urak itsaso batera bildu,
andik legorrak agertu,
ta gero lurra, belar ta zuaitz
mota guzitik edertu.
- 6/ Eguzkiya eta illargiya,
izarrak argiz betiak,
ibillera eta señaal guziyak
dauzkite korrientiak;
oietatikan zuzendu ziran
azañaak, balientiak:
egunak, gabak, astiak, illak,
eta gañera urtiak;
obra beretik jarri zituen
guziyon aiudantiak.

- 7/ Lau egunetik bostgarrenera
iritxirikan plazua,
arrai ta guzi konpletatuta
gelditu zan itsasua;
aideko eta danari eman
talentu baliyosua,
jenero dana añaditzeko
abillidade osua,
segida onian konserbatu zan
bizikari ditxosua.
- 8/ Abere eta lur gañekuai
añaditzeko laguna,
eskubidia biali ziyen
izanik biyotz biguñia,
amoriyozko obra zuzena,
bestek ez dezakeguna;
gero gizona formatu zuen,
au zan seigarren eguna,
fede garbiya izan ezkeru
sinistu biar deguna.
- 9/ Lendabiziko konzebitua
zeru ta lurren burutza,
gañerakuak egiñ ta onduan
gizonaren onrarutza;
lur piskarekiñ bere antzera
moldaturikan gorputza,
anima berriz arnas batekiñ
andik espiritu utsa;
guziya berak dezakianak
zertarako du laguntza?

- 10/ Orretarako agindu ziyon
Aita justuak lurrari,
komeni zaion arreglu on bat
jartzeko mundutarrari,
jaiotzen danak begiratzeko
eriyotzaren zorrari;
trabatu gabe eskapatuaz
bide gaiztoko lurrari,
guziyok eutsi biar diyogu
lengo dotriña zarrari.
- 11/ Gure mundu au nondik asi zan
orra nik klaro itzegiñ
kondai zarrian dagoan gauza
apenas dedan utsegiñ;
aditu degu nola ziguten
kulpitotikan otsegiñ,
sei egunian nekatu zana
zazpigarrenian itxogiñ;
au jarri zuben ordena txarrik
guretzat izan etzegiñ.
- 12/ Orra zer lanak eragiñ dizkan
gureganako zalantzak,
betiko ditxa seguratuta (1)
bear zirala bonantzak;
bere ondora eramateko
egiñ zituen librantzak,
biyotzeraño zulaturikan
amoriyozko arantzak;
lege justuak orduan ziran,
geroztik dira mudantzak.

(1) Bertso-paperean: *segura ta.*

- 13/ Lenengo ezkontza formatu zana:
Adan senarra aurrena,
biyak guraso egiñ zitezen,
emazte Eba urrena;
oiek kunplitu etzutelako
Jaungoikoaren ordena,
pekatuaren arraiz gaiztua
inguratu zan gurena,
ikusten degu kondentatzeko
peligro aundiyan gaudena.
- 14/ Paradisuan ondo zeudenak
mantxa gabeko bizitzan,
estadu artan aguantatzia
norbaitei luze zeritzan;
serpientien figurako bat
engañiyuan asi zan,
guraso oien leialtasunak
ez zuben sufritu izan;
ondorenguen eskarmentuba
nonbait ala komeni zan.
- 15/ Mundutar danak kupi gaitezen
geren arreba ta anaiz,
guraso zarrez edo gazteaz,
ezkonduak edo ezkongaz,
guziyak egiñ bear deguna:
«Ni ere ill bearra naiz!»,
iñork ez daki zer posturetan
zer ordutan, non edo noiz,
bide gaiztuan eroritzeko
tentaziyuak dira maiz.

- 16/ Ai, pixti bati ikusten zaio
 bere umia ortzetan,
 esperientziyak erakutsiyaz
 lurreko bide latzetan,
 negu tristian uda berriya
 datorren esperantzetan,
 alibiyuan galdu ezkeru
 zinis gorriyan otzetan; (*sic*)
 gure animak alaxen daude
 aurrekuaren lotsetan.
- 17/ Diabrubaren leizera gabe
 alkar biagu anpara,
 relijiyua maite duenik
 eziñ lijuake ara;
 aingeru edo giyatzalle bat
 etorko zaigu bertara,
 gorroto gabe biur gaitezen
 dotriña justuetara,
 kontu garbiya entregatzeko
 Jaunaren eskuetara.
- 18/ Aita Eternuen eskutik daude
 tenplia eta berua:
 gaiztua dana inpernurako,
 ontzen danari zerua;
 bizi-leku bat eman nai digu
 zuzena eta segurua,
 bere doaia konserbatzera
 askaturikan burua,
 premiyo ori alkantzatzeko
 egiñ dezagun modua. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. de S. de Diego. — Ei-

bar”, Alkiza’ko Bentzalaga baserriko Inazio Ugartemendia’gandik jaso.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteria’ko Makazaga moldiztegian. Aldaketak: 11/8: zazpigarrenian.

“Bertsolariya” bertso-errebista, 7^{gn.} zenbakia, 1931/XI/1. Len esan bezela, onek Lexo bertsolaria artzen du egilletzat, izenburuan onela jarriaz: Munduaren asiera eta Aita Eternuen ejenpluak, 1905’garrenian Sarasola’tar Juan Jose’k jarriak. Aldaketak: 4/5: gañeko urak bekuetatik; 6/3: señale danak; 7/3: arrai ta guzi ta konpletatu ta; 9/7: asnas; 13/1: formatu zan; 15/8: ze ordutan; 16/7: alibi yua; 16/8: bilus gorriyan otzetan.

“Argia” errebista: onek ere Lexorenak çirala esaten du, bertsoen atzetik LEXO jarriaz. Errebista osoa ez daukagu, puska bat bakarrik; orregatik ez dakigu zein egunetan atera ziran bertso auk. Etzituzten bertso guziak argitaratu; lenengo amabiak bakarrik. Bearbada, gañerakoak errebistaren urrengo zenbakian argitaratuko ziran. Onek, garbizalekeriz, bertsoak zearo aldatuta dauzka. Ona, adibidez, lenengo ta irugarrenaren asiera: Jakintsu batek beartutzen nau edestia irakurtzera... Aintzan bearra Ludi zabal au irasten asi zanean... Zertarako aldaketa oiek emen jarri?

Bertso-papera, “Beasañ’en Zunzunegiren Moldiztegi’an”. Onek Argia’ren amabi bertsoak dakarzki, itzez-itiz kopiatuta.

(1907)

BERTSO BERRIAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

Irugarren bertsoan, 1907 urteko Ilbeltzaren 13'an Donostia'n egin zan jende-biltzarraz mintzatzen da Lexo. Biltzar sonatu ori, artean egin berria zan. Orregatik, bertso auk urte berekoak izango dira, 1907'garrengoak alegia.

Egun artan bildu zan jendea, zibill-ekontza ta abar jarri nai zituan legearen kontra protesta egitera etorri zan.

Beste zenbait bertsolarik ere, bertsoak jarri zizkioten gai oni berari.

1/ Gauzak obligatzen nau
bertsuak jartzera,
banua gramatika
irakurtzera;
alkar serbi dezagun
kristaben antzera,
bestela datorkigu
anima galtzera;
pakia sortzera
ez egon atzera,
zerbait laguntzera
saiatu ontzera,
ibillera gaxtuan
griña kentzera.

2/ Orain ogei ta bost
urte ziran asi,
garbi esposatzia
nai galerazi;
sanuak ez gaitezen
ortaraño jausi,
tentaziyo txarretik
in zagun igesi;
datorrena ekusi,
famili eta guzi,
aurrak ondo azi,
ala du merezi;
zarraren ejenpluan
obe da bizi.

3/ Ogei ta amar egun
ziran Abenduan,
Donostiya'n junta bat
izan genduan;
Ilbeltzaren amairuan,
gero urrenguan,
milla ta beatzireun da
zazpigarrenguan;
batzuak lenguan
nai dute munduan,
kariño senduan,
alkarren onduan;
ageriko da zeñek
portatzen duan.

4/ Zibillez ezkontzia (1)
desio duanak,
elizetara gabe
egin nai lanak;
notiziya izan zan
itxitzeko danak,
oraindik eztu utzi
buru dagon Jaunak;
ain kontra juanak,
zabarrak egonak,
batez ere gonak,
engañiyo onak;
besterik gaixtu nai
oker dagonak.

(1) Bertso-paperean: *zibillak*.

5/ Libertadeko ezkontza
nai duenak ekarri
protestante-legia
lezake jarri;
bat gustatzen bazaio
lenbiziyan erri, (*sic*)
gero ibilliko da
mundu-parragarri;
burla egin ta korri
egingo du sarri,
amoriyoz urri,
muratzeko larri;
ekusten dira zenbait
istillu gorri.

6/ Zer da gure arteko
biziyo gaiena?
aragiyaren griñak
dakar geiena;
estranjero askori
gustatzen zaiena,
beren alde jartzia
luteke naiena;
kontrako aiena
degu lasaiena,
izketa loiena (2)
arturik goiena;
errespeto eskasa
dago oiena.

(2) Bertso-paperak: *laiena*.

7/ Kapa beltzaren kontra
asiyak ostera,
lenguaje gaxtuak
erakustera;
biurtu nai lirake
estadu tristera,
amar diran tokiyan
bajatu bostera;
gaizki ekustera,
galdurik euskera:
«Orlako izkera
sar zagun auts-pera!»;
paltatzen eztuenik
iñor ez gera.

8/ Eliza fundatu zan
San Pedrorengandik,
artikulo eder bat
jakin det andik;
geroztikako saltsak
esango det nundik:
kredua borratu nai
al balitz iñondik;
eztago ordenik,
ala uste det nik,
urte asko juanik,
orrelako lanik
ezin sinistatu det
galduko danik.

9/ Batzuen arrokeriz
sortzen diran gauzak,
luzimentu gutxi du
gure grandezak;
galestiyak diala
pregoi eta mezak,
eskritura debalde
al dute juezak?
pobre prestu-ezak
baju interesak,
egiteko noblezak
modu alrebesak;
geiena kausatzen du
sopritu-ezak.

10/ Ezkontza txarretatik
datozen nastiak,
pamiliyako buru
alrrebestiak;
gurutziari eutsi
senar-emaztiak,
gu ilko gera baño
badatoz bestiak;
kontuz ajustiak,
naiz asko kostiak,
ez nere albistiak
arritu, gaztiak;
ez geiegi itxutu
mundu tristiak.

11/ Beste estadukuak
ezkondu gabiak,
jениyo batzuetan
igualdariak;
guziyok baditugu
geren findariak,
bañon tiratzen gaitu
bakoitzak beriak;
nik ere neriak
badauzkat iriak;
kunplitzen legiak
zein geran obiak
ezagutuko gaitu
gure Jabiak.

12/ Diabruan mendian
jartzan dan presuak,
bizi-modu geienak
peligrosuak;
ai, ibillera gaxto
lujuriyosuak!
mintzen errazak dira
oraingo gozuak;
aritu kasuak,
mirabe gaxuak
eta gurasuak,
zabaldur besuak,
Jaunak zuzendu itzala
gure pausuak. (3)

(3) Bertso-papera, "Imp. Macazaga.—Rentería".

Errezil'ko Loi-azpiko baserritik. Zaarrena idurituta, oni kopiatu dizkiogu bertsoak.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea. Ez nuan apuntatu zeñen eskutik jaso nuan. Aldaketak: 2/8: al bada igesi; 2/9: ikusi; 2/13: ejenpluak; 3/9: batzubek; 3/14: kunplitzen duan; 4/1: Zibillez ezkontzia; 4/13: besterik gaiztotu nai; 5/1: Libertade ezkontza; 5/6: etxera ekarri; 5/8: danen parragarri; 5/13: ikusten; 6/2: biziyo geiena; 7/5: lizake; 7/9: ikustera; 7/11: orbaka izkera (*sic*); 9/11: galdurik noblezak; 10/3: fameli askorentzat; 10/4: buru austiak; 10/11: nere albistiak; 11/14: danon Jabiak; 12/1: Etsaiaren mendian; 12/13: Jaunak zaindu ditzala.

“Bertsolariya” bertso-errebistan, 21'gn. zenbakia, 1931/II/7. Aldaketak: Izenburua: Orain gertatzen dana. — Juan Jose Sarasola'k jarriyak. 2/6: ausi; 9/13: geiena aspertzen du.

(1909)

LOURDES'KO BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIAK

Urte batez, Lourdes'a joan zan Lexo. Pozez zorutzen etorri zan. Milagroren bat ere, berak ikusi ez bañan gertatua zala esaten zuan. Oi danez, medallak, karameluak, ura, errosario luze bat, ta abar ekarri zituan.

Iñora ateratzen ez baitzan, onela galdetzen zioten gero alabak:

—Lourdes urruti al dago, aita?

Ta Lexok onela erantzuten zien:

—Bai, neska, bai! Oso-oso urruti zion!

Ezta arritzekoa ori esatea; bere denbora guziko biajerik luzeena Lourdes'ko ori izan baitzan.

Garai artan Lourdes'ko joan-etorriak amaika pezeta balio zuan.

- 1/ Mundu ontako nere bizitza
 penetan edo kantari,
 nunbait ontako jaiua nintzan,
 ez nabil gezur kontari;
 argitasun bat eskatzen diyot
 Lurdes'ko Ama Santari,
 errukitubaz begiratzeko
 pekatariyen plantari,
 pelegrinaziyo eder oietan
 egiten diran juntari.
- 2/ Milla bederatzireun ta bederatzian
 Uztaren amairuban,
 milagro aundiyak agertu dira
 Birjiñaren inguruban;
 gure artian orlako baten
 premi aundiya zeguan,
 ekusirikan sinistatuta
 jendia nola dagan,
 ondorenguai erakusteko
 artu litezke goguan.
- 3/ Illak amabi zituenian
 katolikuen bandera,
 bedinkatzera allegatuba
 euskaldun asko jende da; (1)
 beste naziyo klase geiago
 diran lekura juan gera,
 gure legia erori gabe
 oiñ-pera edo mendera,
 kontzientziya jarri dezagun
 San Fernandoren aldera.

(1) Bertso-paper batean *sendia* dago; bestean, *jen-
 de da*; lenengoak esan-nairik ez baitu, bigarrengoak
 diona jarri degu.

- 4/ Amabi urte kunplitu dira
egiñ nubela promesa,
oraiñ artian egonduba naiz
juan biarrian Lurdes'a;
langilliari gertatzen zaio
biarrenian pobreza,
ezin dubenak proposituba
biyotzatikan ar beza,
zertaraño dan ezagutzeko
Birjiña Amaren nobleza.
- 5/ Esan derana promesa ori
nitzan kunplitu zalian,
geiago ere ikusi ditut
modu ortako pelian;
aberats eta biartsu asko
baserriyan da kalian,
ezta posible allegatzia
estadu igualian,
nai eta eziñ dubena franko
bada mundu zabalian.
- 6/ Gure relijiyo katolika
apostolika romana,
nola salbatu erakusteko
Jesus maitiak emana;
amoriyua izan biagu
sema-alabak Amana,
au egiñ faltan galdu ezkeru
bakoitzak anima bana,
diabruaren engañiyua
baliatzen da gugana.

7/ Donostiya'n da erri askotan
ein diran karidadiak,
gaxo daudenak eramateko
artu dituzte idiak;
aberatsetan izan ditugu
ongille pare gabiak.
bildurrik gabe igarotzeko
pausuak eta bidiak;
aieri ere laguntzen diye
Ama Birjiña Mariak.

8/ Ama Birjiña Luerdes'kuaren
birtute baliyosuak,
arkaitz ortara izandu ditu
bisita kariñosuak;
seme-alabak laguntza eske
zabaldurikan besuak,
umildadetik barka ditezen
gure pekatu pisuak,
erregu asko egin diyogu,
senda itzazu gaxuak.

9/ Kuranderuen erremeriyoz
etsita dauden nagiyak,
begira nola sendatu diran
elbarri edo eriyak;
biyotza jaso Jaunarengana
amoriyo ugariyak,
oien lastimaz errokituta
bustitzen ziran begiyak,
deklaratzeko lotsarik ez tet
zergatik diran egiyak.

10/ Dama gazte bat bañutik sano
atera dala aurrena,
erdi elbarri eta itxuba
argitu zaigu urrena;
mutil gazte bat Oiartzun'gua,
ori da irugarrena,
beste bi ere bai emen daude
lasaiturikan barrena,
nola eztegu borondatia
izango Ama orrena?

11/ Ama Birjiñ au agertu zala
berrogei ta iru urte,
Otsaillaren amaikagarren
eguna siñalamente;
Benardatxoren aurrek'aldian
plantatu zan derrepente,
esperientziyak erakutsiyak
aingeru ori zan arte,
oraziyuak baliyo badu
zeruan dala diyote.

12/ Zorioneko prozesiyuak
ango bezpera ta mezak,
aztu-arazi dizkigutenak
ibillera aldrebesak;
Alemani ta naziyo askok
kunplitu ditu promesak,
ainbesteraño nai digunian
zeru ta lurren Prinzesak,
bere aldizko ongi-etorriya
egifi digute francesak.

- 13/ Goizean bostak bost gutxiyago
Donostiya'tik abian,
arratsaldeko iru t'erditan
giñan Lurdes'ko erriyan;
enkargatuta gizon prestubak
trenan jendien guardiyan,
deskuidorikan pasa eztediñ
bireko juan-etorriyan,
begiratubak izandu gera
modu, estimagarriyan.
- 14/ Gero goizeko elizkizuna
pensatu zuten astia,
komuniyo bat bost eta erditan,
sei ta erdiyetan bestia;
gaxuarentzat berandubena
obe zala erakustia,
nai dezagula induljenziyak
ortatik irabazia,
au aritzera eman dutenak
euskaldun txarrak ezta.
- 15/ Asteleneko prozesiyuan
arratsian beranduban,
asteartian lenbizikua
meza nagusi onduan;
arratsaldian sei ta erdiyetan
imitaziyo lenguan,
bedeinkaziyo azkenekua
eliza aurrian genduban,
siñu oneko Amaren kastak
izan gaitezen munduban.

16/ Bi egunetako prozesiyuan
estandarte ta paliyo,
atera diran edertasunak
eztute gutxi baliyo;
lengo bandera mantxatu gabe
al bageneza gora iyo,
sermoilariyak esan ziguten
bizi gaitezen uniyo,
anima asko konbertitu da
oiek dirala mediyo.

17/ Musika eta kantubarekiñ
ematen zuten ederki,
sazerdotien mugimentuba
ango jendiak badaki;
pasa dan gauza deklaratzia
iruritzen zait egoki,
kristandadia nai dubenari
lasai atia ideki,
oraindik ere luzituko du,
ez kuidadorik eduki.

18/ Amairugarren Aita Leonek
ta Pio amargarrenak,
zuten legia utsegitia
eztit laguntzen barrenak;
eri, elbarri, itxu ta gorrak,
sanuak eta errenak,
Ama Birjiña maita dezagun,
adiskide alkarrenak,
bere eskutik eduki gaitzala
zergatik geran orrenak. (2)

(2) Bertso-papera: "Gerniça. — Imp. de Angel

de Goitia", Donostia'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman.

Bertso-papera, "Elustondo. — Zarauz", Orio'ko Gregoria Ibarгойen zanarengandik. Paper onek, 6, 11 ta 15'garren bertsoa falta ditu. Gañontzeko aldaketak: 2/1: Milla beatzireun ogei ta zortzi; 2/2: garagarrillen iruban; 2/6: aundiyan; 3/3: bedeinkatzera.

(1914)

EUROPA'KO GERRAREN BERTSUAK
SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Emeretzireun urte pasata
gañera amalabian,
turmoi nastua formatu da ta
izarrak triste gaubian;
egunez goibel kolore txarra
eguzkiyaren parian,
malkua eta odol-putzua
nork daki zenbat birian,
kanpuan dagon naigabia ori
kutsatuko da gurian!

- 2/ Amerika'n ta Ozeania'n,
Afrika'n eta Asia'n,
arritzen dira Europa dana
negarrez nola bizi'an;
munduaren bost partietatik
au dabill marka pasian;
oraiñ aiñbeste odol isurtzen
bada denbora luzian,
anima salbo, jarriko gera
pizti gaixtuen klasian.
- 3/ España'ko partiduari
kontu zaiogun lenbizi,
tallerrak eta komerziyuak
begira geratu-azi;
fabriketan ta leku askuan
kanpotarra da nagusi,
bertan diranak lanikan gabe
miseriyaren igesi,
gure erriñubak ortaraño
burlarik eztu merezi.
- 4/ Eskola aundiko batek esan dit
konparaziyo iguala,
engañatuta bizi ote dan
zergatik gauden gu ala;
danakin berdina nai lukeana
izanagatik kabala,
dibertitzeko eztu billatzen
len bezin bire zabala,
bere etxetik ezugatzen du
auzuan zerbait badala.

5/ Norte aldetik begira daude
ze ixtillu datorren an,
aunditsu orrek lertu bear du
kanpuan edo barrenan;
Agoztuaren iru ezker
luzaro dabilta teman,
baporiakiñ ur-peratua
zenbait ingles ta aleman,
dipuntu oien garbitasuna
guk eztakigu nola eman.

6/ Sasoi batian abarka-dunak
giñan estadu tristian,
eskarmentua sartu ezpalitz
pruebak erakustian;
auzo-erriko bezinu oiek
kontentu ziran noskian,
orduan guri lagundu nai ez
ta orain anparo-eskian...
batek eztaki samintasunak
nola izan litezkian.

7/ Etxetik sendo biar lutekenak
galdurikan osasuna,
beren buruaz ernegatuta
badaude zenbait persona;
penagarri da familietan
paltatzen dan ontasuna:
umiak aita, amak semia,
andriak berriz gizona...
egun lasaiak eskojitzeko
a ze egokitasuna!

8/ Pikaro batek nai duben arte
beste askoren biziya,
gauzak itxura duben bezela
ezta gezurra guziya;
asesinuben deskalabrua
orrek eragin-aziya,
ondorengiak galtzen dabillen
milla diabruz josiya,
zori gaixtuan kastatuko du
len gaizki irabaziya.

9/ Agindu naiko asko daude ta
diferentiak jeniyo, z,
artikulo zar berrituak
zeñek bere oponiyo, z,
klasi oitara sartuko danak
jantzi bear du juiziyo, z,
ordena txarra nai lukiana
asi dedilla naziyo, z,
Estadu Mayorra ezta kontentu
egiñ dizkaten aziyo, z.

10/ Lau gizon prestu baldiñ badaude
txit intentziyo piñian,
beste berrogei aiek galtzera
saiatzen alegiñian;
brontzia beziñ biyotz gogorrak,
itxura asko soñian,
bezindadia jarri nai ezik
tokatzen saion oñian...
parte gaixtoko pariziyuak
dabiltza odol gañian!

- 11/ Batallarako balientiak
nai lituzteke aukeran,
eritzen diran gizarajuak
urrikaltzeko tankeran;
trena betian daramazkite
bakoitza beren pronteran,
Jainkuak daki birian illa
zenbat izango ote dan,
zeñek berenaz pentsa dezagun
mesere edo kalte dan.
- 12/ Elementua bazetorrela
itxasoz ta legorretik,
jakiñtsu batek itza egiñ zigun
amalau urtez aurretik,
kontu aundiya edukitzeko
bakoitzak bere lurretik;
oraiñgu ori diperente da
lengo gerrate zarretik,
kulpa gabeko makiña batek
pagatuko du larrutik.
- 13/ Austriya'k eta Serbia'k dira
mendebaletik asiyak,
iparrak eta nortiak ere
naiko dituzte graziyak,
Inglesak eta Portugal'kuak,
Japones eta Rusiya'k,
beste geyago Prantzesagatik
alkar lagundu-aziyak,
Alemanaren ejerzituak
estutzen ditu guziyak.

- 14/ Kañoi ta armaz, automobillaz
 edo aideko ditxosoz,
 ori berdinduko dunik ezta
 legorrez eta itxasoz;
 urte askuan nola zegoen
 prantzesangana gorrotoz,
 urrikaltzen eztala diyote
 ume txikiz ta gurasoz,
 txarkeri ori diskubritu da
 deskuidoz edo apropos.
- 15/ Inglesak ere eskuratzen du
 baju daguen arbola,
 isla aundiyak etxeratua,
 berak jakiño du nola;
 arriya tira ta eskua gorde
 segurutikan dagola,
 lagun gaixtuari ixuri-azi (1)
 kristandadeko odola,
 oraindikan e ortan zabillen
 libratu balitz iñola.
- 16/ Beatzi edo amar naziyo
 bakarrarekin pelian,
 azken aldera iru ero lau
 fabore aldamenian,
 nekia pranko egiñdakuak
 besterentzako lanian,
 errendituko lirakienak
 geienak onez-onian;
 faltia franko ezagungo da
 ori bukatzen danian.

(1) Bertso-paperak *gaixtuari* dio; bañan ez al lu-
 ke *gaixuari* esan bear?

- 17/ Nola satorrak kalte aundiya
 izaten duben lur-petik,
 Alemaniya'k alaxen dauzki
 airetik eta ur-petik; (2)
 artzeko billa dabillega ta
 eziñ atera zor-petik,
 iru o lau aldiz aditua naiz
 batzuen miñgaiñ torpetik,
 arrozoyian gelditzen danak
 asmatuko du kolpetik.
- 18/ Beljika'tikan eskatu zuben
 Frantziya'rako pasua,
 derrigorrian pasa biarra,
 arentzat amenazua;
 lenago bera izanagatik
 pena aundiya jasua,
 makiña bati eman diyote
 erremateko mazua;
 oraiñdik ere aurretik dabill,
 eztauka mutur gozua.
- 19/ Galdu gardian dabilzan oiek (*sic*)
 eztabilkite tranpika,
 beste aldetik parrez daudenak
 daukate zerbait trapika; (*sic*)
 Prantziya'n dagon katedrala bat
 eta bestia Beljika, (3)
 iñork apenas kontatzen duben
 oietaz aña kejika...
 Moisesek ere etzuben egiñ
 orrenbesteko markika.

(2) Paperak, *lur-petik* dio; nabarmen dago *ur-*
-petik bear duala.

(3) Beljika: Beljika'n.

20/ Amabostgarren Benediktoren
ordenamentu berriyak,
konbeniyua nai lukiela
ondo gaude igarriyak,
errege danak esku emanaz
probintzi eta erriyak,
lenago baña lege obiak
izan ditezen jarriyak;
au egiñ arte luzatuko du
naigabe izugarriyak.

21/ Turmoi nastuko denboralia
jarririk ipar gozua,
izar ederrak tris-tris egiñez
egon liteke jasua;
bati berenik bear diyogu
satisfaziyo osua,
pake santuan jarri gaitzazu,
Aita amoriyosua,
legor gañian ez genduke nai
odolezko itxasua! (4)

Juan Jose Lezo

(4) Bertso-papera, "Imprenta "La Económica", Arroca, B, bajo (Amara)", Errenteria'ko Joakin Gaborrena Zabala.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Sebastian Salaberria, Aiete, Donostia.

(1914)

KOSTAKO TRUMOIAREN BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

- 1/ Emeretzireun eta amalau
urte ziranian juanta,
ogei gizaldi konpletatzeko
larogei eta sei falta;
Jesus jaio zan ezkerozkuak
asko dira lurrak jota,
bizi geranak sentitzen degu
persekuziyo galanta.

- 2/ Itsasotikan trumoiak eta
mendi gañeko lañuak,
alkar jotzian asarretuta,
egin dizkigun dañuak!
Belarri danak gortutzerano
txori gaxtuen doñuak,
mundu guztiya ikaratzan du
ekusten eztan soñuak.

- 3/ Aize guztiyak borrokatuta
ondoreneko ekaitza,
kazkabarrezko laño-mordua
dirudiyela arkaitza;
botatzen duben amenazua
samiña eta zikoitza,
ankar aurrera eramaten du
deskuidatzen dan bakoitza.
- 4/ Trumoi-adar bat nabarbendu da
bendabaletik nortera,
bizi geranak gogoratzeko
larogei ta sei urtera;
beti gañian nai gendukenak
lenago guaz lur-pera,
semejantza bat tristiagorik
ez dator gure artera.
- 5/ Destierroko balle tristera
zertara geran bialtzen,
juiziyuaren antza degunak
ez al dakigu igartzen?
Seme-alabak nola gabiltza
arpegi illuna jartzen?
onbesterikan egin gabeko
aitaren biziya galtzen?

6/ Iñork ekusten ez duena da
goitik datorren erdera,
lur-ikara ta kanpo guziya
izutzen duen dardara;
mundu ontako artzaiak baño
zintzuagua or bada,
ardi galduak biltzen dijua
bakoitza bere bordara. (1)

7/ Trumoi-soñuak baño lenago
aurretik tximista-argiya,
kontu-artzalle ona degula
au da señale garbiya;
biyak batian abiyatuta
lendabiziko guardiya
zertaraño dan erakustera
bere miserikordiya.

8/ Estranjeroko lur-ikaratan
begira zer dan pasatu:
ondo zeudenak galdu zituen,
lotan zeudenak esnatu;
kastigo ori zertarako dan
guk nola ondo juzgatu?
abillaguak arritzen dira
ezin dutela asmatu.

(1) Bertso-paperak *bakottzak* dio; gure iritzirako, inprentaren utsegiñen bat da; *bakottza* bear duala-koan gaude.

- 9/ Pentsatzen gaude xinistaturik
aietan zenbat kalte den,
gurutziaren siñali ori
gauza biarra ote den;
derrepenteko argitasuna
jakiñik nola maite den
estadu txarrik ekusi gabe
egin dezagun Aitaren.
- 10/ Ixildu gabe dabillen orrek
badauka nundik etena,
protestante ta juduak ere
errespetatzen dutena;
«zeñek beria goguan artu»
askok esan diratena,
ez al genduke fiyatu biar
guziyok jabe batena?
- 11/ Gure odola sosegatzen da
denboraliak ontzera,
uda-partian lasai oituak
neguan gatoz trantzera;
gauza guziyak zure eskutik
dabilkizuna, nun zera?
ipar garbiya bialdu zazu
oreia beltzak kentzera.

12/ Konjuruaren kontra badira
zenbait tentaziyo-klase,
egarri txarra sartu zitzaigun,
oraindik ez gera ase;
goibel triste au klaratu arte
egunak dijuaz luze,
Santa Barbara, ora pro nobis,
Jesus Maria eta Jose. (2)

(2) *Bertsolariya*, bertso-errebista, 51'gn. zenb.,
1932/IX/4.

(1915)

KONZEZIYO GARBIKO
KORU'KO AMA BIRJIÑARI

- 1/ Emeretzireun kunplitu eta
aurten amabostgarrena,
ostialeko urte tristia (1)
azote asko duena;
ekusirikan etsaietatik
arte gaixtuak daudena,
pake santuko Koru garbiya,
erruki zaitez gurena.
- 2/ Koruko Ama beiragarriya
garbiña eta berdiña,
Ama birtutez betetakua,
milagro asko egiña,
pekatariyen Ama maitia,
aingeruen Erregiña,
obe genduke zure graziyan
errendituko bagiña!

(1) 1915'gn. urtea, ostiralez asi zan.

3/ Donostiya'ko Santa Marian,
Urriyaren amarrian,
pelegrinaziyo bat izandu da
egun eder samarrian;
Birjiña Amaren biyotzekuak
asko bagera urrian,
Colon'en kasta indartuko da
Kantabriya'ko lurrian.

4/ Au egitera saia gaitezen,
posible bada iñola,
sinisturikan parroko jaunak
txit ondo darizkiyola,
Euskalerriko kapitalari
onra ematen zaiola;
agur kabilo maitagarriya
ta ayuntamiento leyala!

5/ Erri askotan ezagutzen da
bizitza alrebestua,
lenago galaz apaintzen zana
guzi ya lutoz beztua;
naigabe orren ondorenian
badago nundik poztua,
beti besuak zabalik dago
gure nagusi prestua.

6/ Aita Santuak eskribitzen du
Erroma'tikan benetan,
neke aundiya dabilkiyela
pake santuko lanetan;
alegiñian saia gaitezen
gu ere modu onetan,
ejenplu ori konsentitu da
kongregaziyo danetan.

7/ Jesuita ta apaiz ta fraile
obispo eta kardenal,
eliz-funtziyo prinzipalena
San Franziskoren ordenan;
sermoilariyak esperantza bat
eztute oso txarra eman:
zerbait anparo izango dala
egun gutxiren barrenan.

8/ Ama Birjiña prozesiyuan
kalian ibilli dute,
lenago ori gertatu zala
irurogei eta bat urte,
amona batek esan diranez
engañatzen ezpanaute;
desio dana logratzen bada
badauka naiko birtute.

- 9/ Orrenbestetxo denbora dira
izandu zala kolera,
karranpak edo aire gaixtuak
egiten zuen elera;
leku askotan oraiñ omen da
orduan aña galera,
zenbait anima juaten zaigu
Jaunaren tribunalera!
- 10/ Kofrariyetan gaudenak eta
soziedaderik gabiak,
danak alkarri lagundutzeko
agiñtzen digu jabiak;
grano bat ere eztu galdu nai
zergaitik geran beriak,
bitartekotza egiño digu
Ama Birjiña Mariak.
- 11/ Egun batian Santa Marira,
bai eta Buen Pastorrera,
sekulan baño jende geiagok
asestitu du orrera,
paraisotik balitz bezela
justuaren etorrera,
ondorengiak salba ditzagun
gure lege jatorrera.

12/ San Franzisko zan Italiya'ko
Asis'en jaio eta aziya,
jende gaiztuak konbertituaz
batallak irabaziya;
mundu ontara bota dezala
gomeni zaigun graziya,
onenaz ere ez dadukagu
urte askoko biziya.

13/ Irugarrenko Ordenetako
anai arreba maitiak,
endemas ere gurasuaren
obligaziyoz betiak,
konfesiyo eta obra onetan
zabaldu'itzagun atiak,
eskusarikan egiñ ez dezan
Aitaren borondatiak.

14/ Meritu asko bear zituen
gure lenengo dotriñak,
despreziyorik izan ez balu
euskerak eta latiñak;
Erregiña bat bakarra dute
amaika milla birjiñak,
aren fabore jarriko gaitu
lege ederrak jakiñak.

- 15/ Alde egitia posible balitz
bire gaixtoko lanari,
begiratzia komeni zaigu
betiko zori onari,
errespetua guardatuaz
bakoitzak bere famari,
gazte guziyak eska zaizute
Konzenziyoko Amari.
- 16/ Bildurgarrizko lotsa kenduta
bizi bagiña pakian,
Jainkuak daki zenbateraño
estimatuko nukian;
onez onian nai eztuena
umilduko da torpian,
seme gaixuak ibilli gabe
anka-pian ta lur-pian.
- 17/ Kulparik gabe galdu diranak
aiñbeste seme amaren,
aien animak galdezka daude
akordatuta al gauden;
bizi dan arte lagundu faltan
nork daki nora juango den?
nere partetik etzuaztela
pariziyuen ondoren!

18/ Gure Koruko ispillu eder
Ama sortzetik garbiyak
egun on batez poztuko ditu
desgusto eta larriyak;
orretarako dira bertsuak
ero izketa neurriyak,
Euskalerrriyan erakusteko
Juan Jose Lezok jarriyak. (2)

(2) Bertso-papera, "Imprenta "La Económica", Arroca, B, bajo. (Amara)", Joakin Ganborena Zabala, Errenteria.

"Bertsolariya" bertso-errebista, 12'gn. zenb. 1931/XII/6. Aldaketak: 1/1: Emeretzi kunplitu eta; 1/6: arte guztiak dauçena; 2/2: Garbiya eta Birjiña; 5/4: dana lutoz beztua; 6/3: dabilkidala; 9/7: zenbat; 10/1: Kofrariyaren gaudenak eta; 10/5: ezta galdu nai; 13/6: zabaldu ditzagun atiak; 14/8: ederra.

(1916)

BERTSO BERRIYAK
EUROPA'KO GERRARI JARRIYAK

1/ Iya emeretzieun
da amasei urte
eztira aparte
Jesus jayo zanetik
onera bitarte;
bertsuak ipintzera
obligatu naute,
alegiña egingo det
kapaz naizen arte,
egiyak publikatzen
uzten badirate.

2/ Soberbiyatik datoz
ixtillu gorriyak,
goguangarriyak,
mendekuaren ona
galtzen du larriyak;
estadu txarretara
gaude etorriyak,
au etzuban merezi
lengo jatorriyak...
negar egin lezake
gugatik arriyak.

3/ Bildurgarrizko lotsa
degu errenkura,
gerra edo gura,
ortik naigabe asko
dator ingurura;
ezpagera tratatzen
biar dan modura,
pentsamentu gaiztua
letorke burura...
nun da antziñetako
pake eder ura?

4/ Gure bizimodua

beti pentsaketan,
askotan kejetan,
batzuak fiñeziyan,
bestiak tranpetan;
zazpi azal badira
zenbaiten kopetan,
nekazalia jartzen
betiko neketan...
diabruak eztaude
beñere paketan!

5/ Projimuaren onik

ezin eramana,
ikusten derana,
kalterik aundiyena
bajubarengana;
nola mantentzen geran
nago antzemana:
maliziya gabiak
egin biar lana;
sesiyo billa dabill
alper bizi dana.

6/ Bi gizonen meriyoz
datorren auziya
ain da itxusiya,
kulpa gabe askori
kentzeko biziya;
enredatu dalako
Europa guziya,
naziyo geienetan
dago desgraziya,
jende biarrarentzat
indar eskasiya.

7/ Negarrik aundiyena
esango det noizik:
bi urtez onoztik,
oien tatxak berritzen
asi ezkeroztik,
berrogeitik aurrera
okertu dan kastik,
ezin zuzendu dala
adituak dauzkit...
zangurrua bezela
gabilitza geroztik!

8/ Maisu gaiztuak daude
lege zarrak austen,
bazterrera uzten,
diszipulo askori
gaizki erakusten;
asi gendezkiana
talentuban jazten,
birerik zuzenena
zaizu galerazen...
begira, agintariyak,
zertara zuazten!

9/ Munduaren bost parte
eztira igualak,
batzuak formalak,
nundik ateratzia
nai degu jornalak?
erretira ditezen
kañoi eta balak,
uniyuaren billa
gabiltza neutralak,
barkatuko balira
pekatu mortalak.

10/ Inozente askori
ainbeste paliza,
eman diye aisa,
erre dituzte zenbait
etxe ta eliza;
ajolarik etzaion
jende aprenditza,
errespeto obero
nai genduke iza,
matantzan ari gabe
salbajian gisa.

11/ Zenbait inbirioso
bere zitalkeriz,
dijua txarkeriz,
pagatutako lurra
kendutzera berriz,
kondiziyo garbiyak
bete gabe neurriz,
alkar ondatzeraño
amoriyo urriz...
iya nazkatu gera
kontu lotsagarritz!

12/ Aurak ogi eskian
amaika zokotan
negarrezko kantan,
bere aitonaren da
amonaren kontran;
ama semerik gabe
orrelako plantan,
emazte trixte asko
senarraren faltan,
enbaliyua franko
bizi diranetan.

13/ Erromako artzaia
oso dago trixte,
laguntzalle eske,
ardi asko paltatu
zaio zar da gazte,
kristandade guziya
osatzeko naste,
premi aundiyan dago,
nik ala det uste...
biyotz gogorrekuak,
bigundu zaitezte!

14/ Griñarik eztuena
gaiztorako kasik,
baleoke pozik,
erantzukeri txarrak
eman gabe lotsik;
pobriari eztiyot
desiatzen gaitzik,
suerte on batian
bizitzia baizik...
ezin duten gaisuak
errukitzen zaizkit!

15/ Konsideratu paltan
dabilienak borruka
al dana zurrupa,
ederki domatzeko
premiya badauka;
animarik ez juan
alakuan truka,
arrazoirik gabia
bartzarrera bulka...
orduan jakingo da
zeñek duban kulpa!

16/ Eskuperatuko da
zenbait arrogantzi,
artu pazientzi,
merezi duban bati
emanaz goantzi;
ori egingo balitz
biyar edo etzi,
irabazi liteke
naiko induljentzi...
ez ondorenguantzat
gorrotorik utzi! (1)

Juan Jose Lezok jarriyak

(1) Bertso-papera, "San Sebastián.—Imp. de C. Salón", Errenteria'ko Erdiko-etxe'ko Jose Antonio Berrendo'gandik jaso.

(1918)

GARIZUMAKO BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Milla bederatzireun ta emezortziya
izendatzen dan urtian,
Martxuko illaren amarretikan
ogeiraño bitartian,
eliz-funtziyo ederrak ziran
Donostia'ko partian,
goguan gorde litezkienak
katolikuen artian.

2/ Agur Kabilo, Ayuntamiento
eta Diputaziyua,
Zeruko Aitak neurturik dauka
beon okupaziyua;
sermoi ederrak egin onduan (1)
zan manifestaziyua...
ejenplo onak oraindik ere
badu eztimaziyua!

(1) Bertso-paperak *orduan* dio; bañan guk uste,
onduan bear du.

- 3/ Eztakit zenbat relijiyoso
arkitzen ziran juntuan,
urte onetan baliatuak
gera mixiyo santuan;
kristau fielak, sano bagaude
geon entendimentuan,
pikardirako biderik gabe
bizi gaitezen kontuan.
- 4/ San Bizenten ta San Inaziyon
Antigua'n ta Buen Pastor'en,
Santa Mariko parrokiyakin,
juntatu ziran alkarren;
probetxurikan izango dala
batzuek ez uste arren,
iñork ez daki animarentzat
zenbat bentaja datorren.
- 5/ Bost parroko mixiyo oiek,
zein bata eta zein beste,
sentimenturik duen biotza
animatzeko ainbeste;
nola euskeraz ala erderaz
asko biurtu dituzte,
ori guretzat doai eder bat
izandu dala nik uste

6/ Martxuak amar zituenian
igandian ziran asi,
goiz-partetikan esplikaziyo
ederrak adierazi;
arrats-aldian prozesiyua,
musika, kanta ta guzi,
Santa Mari ta Buen Pastorrera,
ederki degu ekusi.

7/ Fede santuko negoziyoan
arkitzen giñan oztuak,
begiratzeko premiya zeukan
oraingo jende nastuak;
gurasuaren aldetik dauden
obligaziyo estuak,
zuzendutzeko agintzen dute
predikatzalle prestuak.

8/ Aita batzuek izan ditugu
Jesusen Konpañikuak,
bestiak berriz kaputxinuak
San Frantziskorenekuak;
ministru oiek gure fabore
bialdu ditu Jaungoikuak,
eman dituzten abertentziyak
ez dira nolanaikuak.

9/ Pekatariya, auspeztu zaitez
konfesorien oñetan,
zentzurik edo juiziyorikan
baldin badezu muñetan;
Jesus maitia eduki gabe
zauriyetako miñetan,
blasfemiyaren oitura kentzen
saiatu alegiñetan.

10/ Infernurako biria dator (2)
blasfemiyaren gaitzetik,
Jaungoikuaren izen onari
burla egiten oitzetik;
arrotasunak ez gaitu gero
libratzen eriyotzatik,
itxaso aundi bat konparatzen da
penazko negar utsetik.

11/ Diabruaren egitekua
gurutziaren igesi,
alaxen ere enemiguak
ekusten dira nagusi;
gorrotatuak bear genduke
zenbait izketa itxusi,
bigarren txandan lengo bost lllagak
berritu gabe Jesusi.

(2) Bertso-paperean: *beria*.

- 12/ Pekatuaren mantxa duenik
ezta zerura igoko,
sinistaturik ekusten dira
zenbait persona gogoko;
oraziyuak argatik daude
jarriyak eguneroko,
oiek ederki errezatuta
baliatzen da geroko.
- 13/ Bederatziurren orren despeiran
illaren emeretziyan,
San Jose eguna zelebratua
degu nere iritziyan;
lenago geunden gure Jabiak
iya eskutik utziyan,
bañon fabore biurtu zaigu
oso denbora gutxiyan.
- 14/ Konfesiyoan izandu da (*sic*)
erriko parrokiyetan,
eta komuniyo jenerala zan
zazpiyetan ta seietan;
astian ezin lezakienak
asistitu du jaietan;
sekulan baño jende geiago
ezagutu det oietan.

15/ Prozesiyorik prinzipalena
San Jose arratsaldian,
ogei bat milla kristandareko
iritxiko zan aldian;
zeruko Ama maitagarriya
ibillia da kalia,
orren birtutez jarri gaitezen
pake on baten mendian.

16/ Bitoriya'ko Obispo Jauna
alako gizon firmia,
eta bestia Aita Irastorza,
Donostiya'ko semia;
bi Obispuak bendiziyua
ondo bota ta jua dia,
gure kapital eder onetan
akordatzen da jendia.

17/ Apenas asko gelditu diran
kunplitu gabe Pazkuaz,
batzuek izan litezke baño
despreziatzen ez guaz;
kontzientziya esamiñatu
bakoitzak bere asmuaz,
dudan diranak oraindik ere
ondu litezke mentuaz.

18/ Misionistak esan dutena
kanpora dijuazela,
oroipengarri gustagarriyak
ni akordatzen naizela;
nere partetik desiatzen det
danak junta gaitzela,
zeruan alkar ezagutzera
orain munduan bezela. (1)

(1) Bertso-papera, "Imp. J. Díaz.—Irún", Inozen-
zio Urkia'gandik jaso, Portuene, Alzibar, Oiartzun.

(1920)

CRUZ ROJA'KO BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

Itzaurrean esan danez, urdalleko miñakin asi zan Lexo. Medikuak rayosekin begiratu ta *úlceras* zuala ta, ezer okerragorik gertatu baño len, operatu bear zala esan zion.

Cruz Roja'n operatu zuten, ta bertan ogei bat egun pasa zuan.

Ango gau batez, oiean esna zegoalarik, illargiaren argitan ikusi omen zuan xagutxo bat *mesa de noche*'ra ixil-ixilik igo, antxen zegoan baso-esnari tragoxka batzuk egin, jetxi ta bere txuloan izkutatzen. Askotan kontatzen omen zuan ori.

Oso ondo jarri zan, ta etzuan geiago urdalleko miñik izan. Operatu ondoren onela esaten omen zuan:

—Orain arriak ere jango nituzke!

Ta operazio onen berri ematearren, bertso auek jarri zituan:

- 1/ Indarrik eztubena
gorputzetik debill,
zutik ikasi arte
zialdoka nabill;
deskuidatzen danian
zenbait gizon abill,
ni oraintxen bezela,
geratzen da umill...
kontentu naiz lenago
enaizenian ill!

- 2/ Milla beatzireun da ogeian
Illbeltzian zazpi
egun ziran artian
ibilli naiz gaizki:
estamauban traba bat
neukana itxuski,
medikuak kendu dit
ez bat eta ez bi...
gizon orretzek badu
talenturik aski!

- 3/ *Cruz Roja* deditzaion
ospital txikiyan,
operaziyo asko
egin dan tokiyan,
orduako suertia
enuen tranpiyan,
laguntzalle guziyak
alkarren propiyan,
ondo portatu zaizkit
modu egokiyan.

- 4/ Iru Errege goizian
konfesatzen nintzan
malizi asko gabe
Antigo'ko elizan,
urrengo egunerako
prestatzeko gisan,
nere operaziyua
nola gomini zan...
obra onetik gaitzik
ez liteke izan.
- 5/ Antigua'n daukagu
pobrien dotia:
etxe bat, bendiziyo
aundiyak botia;
onera sartu nintzan
naigabez betia,
okerraguak ere
gertatzen baitia...
obeto sendatuta
uste det juatia.
- 6/ Garbi ezagutzen det
gobernu guziya,
aitortu biar diyot
onra mereziya:
esku ariñekuak,
badute graziya,
istimatzekua da
oien nobleziya...
amaikari luzatu
diyote biziya!

7/ Txinistatuko balitz
batzuben burutan,
laguntzallen premiya
bada ingurutan;
negonek faltatu det
zerbait sentidutan,
ori pentsatzen nabill
lautatik irutan...
kristau onak eztira
pagatzen dirutan!

8/ Mundu triste onetan
sortzen diran gauzak,
akordamenturako
dira aproposak;
zerbaitek baliyo du,
ala dira trazak,
pena oiek aztuta
bizitzeko pozak;
anparatu gaituzte
lau relijiyosak.

9/ Lagunduko digula
gugatik ill zanak,
esperantza biagu
miñez gabiltzanak;
emakumiak eta
igual gizonak,
alkarri ezaguera
diyogun personak,
samiñak sufrituta
ditugu gauz onak.

- 10/ Aberatsak bezela
pobriaren griñak,
jaiotza eta eriyotza
dauzkagu berdiñak;
anima salbatuaz
gorputzeko miñak
kentzera egiñ biar
dira alegiñak;
ala disponitzen du
Ama Erregiñak.
- 11/ Zeñek libratzen ditu
gure katiuak?
aberatsetan dauden
karitatibuak,
kuratzalliak eta
fakultatibuak;
obrak irabazteko
daude motibuak,
orlakoren biarra
badu Antigua'k.
- 12/ Señorak nola dauden
lanian eziyak,
errespeto aundiko
alaba biziyak,
gazte samarrak ere
ikasten asiyak,
usubaren antzera
kariñoz josiyak...
biba biyotz oneko
ongille guziyak! (1)

(1) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea; ez nuan apuntatu zefi jaso nion.

(1921)

AZPEITI'KO FUNTZIYAREN
BERTSUAK

1921'garren urtean, San Inazio Iruña'n eritu zuteneko lareun urte osatu ziran. Ori zala-ta, festa aundiak egin ziran Loiola'n ta beste zenbait tokitan. Ordukoxeak dira Lexoren bertso auek:

- 1/ Emeretzireun ta ogei ta batian bertsoak ditut parako,
pelegrinaziyo eder bat nola izan dan Azpeiti'rako;
kristandaria guarda dezagun fedia dan tokirako,
bire zuzena artzen duena Jesusen konpañirako etsaiak ezta jirako.

2/ Milla bosteun da ogei ta bat da
kondairan billatzen dute
San Inaziyo eritu zala
orain dira lareun urte;
Azpeitiya'ko seme leial bat
Gipuzkoa'ren amante,
aren bandera konserbatzia
ezta iñorentzat kalte,
geienak ala diyote.

3/ Gazte denboran gerran zabillen
Naparrua'ko partian
Iruña'tikan eritu eta
ekarri zuten artian;
jaiotetxian gonbertitu zan (1)
Jesusen borondatian
orren zauriya zelebrazten da
lareungarren urtian,
kariño aundi batian.

4/ Amabostgarren Benedito da
Erroma'n Aita Santua
amargarrengo Pio zanaren
santidarian sartua;
Gipuzkoa'ko Diputaziyo
ta emengo Ayuntamentua
onratu nai det beon artian
egin dan fundamentua,
ala det pentsamentua.

(1). Bertso-paperean: *jaiot ta etxian*.

5/ Erroma'n bada beste Aita bat
jesuitan nagusiya,
Arantzazu'ko komenturano
bire oiek ikasiya;
relikia edo señaie ori
berak ekarri-asiya,
Aita Eternuak bialtzen diyo
orretarako graziya,
doaiak irabasiya.

6/ Santua orri zenbat nai diyon
Euskal-erriyak bakarrak,
beste probintzi askoren gisa,
Bizkaiak eta Naparrak;
estranjeriko laguntzalliak
ere baziran azkarrak
fronteraraño sartu diranak,
eztira kristau zakarrak,
frantzes ta erromatarrak.

7/ Maiatza edo Orri-illaren
amairugarren eguna,
relikiari errezibitzen
izandu ziran Iruna;
Kabilduaren buruzaritzza
enpeñatu dan laguna,
Donostiya'ko Aita Irastortza,
Monseñor Obispo Jauna,
aitortu biar deguna.

8/ Erroma'n dagon sepulturatik.
gauz ori erakarriya
Irunan pozik egin diyote
beren ongi etorriya;
gañera asko enpeñatu da
Donostiya'ko erriya
musika eta kantuarekin
prozesiyua jarriya,
biaje gustagarriya.

9/ Zubiz kanpoko parrokiyatik
Legazpi kaletara,
ta gero Plaza Gipuzkoa'ko
jauregi eder ortara;
calle Garibay eta *Andia'n*
dauren jesuitatara,
amalabian eraman zuten
Azpeitiya'ra bertara,
jende onraduetara.

10/ Eun urtian beiñ imitatzeko
nola daukaten asmua,
kardenal jaunak obispuari
eman ziyoten eskua;
amabostian nola baiziran
San Isidro ta Pazkua,
Azkoitiarrak formatu dute
funtziyo eder askua,
fedeko egiyazkua.

- 11/ Meza nagusi igandekoan
Burgos'ko kardenala zan,
astelenian Toledo'koa,
errespetoko lana zan;
amabost milla personatikan
gora Loiola'ko plazan
goizian eta arratsaldian
esan digute nola zan,
jendia gogoz juana zan.
- 12/ Promesa eder bat kunplitu da ta
orrekiñ eztago lotsik,
elizan eta prozesiyuan
arrantzaliak ankutsik;
oiek eztute beti gustora
ibilli diraden antzik,
orlakuari segitutzeko
zeñek eztauka biotzik,
iñ al baleri laguntzik?
- 13/ Kotxiak eta automobillak
asko dira ibilduak,
penitentziya dutenak berriz
biyotzetik umilduak;
lujo aundirik eztu eskatzen
gure Jesus dibinuak,
ezin dunari lagundu eta
emateko animuak;
oik dira peregrinuak.

14/ Astelenian Azpeiti'kuak
imitaziyo iguala,
beti bezela konfesiyo ta
komuniyo jenerala;
portatu dira Burgos'kua ta
Toledo'ko kardenala,
uste det oien bendiziyua
danantzat izango dala,
baliatuko gerala.

15/ Donosti'kuan juntaera zan
andik biyaramunian,
Azpeitiya'ko musika zuten
laguntzen aldamenian;
iru erritako kantori aiek
saiatu dira lanian,
erromatarran buruzariya
orla gustatu danian,
danantzat zori onian.

16/ Pazkuetako jai eder oitaz
asko dira gustatuak,
soziedade ta kongregaziyo
danakiñ ajustatuak;
bete ziraden eliza eta
komentu ta ostatuak,
limosnarentzat ere badira
diru asko gastatuak,
borondatez prestatuak.

17/ Obispuaren bendiziyo ta
orfeako kantoria,
uste det ondo portatu dala
oiekin direktoria;
sermolariyak kulpitotikan
bazuten fakultadia,
asko bezela euskalduntar bat
itz egiten dotoria,
Irun'go Erretoria.

18/ Erroma'tikan Arantzazu'ra
dijuan erromeriyak
kastuak eta egitekuak
eztitu txorakeriyak;
onra eder bat jaso dezala
Azpeitiya'ko erriyak;
Donostiya'tik atera dira
oraingo bertso berriyak,
Juan Jose Lezok jarriyak. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. J. Díaz.—Irún", Lasarte'ko Basoandia'ko Isabel Zuaznabar'gandik jasoa.

Bertso-papera, "Imp. R. Ferrer, Mayor 22.—Irún", Lexoren alabari, Adelina Sarasola'ri, jasoa.

(1921)

BERTSO BERRIYAK

Bertso auek, «*Imp. J. Díaz.—Irún*»-en inprentatu ziran. Bertso-paper ori, Aita Donosti zanaren bertso-bilduman arkitu nuan, eta bai beste zenbait tokitan ere. Bertso-paperak ez du iñon esaten bertsoak zeñenak diran. Bañan Aita Donosti'k itz auek erantsi zizkion paperari lapitzez: *Juan José Sarasola / de Lezo / vive en Donostia*. Aita Donosti'ren testiguantzaz baliatu gera, beraz, bertso-sorta au Lexoren bertso-liburuan jartzeko.

1/ Milla beatzireun kunpliturikan
ogei ta batian aurten,
arraunlariyak probatu dira
zenbat talentu daukaten;
oien bertsuak ateratzeko
nola agindu diraten,
gaizki aundirik itzegitia
eztit goguak ematen.

2/ Agoztoaren ogei ta batian
modu egoki askiyan
zazpi txalupa jokatu dira
estroparan Donostiya'n;
alegiñian saiatu dana
zertako artu gaizkiyan?
oietan aña fama duenik
ezta Gipuzkoa guztiyan.

3/ Bi igandetan jokatu ziran,
au zan lenengo saiua,
diru askoko premiyua zan,
etzuten desafiyua;
ontzi bakoitzak amalau gizon,
tripulaziyo iaiua;
beti urian peliatzen da
itxasorako jaiua.

- 4/ Pasaia Antxo eta Getari,
Zumaia, Ondarrabiyak,
Jose-Maritarra ta Oriyo
ziyoten estugarriyak,
danetan gizon balerosuak,
probatzera etorriyak;
kalte aundirik eztu izandu
Donostiya'ko erriyak.
- 5/ Orain bezela alkar artuko
baluteke bi Pasaia'k,
obe luteke patroiak eta
orduko txalupa-zaiak;
auzo-erriyak, etzaitezela
izan alkarren etsaiak,
amistadetik pasatzen dira
egun batzuek lasaiak.
- 6/ Markik onena Oriyo'k zuen,
Pasaia'kua bigarren,
irugarrena Donosti'kua,
Getari'kua laugarren,
bostgarrengo Zumaia'kua,
diferentziyan alkarren,
bestiak ere portatu dira
aik aña egiñ ez arren.

7/ Bost oiek beren irabaziya
jaso dute lenbiziko,
lau onenaren bigarren prueba
illan ogei ta zortziko;
ta beste biyak deus e eman gabe
etziran noski utziko,
berak obiak gerta litezke
emendik urte gutxiko.

8/ Bitorioso nai duten danak
alkarrentzat kontrariyo,
bildurrik gabe datorrenari
alare inporta diyo;
beren txalupa ganbiatziak
trastornatzen du Oriyo,
pazientziya artu biarko
gauz ori dala meriyo.

9/ Lenbizikuan lenengua ta
bigarrenian azkena,
ustez seguro zegon jokua
galtziak badu bost pena;
itzez ta obraz ezagutzen da
balientiak zoaztena,
alare eziñ esan liteke
oberik iñon eztena.

10/ Kosta guziyan itxas-gizonak
izanagatik fijuak,
erri danetan aman semiak
bai daude anka-bikuak;
Jose-Maritar obek ez daude
nolanaiko mutikuak,
famatuenan marka pasata
aurrera Donosti'kuak.

11/ Orretarako amaiketan zan
batelaren apostua,
gero txalupa preparatzia
iñork etzaukan aztua;
aberatsaren boltsillotikan
eragiten da gastua,
lege zarreko funtziyuetan
norbaitek badu gustua.

12/ Beren palizan nola prestatu
jarriyak zeuden kontuan,
kanpotik berriz beti bezela
iru millako puntuan;
ogei minuto sei segundokiñ
ta gañera lau kintuan,
atze-aurrera indako markak
Pasaia'kuak zituan.

13/ Nola lenago artuak ziran
oiek beren mereziya,
zazpi milla ta bost eun pezeta
zuten oraingo graziya;
bi milla eta berrogei ta amar
duro da kontu guziya,
premiyua oiek eta bandera,
Pasaia'k irabaziya.

14/ Kontxa'tik eta kaie aldetik
ztorren alaitasuna,
bakoitzak bere alderdirako
beti degu naitasuna;
itxasoz eta legorretikan
nola izandu dan sona,
publiko dana juzgatu dute
ogei bat milla persona.

15/ Trabesagatik jende artian
izan da zenbait atake,
disputarikan ez izatia
geienak obe luteke;
famiyaren kalte eztana
disimulatu liteke,
danak esaten asi ezkeru
kontu geiegi niteke.

16/ Biba Antxo ta Ondarrabiya,
nai zaitoztegu gora iyo,
biba Zumaia, zuretzat ere
badaukagu amoriyo,
biba Pasaia ta Getariya,
Donostiya ta Oriyo,
aurtengo fama jaso bezate
tokatzen zayon meriyo. (2)

(2) *Bertso-papera*: "Imp. J. Díaz.—Irún", Isabel Zuaznabar, Basoaundia, Lasarte.

Bertso-papera: "Imp. J. Díaz.—Irún", Juana Tejería, Sonola, Aduna.

Bi paper auek, moldiztegiaren izena toki diferentetan izateaz gañera, aldaketa bakarra dute: 15/8: batek: *kontu gelegi niteke*; eta besteak: *kontu gelegi liteke*.

(1922)

ELKANO'REN BERTSUAK
JUAN JOXE SARASOLA'K JARRIYAK

1922'garren urtean Elkano'k munduari jira eman zioneko lareun urte osatu ziran. Getaria'n eta, festak egin ziran. Lexok bertso auk jarri zituan:

1/ Milla eta beatzireun da
ogeï eta biyan,
Agorraren seyan,
euskaldunaren fiestak
ziran Getariya'n;
Elkano'ren bentajak
oraingo aldiyan
berritu dizkigute
kariño aundiyan,
parte artu dezagun
bere konpañiyan.

2/ Aurten degu laugarren
zentenariyua,
ordenariyua,
lengo utsegitian
erremediyua;
lareun da iru urte
zuen jeniya,
nabegante ona zan,
ibildun yayua,
asko kabilatzeko
mundura jayua.

3/ Juan Sebastian Elkano
Getari'kua zan,
portatu dan trazan
kristandare aundiko
katolikua zan;
gazterik ezkondata
kanpuetara juan zan,
aurrak eta andria
utzi segurantzán,
Jangoikuak laguntzen
diyon esperantzán.

4/ Milla eta bosteun da
emeretzigarrena
zuen jatorrena,
Agorraren ogei ta
zazpiya urrena;
egiteko aundiya
sortu zan orrena:
iru urtian korritu
zuen mundu dena;
au da istoriya bat
arritzen gaudena.

5/ Sanlúcar de Barrameda'n
orduko lagunak
ziran ezagunak,
itxasoz korritzera
ori bezela juanak,
oraziyua letzen
librutik jardunak,
an alkar billatzia
eman du fortunak,
pakiaren aldeko
Santo Kristo dunak.

6/ Beren kapitanakin
bost barko iritxi,
asko edo gutxi,
mariñelak berreun da
ogei ta emeretzi,
nagusijan itzari
diyotenak eutsi,
bizi ziran artian
etziyoten utzi;
prueba ederragua
zeñek erakutsi?

7/ Azaruaren lenbizi
santu guziyena,
askok dakiyena,
iya urte guziko
jayik aundiyena;
bost barku atera ziran
alkarren urrena,
San Inaziyorekin (1)
Elkano aurrena,
Magallanes guziyan
buru zeguena.

(1)) *San Inazio* izenekorik etzan bost ontzi aietan;
San Antonio esan naiko du.

8/ Jan-eranak aituta
eskasiyan lotan,
birajia ortan
nekez iritxi ziran
legorraren kontran;
olatuaren golpiak
bustirikan urtan,
sokaz amarratuta
paluaren puntan,
izarrik ekusten ez
makiña bat gautan.

9/ Jaungoiko zerukuak
dizkigu maiteko
egunen bateko,
destinatuak zeuden
pobre izateko;
arraia beste gauzik
etzuten jateko,
belan ta arraunian
neketan juateko,
denborale txar asko
egiya esateko.

10/ Lagun batzuek galdu
ta bestiak eri,
tristura da ori,
erreguka aingeru
guardiyakuari;
jornal aundiyagatik
etziraden ari:
eguneko iru ardit
seina marabedi;
gutxi eman ziyoten
gizarajuari.

11/ Kanale bat pasata
isla moetara,
leku txarretara,
berrogei ta bat egun
biar ziran ara,
Indiya deitzen zaion
alderdiyetara,
salbajiak dabilzan
tokira bertara;
aiek kristandarian
nai zituzten para.

12/ Magallanes jaun ori,
berez portugesa,
etzan prestueza,
indiyuak il zuten
estu eta presa;
ondorian lagunak
eindako promesa,
ateratzeko beren
erriyetan meza,
pena zuten lenago
akordatu-eza.

13/ Orduan pasa zaie
deskuido polita,
Jaungoikuak naita,
gustura ibiltzia
etzan gomeni-ta;
gero ere biar zan
familiyan aita,
kapitanaren falta
gauza txarra baita;
Elkano gelditu zan
Magallanes il-ta.

14/ Irurogei ta bi gizon
arturik berekin,
Vitoria'rekin,
Molukas artu zuten,
nai duenak jakin;
gero Tideo'tikan
biriari ekin;
len ibilliyagatik
lagun askorekin,
Sevilla'ra sartu zan
amazazpirekin.

15/ Iru urtian pasa
munduaren jira,
gero erretira,
elizara juañ ziran
andik egun bira,
matrikula guziyak
dauden kofrarira;
orain begiratzen du,
itxurak badira,
beste mundutik ere
laguntzen ari da.

16/ Berriz bigarren txandan
juatekua izan,
ala komeni zan;
nunbait apostoluak
gustora zebiltzan;
ogei ta amalau urte
munduko bizitzan,
lagunari erakutsi
nai ziyen luzitzan,
birian dijuala
gaizkitu ta il zan.

17/ Azaruaren beatziya
señaladamente,
orain laureun urte,
Donostiya'n oraindik
goguan digute;
erretrato eder bat
dala mediante,
len Diputaziyuak
nola duen maite,
Gernika'ko fiestara
eramana dute.

18/ Non allegatua dan
ango muestra danak,
txarrak eta onak,
ekarri omen zituen
Sebastian jaunak,
jaio zan erriyari
emateko famak;
beste orlako seme bat
euskaldunan amak
egin lezake baño
izango'ira lanak!

19/ Aurtengo baforian
ongi etorriya
eztago urriya,
naziyo guziyentzat
oroipengarriya;
estatua bat egin
nai dute berriya,
erregek para zuen
lenbiziko arriya,
onradu juzgatzen da
Getari'ko erriya. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. de J. Díaz.—Irún", ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Bertsolariya bertso-errebista, 34'gn. zenb. 1932/
III/8.

(1922)

BERTSO BERRIYAK

Bertso-paperetan ez da ageri jarri-aldi au zeñena dan; ez dute ori esaten. Bañan Aita Donosti zanak jasoan zuan bertso auen argitaraldi bat, Irun'en inprentatua, ta lapitzaz onako itz auek erantsi zizkion: *compuestos por J. José Sarasola*. Aita Donostiren testiguantzaz fiaturik, liburu ontan jarri ditugu bertso auek.

1/ Emeretzireun urte
eta ogei ta bi,
geroztik ununtz nola gabiltzan
zeñek daki garbi?
otsorik gosiena
jartzen bada guardi,
kontatutako ardi gaxuak
ez dabilta ongi.

2/ Lengo jakintzu zarran
biziera zer zan
kondairatikan irakurriyak
dizkidate esan:
beren nekiarekin
sartu interesan,
galoi-dun danak ori egin balu
guretzat obe zan.

3/ Jauna oiek ez zabilizan
projimo kaltian,
beren biziyak arriskatuaz
biyotz on batian;
lenbizi peliatu
gogor ezpatian,
borondatezko tropak eskatu
indarra juatian.

4/ Fediaren aldeko
boluntariyuak
gazterik egiñ azañak eta
graduan iyuak;
ala erakusten du
lengo uniyuak,
ondorenguak ikasitzeko
aien jeniyuak.

5/ Kontu txarrak pasata
bolara batian,
moro bat zegon buruzariya
Madriko kortian;
asko gaiendu ziran
zazpireun urtian,
euskaldunaren odolarekin
kutsatu artian.

6/ Odolaren naspillak
alkarren etsaitu,
geroztik beti kutsu gaxtuak
persegitzen gaitu;
oraingo naigabia au
al baleri aitu,
Zeruko Aita, makiña batek
erregutzen zaitu.

7/ Isabela Katolika,
ama erregiña,
mundu ontatik juan zan ezkerro
bada zer egiña;
aren amoriyua
guretzako fiña,
bere esanak egiteraño
bajatu bagiña.

8/ Moruak bialduak
ziran Granada'tik,
Colón'en alde kristandaria
biurtziagatik,
beren lurretaraño
besterenetatik,
dotriña txarra gaiendu gabe
salbajiatatik.

9/ Garai artako zenbait
markes eta duke
bizi balira, garbitasuna
aterako nuke;
oien agintia zan
fiñezaren truke,
orain alako laguntza baten
premiya genduke.

10/ Artian Españaia
gelditu zan iaio,
Tubalen kasta indarrekuak
ziralako jaio;
Melilla'ren zalia
gero egin zaio,
obe genduen lengo islari
kontu balitzaio.

11/ Bere tokamentuak
salduta ondorenen,
lotsa gabiak eztu galdetzen
noraño juango den;
ardi galduen gisa
gu gabiltza emen,
esan diteke ez dakigula
zeñen mende gauden.

12/ Guraso seme-dunak
erregu Jesusi
zeruan bezela izan dedilla
lurreko nagusi,
pobriaren kaltiak
ditzala ekusi,
nekazalia gelditu gabe
danakin itsusi.

13/ Langillia galtzen du
alperraren setak,
diszipuluak eskobatzeko
obek jostaketak;
inuxente gaudenak
ez gera profetak,
izerdi otza ateratzen du
aularen kopetak.

14/ Afrika'ko naspilla
ezin zaigu aztu,
zergatik diran kulpa gabeko
famiyarak nastu;
erdi negarrez daude
zenbait gizon prestu,
urrikalduta bukatuko dan
itxurarik eztu.

15/ Amaika aldiz aditzen
dedan notiziya,
kristau gaxtuak nai duen arte
onaren biziya;
txarkeriyak galtzen du
naitasun guziya,
nola gabiltzan esatia're
lotsatu naiz iya.

16/ Munduko gauzangatik
oinbeste eriyotza,
brontzia baño gogorrago da
zenbaiten biyotza;
bañon animarentzat
etorko da lotsa,
egunen batez egingo zaigu
justizi zorrotza. (1)

(1) Bertso-papera, "Imp. de J. Díaz.—Irún", Azkoitia'ko Patxi Lete *Estra'gandik* jaso.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Gernika'ko Sebero Altube jauna zanarengandik jaso.

(1923)

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Bertso berriyak jartzera nua
Lourdes'ko Benardatxori,
milla beatzireun da ogei ta iruan
disponitu det gauza ori;
mixeriyazko negar tristia
munduan zaizu ixuri,
orain zerutik guri laguntzen
saiatu zaitez, gaxo ori!

2/ Milla zortzireun berrogei eta
laugarreneko urtian,
aingeru ori jaio omen zan
errota txiki batian;
nola San Fermin eguna baizan
fede onekuan artian,
obra ederrak geroztik dira
Lourdes'ko erri maitian.

3/ Ori jaio eta bataiatua
Uzta-illaren zazpiyan,
triste zebillen amalau urte
zituen arte guztiyan;
Ama Birjiña agertu zitzaion
fortuna eder askiyan,
Masabul'ko leiza-zuluan (*sic*)
arresi baten azpiyan.

4/ Benardatxo zan jaiotzatikan
eri xamarra izana,
ama gaxuak bularrik ez ta
kanpuan azitzen zana;
guraso onak zituen eta
aditzen zuen esana,
zenbait bezela itxutu gabe
txorakerizko gauzana.

5/ Guraso oiek zaukatenian
beraganako nobleza,
azitzen zegon baserritikan
itzuliya zan Lourdes'a;
aiek negarrez gelditu ziran
ekusirikan pobreza,
maitagarriya ezagututa
etxetik utzi nai-eza.

6/ Errosaiuak beti eskuan
beata onaren gisan,
belaunikatzen dan tokiyan
oraziyuan ari zan;
lendabiziko komuniyua
egin gabia elizan,
dotriña gutxi zaukala esanez
ikastera etorri zan.

7/ Benardatxo zan lendabiziko
sendatutako eriya,
geroztik askok errezatzen du
gustoko Abe Mariya;
iturriya artan garbiturikan
gorputza ta arpegiya,
ura eran eta belarra jana,
entendimentuz argiya.

8/ Txikitan artzai zebillen arte
errezatzalle txintxua,
gero eskola ikasitzeko
umilla eta goxua;
Espiritutik sortu zitzaion
jakinduriko uxua,
zori oneko ardizariya
gure Benarda gaxua.

9/ Onek osasun txarra zuela
eta bigarren nexkari,
txotxak biltzera juateko amak
bein esan ziyon aizpari;
eskañita're limosnarikan
etziyen artzen besteri,
oien arteko bizi-moduan
badira zenbait ixtori.

10/ Aita eta ama, maxter zeudenak
errota txiki merkian,
bi alabatxo aien laguntza
bestiak azi artian;
nekiak eta atsekabiak
sufriturikan pakian,
orra famili jaungoikozkua
nola bizi litekian.

11/ Aizpa Maria ta auzoko Jauna
juan ziran egur biltzera,
irugarrena Benarda zala,
erriyuaren ertzera;
lagunak ezer ekusten ez ta (1)
au begira arkaitzera,
«Andre eder bat ara nun dagon!»
eman zuen aditzera.

(1) Bertso-paperean: *eta*.

- 12/ Nexka amairu urteko bati
orren amoriyo aundiz
Otsaillaren amaikian bein
ta agertu zitzaion berriz
Sortze Garbiko Ama Birjiña
emen zortzi egun argiz,
Karmenguaren arratsaldian
azken azkeneko aldiz.
- 13/ Len Arantzazu'n agertu zana
bera Lourdes'en, Frantziya'n,
milla zortzireun kunplitu eta
berrogei ta emezortziyan,
artzai gaxuan begiyetara
Kontzeziyoko jantziyan,
milagru ori gogongarriya
euskaldunan probintziyan.
- 14/ Ama Birjiña Martxoko egunez
itzak Benardatxorenak,
iru alditan aitortu zizkan
—poza zeukan barrenak—
amaseigarren agertu-aldiko
kontuak Ama orrenak;
lau urtez lendik bazakizkiyen
Pio beatzigarrenak.

- 15/ Benardatxoren komuniyua
Garagarraren iruan,
Korpus-eguna señalagarri,
izan liteke goguan;
gaztiaguak asko ziran ta
au errespeto-moduan,
soñian eta entendimentuz
ondo jantziya zeguan.
- 16/ Medalla eta erregalo on
asko orrentzat omen zan,
grano bat ere etziyon artu,
arriturik zeuden zer zan;
esaten zuten dotriñagatik
naigabetua ote zan,
orain bezela zazpi urteko
aurrik komulgatzen etzan.
- 17/ Ama Luisa Carteron zuen,
Franzisko Soubiron aita;
erriko jaun bat alabarekin
gaizki portatua baita,
bere etxian preso eduki
egiyaz itz eraginta,
azken aldera desafiyoka
etzebillela ongi ta.

18/ Testimoniyo^z galdu nayian
komulgatuta gero're,
gobiernuko beste birekin
Jacomet persegidore;
alkatia eta bikariyua
egin ziranak fabore,
Jaungoikoaren tribunalian
estimatuak dirare.

19/ Benardatxoren pasadizuak
bukatzen erraz ez^{tia},
Karidadeko monja sartu zan,
artian zala gaz^{tia};
andikan urte asko ba^{ño} len
munduko lanak uz^{tia},
Ama Birjiñak bere glorira
eramana da tristia. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. de J. Díaz.—Irún", Aita Donosti zanaren bertso-bilduman.

(1923)

BERTSO GOGUANGARRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

- 1/ Ogeigarrengo giza-aldiyan
ogei ta irugarrena,
urte onetan presta dezagun
kontzientzizko barrena;
orretarako nere burua
sartu biar det aurrena;
ekusirikan konbertitzeko
premi aundiyan gaudena,
saiatu al dan lenena.

- 2/ Obispo jaun bat berriya degu
Naparrua'ko Leiza'tik,
gauza askotan informatu naiz
orren kontuak letzetik;
ziñatu eta errezatuaz
ateratzian etxetik,
Zeruko Aitak libra gaitzala
padiziyuen trantzetik,
eskatzen det biyotzetik.

3/ Naparrua'ko Leiza'n jαιο zan
Aita Bizente Ugarte,
Aita Santuen bendiziyotik
badauka zerbait suerte;
jesuitatzat serbitu zuen
Txina'n ibilli zan arte,
gero batxiller titulotikan
gorago jaso digute,
Obispo nonbratu dute.

4/ Oiek lau anaiak mixiolariyak
Jesusen Lagundikuak,
Txina'n ibilli ziran ezkeru
bat eramana Jainkuak; (1)
eta bi arreba monja sartuak
jakinduri aundikuak,
beste anai bat abogadua
lan asko egindakuak;
ez dira nolanaikuak.

5/ Oiek, len bezela kaputxinuak,
saiatzen dira osteru,
Jaungoikuaren serbitzurako
animak irabaztera,
monja miserikordiyazkua
karidadiak uztera,
larru gorriyan dabiltzan aurrak
mantendu eta jaztera,
eskolan erakustera.

(1) Bertso-paperean: *Jaungoikuak*.

- 6/ Ministro askok berritutako
Ebanjeliyoko itza,
bataiotikan garbitzen dala
animan daguen gaitza;
gaiztuak onak persegitzeko
moduan beti dabilta,
kulparik gabe galdu biarra
inuxentien bizitza,
ez al da negargarritza?
- 7/ Zenbat naitasun agertzen zaion
famili onradu bati,
ez dakit ori buruan ondo
sartuko zaion zenbaiti;
mundu ontako gurutze danak
al balitezke ameti,
pazientziyan eramatia
ez det gauz oberik senti,
sufritzen balira beti.
- 8/ Aitak eta amak artu dezagun
guraso onaren antza,
seme-alabak zintzo azita
famiyaren bonantza;
biyurriyari kentzen bazaio
gaixtakeriko zalantza,
konfesiyo eta penitentzitik
zeruetako librantza,
alaxen det esperantza.

9/ Donostiya eta leku askotik
Txina'ra mixiolariyak,
emen ederki predikatuta
juan dira sermoilariyak,
sendatu eta zabaltziâtik
asko anima eriyak,
beren kontura nai dituela
guziyen juzkalariyak,
badaki bertsolariyak.

10/ Rist-rist egiten duen bezela
egun-sentiko izarrak,
guri olako amoriyuak
digute jakintsu zarrak;
oien esanak egiñ ezker
ez giñake oso txarrak,
munduan asko korritutako
predikatzalle azkarrak,
geienak euskalduntarrak.

11/ Seme abillak ateratzia
Euskalerriko lurretan,
gure biyotzak poza biar du,
ez da dudarik orretan;
Txina'n, Indiya'n eta Italiya'n
pake-gizonak gerretan,
estimatuak izan diranak
munduaren bazterretan;
zeñena daude zorretan?

12/ Lengo denboran jentillarekin
ez dira lasai egondu,
fedegabeko salbaje aiek
bestela zeñek bigundu?
oraindik ere nai lituzteke
gaiztuak diranak ondu,
obligaziyo degun bezela
guk emendikan lagundu,
ojala egingo bagendu!

13/ Oraingo gure relijiyua
ez dago oso juntua,
utzi dezagun lujuriya eta
aberatsaren puntua,
jaietan meza entzun eta gero
errosariyo santua,
Ama Eliza Santak orretarako
jarri du barkamentua,
atera zagun kontua.

14/ Sasoi bateko deboziyua
modu onian asi zan,
igande-jaiak santifikatzen
nork daki nola bizi zan?
bakoitzak bere estaduetan
gabiltzan kristauban gisan,
errespetorik ezta galduko
konbentuan eta elizan,
ez kuidadorikan izan.

15/ Urte onetan limosnatxo bat
elizan egin deguna,
katolikuak biajatzeko
eroso datorkiguna;
gure biyotza alkarrentzako
izan dezagun biguna,
projimuari ondo egiña
baliatuko zaiguna,
etorriko da eguna. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. de J. Díaz.—Irún",
Errenteria'ko Monika Galarraga, Juan Zabaleta ber-
tsolariaren alarguna.

(1923)

ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑAREN
GERTAERAK

JUAN JOSE SARASOLA'REN PARTETIK

- 1/ Bertsuak paratzia
jarri zait buruan,
al dedan moduan,
milla eta beatzireun da
ogei ta iruan,
nola Ama Berjin bat
arantzan daguan,
Aizgorri'ko mendiyan,
leku esklabuan;
zerbait saiatuko naiz
aren anparuan.

2/ Euri-premi aundi bat
zalako azpaldi,
kanpua kixkali,
oraindikan etziran
amabost gizaldi;
orduko gorrotua
ezin zan itzali,
fiñaren izerdiya
odolez estali;
azkenian etsaiak
joan ziran itzuli.

3/ Milla eta lareun da
irurogei ta zazpi-
garrena itsuski,
ondorenian bazan
naigaberik aski:
bi urtian eberik
egin gabe noski,
odolez ta negarrez
inguruak busti;
iru probintzi zauden
izugarri gaizki.

4/ Ganboatarra edo
Oñaztarra zein zan
erabaki ezin zan,
dollorkeri aundiya
gizonan bizitzan;
euskalduna geiena
mentzuten ari zan,
gosetia zegon da
arrote zebiltzan;
beste miñikan gabe
jende asko il zan.

5/ Aberats eta pobre
nastutzen asirik,
zerbait merezirik,
larri zabiltsan alkar
ezin ekusirik;
bear bezela zeñek
egin justizirik?
beste alderditikan
ez bazan grazirik,
grano bat geldituko
etziran bizirik.

6/ Gure Ama Birjiña
andik bi urtera
zitzaien atera
Aizgorri'ko mendiko
elorri tartera,
Errodrigo artzaiaren
begi-bitartera,
osasuna jarrita
pakiak egitera;
gauza biarragorik
munduan ote da?

7/ Araba eta Bizkaia
eta Gipuzkua,
jende tajuzkua,
nozbait eman ziyoten
alkarri eskua;
zerutikan jatxi zan
Erregin justua,
adixkide jartzia
zan aren gustua;
ordutik dago lege
kristandadezkua.

8/ Argi-edertasun au
agertu zanian,
Jaunan izenian,
Agorraren beatziyan
bire zuzenian;
txintxarri-soñu fin bat
al dan maizenian,
Semetxua besuan,
ondo esanian,
artzaiak adoratu du
leialtasunian.

9/ Bere gisa jo ziyon
txintxarriyan otsak,
artzaitxua pozak
belauniko jarri zan
gerturikan auntzak;
aurtxua maitatuaz
Amaren biyotzak
etzituen zulatzen
elorri-arantzak;
zerbait erakusten du
oien semejantzak.

10/ Errodrigo Baltzateri'kok
itz oiek esanik,
egiya zuzenik,
askok etzedizkiyon
milagrua zanik;
ezin konbertitu zan
orduko personik;
guretzat ere oixen
letorke azkenik,
ez bazaigu damutzen
gaizki guazenik.

11/ Auntzak etxeratuta
esaten zan ari
artzaitxua ori
lenbizi aitari ta
erriko jaunari
legorpia jartzeko
lenbait-len Amari,
nekazale gaxua
poztu al baleri;
nozpait buruan sartu
ziyon jendiari.

12/ Aita eramán zueñ
mendira lenbizi,
nai zuten ekusi,
ta gero erriyari
zer zan adierazi;
Justiziya igo zan
Kabildo ta guzi,
olezko estalpián
imajiña utzi;
aiek etxera orduko
etzan euri gutxi!

13/ Bi aldiz eramán zuten
Oñati'ko errira,
ta elizán jarri da,
frailiak egindako
aldare berrira;
bañon Ama Birjiña
gabez Aitzgorri'ra,
eskojituta zeukan
toki pozkarrira;
bertán utzi biarra
laister etorri da.

14/ Irugarren aldiyan
ezin zuten kendu,
ermita bat ondu,
gero eliza eta
komentu zuzendu;
desgrazi batez biyak
erre ta kiskaldu,
bañon Ama Birjiña
garbiya azaldu,
soña ta koloria
etzitzaizkan galdu.

15/ Komentua ta eliza
egin ziran berriyak,
or daude jarriyak,
ez du bentaja gutxi
Oñati'ko erriyak;
ta Arantzazu'rako
kristaban larriyak,
ondo ofrezituak
dira erregaliyak,
testamentuko gauza
estimagarriyak.

16/ Karidade geiena
jende onetatik,
asko aldetatik,
artzai eta nekazale
mariñelatatik;
Okendo'k alegiña
egin du kanpotik,
ta Elkano'k urria
urrutiyetik;
ofrenda ugariya
leku danetatik.

17/ Aita San Inaziyo,
soldadua zana,
gerrero gizona,
barkaziyua eskatzera
Birjiñarengana;
bere ezpatarekin
guardiyan egona,
ezagaturik nundik
datorkiyon ona;
oso konbertitu ta
jesuita juana.

18/ Lareun da berrogei
ta amalau urte
dirala diyote,
Erregiña jatxi zan
zerutik amante;
relijioso asko
amoriyoz bete,
Erroma'tik ordena
dala mediante,
Agorraren beatziyan
jai eman digute.

19/ Gure Aranzazu'ko
Ama Birjiñari,
erregu berari,
salbe baten aurretik
zazpi abemari;
egunero segitu
ejenplo onari,
merezi duen gisan
adoratu bedi
Ama Eliza Santaren
lore eder ori.

20/ Koronatu zanian
Aitzgorri'ra juanak
maite ditu Amak,
etzituen kupira
konfesiyo banak;
asko bere ondora
dira eramanak,
guk ere ein ditzagun
al ditugun lanak,
zeruan gozatzeko
katoliko danak. (1)

(1) Bertso-papera, "Imp. de J. Díaz.—Irún",
Baleriano Oyarzabal, Portugal-etxeberrri, Iturriotz,
Oiartzun.

Bertsolariya bertso-errebista, 40'gn. zenb., 1932/
VI/19.

(1924)

BERTSO BERRIAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIAK

Pernando Amezketarra il zaneko (1823) eungarren urte-mugako festak, 1924'garrren urteko Uztaren 13'an bukatu ziran, jarri-aldi ontako bigarren bertsoak dion bezela. Ordukoxeak dira bertso auek, aren alabantzagarri jarriak noski.

1/ Nere jakinduriya
agertzera nua,
eskasegiya dala
daukat damua;
aurrekuen sustraitik
artu det planua,
Pernando Amezketarra
zanaren doñua;
il zan gizon ua,
pasa da urte-mua,
itz-dun umanua,
koplari sanua,
euskeraren aldeko
gipuzkuanua.

2/ Milla ta bederatzieun da
ogei ta laugarren,
Uztaren amairua
ondo zetorren;
zentenariyo-pestak
luze izan arren,
aurten bukatzen dira
urte bete barren;
euskaldunak emen
beida nola gauden,
zer edo zer aitormen
eman biar nuen,
lengo oitura dana
galdu baño len.

3/ Artzairik abillena
Amezketakua,
estadu geienetan
neurtutakua;
beste bat bizi balitz
orain alakua,
guk degu motibua
lagundutzekua;
aren manejuak
ez nolanaikua,
naiz boza bajua
bazuen tajua;
nun-nai ez da billatzen
orrelakua.

4/ Txiste aundiyak ditu
Pernando guriak,
erakutsi zituen
abildadiak;
inguratu zitzaizkan
izlari trebiak,
abogaduak eta
prokuradoriak;
prueba dotoriak
daude ateriak;
eskola-gabiak
arrazoi obiak;
nun-naitik bazituen
adiskidiak.

5/ Juez batek etzuen
bildurtzen izketan,
seguru zegoako
bere ustetan;
amar seme-alaba
azirik gaztetan,
aita abillagorik
etzan Amezketa'n;
periyen askotan,
noizik bein festetan,
etxian espetan,
andria kezketan;
zein ez gera erortzen
orrenbestetan?

6/ Etxian paketsua
izanagatikan,
estimaziyo asko
tabernatikan;
plazan ere itxuraz
bertsuetatikan,
gusto eman da joan zan
mundu ontatikan;
erri batetikan,
Amezketa'tikan,
ta askotatikan,
kanpuetatikan,
arren bentajak dira
aspalditikan.

7/ Abogadu abill bat
bazan Alegriya'n,
ustez artakuena
Euskal-erriyan;
beste jakintsu batek
bere errabiyen
Pernando bialdua
zuen esariyan,
bere istoriyan
saiatu zeriyan,
triste irudiyan,
ala zirudiyan;
galdiak egin zizkan
inbusteriyan.

8/ Pernandok artzekuak
zeuzkala esan ziyon,
ta zorrak eske nola
ari zaizkiyon;
besterenak aguro
barkatu zizkiyon,
bañan ontza bat urre
beria jo ziyon;
au eman baziyon
ondo zerizkiyon,
artzaiak zer ziyon?
bakarra zor ziyon,
ortzak erakutsita
alde egin ziyon.

9/ Abogaduak pena
debalde utziya,
berak besterengatik
erakutsiya;
aguro bukatuta
orduko ausentziya,
arrazoia galtzia
zan penitentziya;
oien potentziya
talentuz jantziya,
itzezko trantziya
da abertentziya;
pobriak garbiyena
kontzientziya.

10/ Pernando mezetara
jaiero joaten zan,
Elizaren kontrako
gizona etzan;
sazerdote jaunakin
igual juntatzen zan,
tertuliyak egiten
parrezko noblezan;
naiz bizi pobrezan,
alegre obe zan;
gertaera zer zan
bear nuke esan,
Euskal-erri guziyak
sinistu dezan.

11/ Praille bat joan zitzaion
galde egitera:
«Illargiraño zenbat
bire ote da?»
Garronduari azka
orduko tankera,
egin ziyon bildurrak
zegoen papera:
«Goraño joatera
bastante neke da,
dudatutzen gera.»
Bañon andik bera
beriala kontua
ziyon atera.

12/ «Bedorri jarko balitz
illargiyan bertan,
ordu-laurden bateko
biria bueltan,
amabiyak laurdena
gutxiyagoetan
zuzen abiyatuta
minutu oietan;
zer modu goietan
leku argiyetan?
eguardiyetan
sabela diyetan,
bikariyoen maian
amabiyetan.»

13/ Artaldia gizentzen
besteren sorotik
gustatzen zitzaiola
oso gogotik,
esan biar aundiya
jendiaren aotik,
pamiliya mantendu
nai bazuen ortik;
berdura onetik,
naiz besterenetik,
ardiyak nun-naitik
erosuenetik,
muturra luzatzen du
askorenetik.

14/ Erriyak etzuela
ortaraño kalte,
gizon entendituak
esan dirate;
orren gaiztakeriya
zer zan solamente?
apenas egin zuen
auzorik kulpante;
orain ere parte
jauntxuak daukate,
apaiz ta alkate,
pranko borondate;
estatua egin nai
omen diyote.

15/ Gure itzak ez dezala
arren ofenditu,
istoriya guziyak
ez dira aitu;
geiago badakizkit
jarriko banitu,
oja batian ezin
litezke kabitu;
biyotza ikuitu,
animaz kupitu,
Jainkuari deitu
ez dezan sufritu,
Pater noster batzuek
merezi ditu.

16/ Eun da bat urte da
Pernando il zala,
berrogei ta emeretzi
iya zeuzkala,
Uztaren bederatziyan
mundutik juan zala,
ezagun guztiyentzat
lutuko itzala;
nola zan leiala
itz-dun serbitzala,
zelebria zala
diyoten bezela,
Jaunak bere gloriyan
euki dezala. (1)

(1) Bertso-papera, "La Editorial Guipuzcoana.—

Tolosa", Anizeto Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donostia.

Bertso-papera, "La Editorial Guipuzcoana.—Tolosa", beste argitaraldi bat, Oiartzun'go Arrasku-larre baserria. Aldaketak: 6/8: mundu onetatikan; 9/12: ta abertentziya.

Bertso-papera, "Artes Gráficas.—H. Echeverría", Felix Pikabea, Ugarte, Oiartzun. Aldaketak:

2/7-11: aurtengo baizen,
urte bateko zen
euskaldunantzat zen,
beida nola dauden,
zer o zer aitormen;

6/5-9: plazan ere itxura
egiñagatikan,
naiko eman da joan zan
mundu onetatikan,
erri ontatikan;

9/12: ta abertentziya

"Bertsolariya" bertso-errebista, 37'gn. zenb., 1932/III/29. Aldaketak: Izenburua: Fernando Amezketa-rrari Juan Jose Sarasolak jarriak; 6/8: mundu onetatikan; 9/12: ta abertentziya.

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K BIGARREN
ALDIZ JARRIYAK

1/ Bertsuak paratzia
gogora zait neri,
Amezqueta'ko artzai
euskaldunari,
Pernando Bengoetxea
Altuna zanari,
arren jakinduriyan
sartu al baneri:
toriatzen ari
litzaizkan berari,
ainbeste memori
duena zan ori;
geiena jaten ziyon
dezakenari.

2/ Irakurriya daukat
gauz ori *Argiya'n*,
kondaira zarretako
letra garbiyan;
beatzi seme eta alaba
zeuzkan pamilyan,
bera allegatzen zan
maiz samar periyen,
Tolosa'ko erriyan
eta *Alegriya'n*;
izketan neurriyan,
ez modu urriyan,
askotan lagun arte
maitagarriyan.

3/ Fernando bajatzen zan
izandunetara,
pobriaren aldeko
personetara;
artzaia zan partetik
bere lanetara,
gizon estimatua
leku danetara,
euskaldunetara,
ezagunetara,
prinzipaletara,
tertuliya para;
batek galdetu ziyon
modu ontara:

4/ «Pernando, illargiyak
zenbat du pisua?»
Erantzun ziyon: «Jauna
libra osua;
gurutzian lau laurden
orra abisua,
lau partetan konpleto
argi erosua,
arpegi gozua,
amoriyosua,
espiritusua,
ta milagrosua;
nork dauka arren karga
ezin jasua?»

5/ Zenbait estudiante
zitzaizkiyon joaten
iñork arrazoirikan
ez ziyon jaten;
oso zalla zan ari
baza eramaten,
juezak gorrotua
argatik zeukaten;
ordañak entzuten
sufritzen etzuten,
gaizki erantzuten
ekusi nai zuten;
etxera enbargua
bota ziyoten.

6/ Aren gañian zala
dirua atera,
juezak jua zitzazkan
eskatutzera,
bat beintzat Pernandoren
itzari eltzera;
ark eskallerak jarri
tellatu-ertzera;
«Beira gure etxera,
mixeriyen gera,
zu ondo jartzera
etorri al zera?
Igo zaitez ta artu
fiyo bazera.»

7/ Orduan Amezketan
bikariyo jaunak
erriarentzat etzan
txarra izana;
jende bearrantzat
errukitzen zana,
iñori barkatutzen
zekiyen gizona;
nola zan persona
prestua ta ona,
bear dan gauzana
bazeukan sona;
Pernandok egin zuen
arren esana.

8/ Andria bialtzen du
meza nagusira
sermoi bat sinistatzen
laister asi da;
kulpitutik entzuna
aien iritzira:
karidade batekin
bi datoz grazira;
goazen noblezira,
zerbait merezi da,
jeniyo bizira,
nai zuten sikira (1)
nunbaitetik saiatu
irabazira.

9/ Bei bat bakarra zuen
Pernandok beria,
bikariyuak beti
talde obia;
oietara bialdu
dezagun guria, (2)
kanpokuak ondoren
etortzen badia,
ekullu libria
betetzeko iria;
jauna orren paria (3)
jarri du gordia;
gaur askoren antzeko
auzo-legia.

(1) Bertso-paperean: *sikiera*.

(2) Bertso-paperean: *guzia*.

(3) Bertso-paperean: *pazia*.

10/ Izendatua dago
Pernandoren plaza,
aren jakinduriya
etzan eskasa;
il zala nola ziran
eun urte pasa,
irakurtzen duenak
emango du traza;
orduko jolasa,
batzuentzat pasa,
orrenbeste kausa
sufritzeko lasa;
oraingo gizon asko
ez gera gauza.

11/ Bein etxetik irten zan
ferirako idian,
bi señořita gazte
topo birian;
jator itz egin ziyen (4)
bere agurian:
zeñen alabak ero
zeintzu ote dian;
bere aldamenian
jarri diranian,
izketa onian,
urrengo galdian:
iya etxian ondo
bizi al dian.

(4) Bertso-paperean: *ziyon*.

12/ Batek aita markesa,
kondia bestiak,
bi señořita polit
onen gaztiak.
«Irurok ein ditzagun
gaurko ajustiak,
pena emango lirake
zueri uztiak;
izketan astiak
ero jolastiak,
zarraren txistiak
ez dira tristiak;
meritu aundiya du
erakustiak.

13/ Nik zuen gurasuak
amigo aundiyak,
beti goguan dauzkat
aien ongiyak;
nerekin konformatzen
bazerate biyak,
irurontzat pagatzen
ditut bazkariyak.»
Orduko istoriyak
zer txorakeriyak,
festa eta feriyak,
ezerezkeriyak,
baliatu arteko
enbusteriyak.

14/ Esan bezela sartu
ziran Tolosa'ra
ostatu onenera
bazkaritara.
«Neonek gonbiatzen
zaituztet ortara.»
Zaku ta makillakin
sartu zan ara,
jan eta eran para,
bete du ijara;
Fernandoren kara:
gero balkoiara,
esanaz: «Deitzen naute
gizonetara.»

15/ Bere gisa izketan
jendiarengana;
«Mandatu bat badaukat
aztu zaidana.»
Zaku bat bizkarrian
utsik eramana,
atiaren atzian
prendatzat emana;
erana ta jana,
orduko afana,
gero kafe bana
artu eta juana;
señoritan kontura
bazkari dana.

16/ Ostatuko gizonak
ziyoten esango:
artzaia pagatzera
etzala juango;
borondatez etzuten
berriz eramango,
len artua damutan
ziraden egongo;
boltsatikan sendo
gaztiak izango,
zarrak abiando
jan eta eran ondo;
ezpaña iortzita
libre Fernando. (5)

(5) Bertso-papera, "La Editorial Guipuzcoana.—
Tolosa", Azkoitia'ko Lardaskanda baseritik.

* * *

Fernando Amezketarrari jarritako bi bertso-paper
auetatik, bakoitzetik bederatzina bertso aukeratuaz,
emezortzi bertso beste bertso-paper bat osatu zuan
norbaitek, eztakigu zeñek, eta Errenteria'ko Maka-
zaga'renean argitara-arazi zuan.

Aurreneko bertso-paperetik, 5, 6, 7, 8, 11, 12, 13,
14 ta 15'garrena artu zituan. Aldaketak: 5/5: amar
seme ta alaba; 6/1: Andria etxian zai; 6/2: egona-
gantikan; 6/3: istimaziyo asko; 6/13: aren; 7/6: bere
arrabiyan; 7/8: zuben ezarriyan; 11/8: zeguan; 13/7:
fameliya; 14/1: etzuala; 14/2: orrenbeste kalte; 14/5:
aren gaiztakeriya; 14/7: zuan; 15/9: biyotzaz ukui-
tu; 15/11: Jaunari deitu.

Bigarren bertso-paperetik, 1, 3, 4, 11, 12, 13, 14,

15 ta 16'garrena artu zituan. Aldaketak: 1/7: aren; 1/12: zubena zan ori; 3/3: pakiaren aldeko; 3/7: istimatuba; 11/2: perirako; 11/13: aber etxian ondo; 12/1: Fernandok eman zizken; 12/2: bere albistiak; 13/2: aiskire aundiyak; 13/14: inbustერიyak; 14/6: dizutet ontara; 14/8: sartuba zan ara; 15/5: zakuba bizkarrian; 15/13: seņoriten; 16/9: poltsatikan; 16/13: ezpaņak igortzita.

JAKINTSU BATEN UTS-EGIÑA

1/ Fernando Amezketarra
eta emazia
bein batez gertatu zan
aldrebestia;
anima salbo dala
astua bestia,
ark ere baliteke
zerbait xinistia;
gurutze tristia
gaizki ekustia,
geroko nastia
nola dan kostia,
gauza zelebria da
erakustia.

2/ Deskuidatu zanian
Fernando Amezketa'n,
bezperako zurrutak
zeukan kezketan;
ez, ibilli ez balitz
artzantzan bestetan,
ferira maiz juaten zan
noizik bein festetan;
askoren ustetan
abilla gaztetan,
zartzera espetan
seitatik bostetan;
andriak irabazi
zizon izketan.

3/ Dotore jartzen zuen
Periko laguna,
pasta bizkarrian da
gurutze-duna; (1)
iñoiz Alegri'ra ta
Tolosa'ra juana,
sorgiñ-bildurrik gabe
ibilli zaiguna;
naiz izan illuna
jai biyaramona,
giyatzalle ona,
ganaru biguna;
polita zan arekin
egin ziguna.

(1) Astoari gurutzea egiten zaio sokarekin.

4/ Deskuido^z utzi zuan
lotuta ferriyan,
bueltan akordatu zan
bire erdiyan,
buruari atz egiñez
bere arrabiyan,
taberna edo ostatu
baten ateriyan;
aren memoriyan
falta ugariyan,
geitxo erariyan,
ala ziruriyan...
orduan etzebillen
txorakeriyan.

5/ Tabernako gizonak
«Zer dezu, Fernando?»
galdetu zionian,
etzegon ondo.
«Gaur astuaren faltan
bildur naiz lenengo,
andriak ote diran
erritan emango;
amar ondorengo
badauzkat urrengo,
oraingo eta lengo,
enaiz lasai juango...
zerbait aitzaki biar
ez banau jango!»

6/ «Lagun baten aitzaki
egin zaiozu ala,
txal bat eramateko
emana dala,
iñoiz baserritarrak
beartzen dirala.
—Orra tabernariyak
konsejo formala,
farrez daguala,
gaita iguala.—
Orain beriala
ezin leikiala,
biyar goizian billa
joango zerala.»

7/ Buru txarrekin juan zan
biyamon-goizian,
lotu zuen lekura
bire luzian;
norbaitek askatuta
orduko etxian,
emaztiak gordia
ekullo-atzian;
gero arratsian,
izketaratzian,
pena biyotzian,
noizik bakoitzian,
senarraren tranpiya
ezagutzian.

8/ Emaztiak ziyola
zerbaitik igarri,
errezelo txarrian
Fernando jarri;
ala're prestatua
sumatu du sarri:
«Beiak ostikuen bat
diyola ezarri,
asto gaxuari
esan diyot *arri*,
nola zegon larri
ezin zan etorri;
beiratzen ziran baño
ez det ekarri.»

9/ Gezurra deskubritu
zanian ortikan,
aguria galdu zan
izketatikan;
billatu zuenian
senarran faltikan,
emakumia trebe
bere gramatikan;
sukalde-aldetikan
andria platikan;
astuak betikan,
bere txokotikan,
pregoia bota ziyon
ukullotikan.

10/ Orduko desaidia
emaztiagandik:
«Etxi ontan bi asto
nola ditut nik?
Lau anakua orri
emateko penik,
ez det uste gaxuak
kulparik daukanik;
izketako lanik
jarri gabetanik
egiteko fortunik
ez degu planta onik;
uste nuen ziñala
beste aitonik!»

11/ Emazte Mari Joxepak
tratatu du astotzat,
famiyako aita
trapo gaixtotzat;
zenbait estudiantek
zeukan ministrotzat,
eskolarik gabia
persona listotzat;
andriak gizontzat,
badira askontzat,
deskuido danantzat,
aitortzen dunantzat;
orra bertso berriyak
noiz gauden ontzat.

12/ Amabi bertso berri
 obek dira danak,
 Sarasola'ren buruz
 jarri diranak;
 sasoi degun artian
 jasotzeko famak,
 seme diferentiak
 azi gaitu amak;
 gero ere lanak
 pobriak geranak;
 zartzera baldanak,
 gaude antz emanak;
 uts-egin auxe zuen
 Fernando zanak. (2)

(2) Bertso-papera, "Imprenta Macazaga.—Rente-
 ría", Adelina Sarasola, Lexoren alaba, Donostia.

"Bertsolariya" bertso-errebista, 43'gn. zenb. 1932/
 VII/10. Bi toki auetan berdin-berdin daude bertso
 guziak. Berai kopiatu dizkiogu, liburu ontan jar-
 tzeke.

Bertso-papera, "Itxaropena Argitaldaria.—Zarauz",
 Juan Garayalde, Orendain. Aldaketak: Izenburua:
 Bertso berrituak Amezketa'ko Fernando zanari, bere
 emazteari eta Periko Astoari. 1/3: bein gertatu zi-
 raden; 1/10: ikustia; 1/12: ainbeste kostia; 1/13:
 zer bearra dan ondo; 2/3: zurruta; 2/10: azkarra iz-
 ketan; 2/11: ospetan; 2/14: zuan izketan; 3/8: ibil-
 tzen zana; 3/12: abere biguna; 4/8: atarian; 5/12:
 ez naiz; 7/8: ukullu; 8/2: zertxobait igarri; 8/5:
 ala ere; 8/7: ostikoren; 8/13: begiratzen; 9/13: zien;
 12/13: utsegite au zuan. Oietaz gañera *fonetismo*
 asko kendu du: *bestea, tristea, erdiyan, ziruriyan* ta
 abar jarri bearrean, *bestia, tristia, erdian, zirudian* ta
 abar jarri.

Bertso-papera, "Iñaki Deunaren irarkola", Mikae-
 la Labayen, Astaitzaga baserria, Leitza. Onak bertso
 guziak aurreko paperarekin berdin dakarzki.

(1925)

KEIXETAREN ONRAN

- 1/ Milla beatzireun da ogei ta bostian
bazan zenbait arguriyo,
Zumarraga'ko aizkolariyak
izan dirala meriyo;
iru langille jokatu dira
onradu eta seriyo,
fama aundiya daukaten biri
batek irabazi diyo.

- 2/ Biyak sei puska eta aizkora bat,
bakarrak ere sei puska,
kanerdi bana neurri berdiña,
gaizki eliteke juzka;
zarraren kontra trabesa egiñak
nunbait buruari azka,
irabaztunak geroztik ere
balore aundiyak dauzka.

3/ Altz-errekako seme jatorra
degu Jose Aranburu,
urtietan da aurreratua:
berrogei ta bost inguru;
orren plazako mobimentua
ondradu eta seguru,
seme-alabak ondo jartzeko
esperantza izango du.

4/ Jose izena duen bezela
izen-goitiya Keixeta,
tranparik gabe etxeratua
millaka zenbait pezeta;
fin jokatuak danak dirala
letu genduen gazeta,
gizon jatorrik ez det mendratzen
pake-zalia naiz-eta.

5/ Bestiak zerbait badira baño
Keixeta ez da nagitu,
tronko gañian ezagutzen du
aizkora nola mugitu;
premiyo on bat aspaldikua
ez det gutxitan aditu,
bi milla errial eta bandera
Oñate'tikan baditu.

- 6/ Danak esaten enaiz ariko
lenago egindakuak,
prezisuenak itz egin eta
geroko gañerakuak;
gazte-gaztetan izandu ditu
estimaziyo bapauk,
oraindik ere orren azañak
sekulan bezelakuak.
- 7/ Baziran egun gogogarriyak
juan dan Abenduarenak,
Santa Luziak argitu ditu
begiyak lotan zeudenak;
Zumarraga'ko apostuakin
gustatu giñaden danak,
minutu gutxi pasatu ditu
au irabazi duenak.
- 8/ Bere tronkuak ebaki zitun
arritzen diran klasian,
emezortzi eta amar segundo,
emeretzi eskasian;
trabesa egiñak galdua pena,
irabaziyak pozian,
orduan ere ipurdikua
artu dutenak bazian.

- 9/ Jokatzalliak ez gero artu
begitan edo burutan,
erriyak berak irabazten du
makiña bat sentidutan;
bat biren kontra jokatua da
gutxiyenian irutan,
modu ortako plaza-gizona
ez da pagatzen dirutan.
- 10/ Mendaro'n fama aundiya duten
beste anaia birekin,
San Tomasetan Azpeitiya'n zan
joku igualarekin;
gizona zerbait ezagutzen da
pruebak ekusiyarekin,
lau probintzitan onena dala
juzgatzen dute beñepin. (1)
- 11/ Milla beatzireun da iru ezkeru
ogei ta amairu apostu,
arrixkatu dan kantidadia
danari etzaie aztu;
modu ortako seme on batek
erriya lezake poztu,
onradua dan fama besterik
Gipuzkoa'tikan eztu.

(1) Bertso-paperak: *beñepin*.

12/ Ogei ta amalaugarren jokua
ustez bazuen aurtengo,
jokatu balitz ikusitzera
jende asko zan ertengo;
batek beñepein bere itxuraz
zarrari nai ziyon tongo,
orrelakuak aguriari
ez diyo askorik jango.

13/ Baso-gizonak diranak asko
tiratzen ditu kaliak,
zenbait badira itxuragatik
konprometitu zaliak;
Ormola'k orain jokatutzia
uste zubena jendiak,
urte betian tentatu du-ta
galdu ditu señaliak.

14/ Lenago Deba'n jokatu dira
Mendaro'kua ta biyak,
arekin galdu duen orduan
eldu al diyo larriyak?
Keixeta'rekin probatu balitz
etziran estu gorriyak (*sic*)
arrokeriya geitxo dabilki
Ormola buru-gorriyak.

15/ *Baten afana gelditu da-ta*
ematen zaio tankera,
Keixeta'rentzat berdintzekorik
Euskalerrian ote da?
Ormola'rentzat zuen bentaja
konforme da ematera,
desafiyua botia dauka
bestek nai badu atera.

16/ Ogei ta iru tronko jarrita
kana erdiko bana lori,
Maiatz-illaren azken artian
plazo polita diruri;
bestiarentzat amaika eta
beretzat artu amabi,
baten bentaja ematen diyo
jokatu nai duenari.

17/ Bi milla pezta señaile eta
nai duen aña geiago,
kantidadia jokatutzeko
komentziya badago;
irabazi edo galdu egin ta
erretiratu naiago,
azken aldira aitzakirikan
prestatu bañan lenago.

18/ Ogei eta lau urtez onoztik
etzan txantxetan asiya,
pazientzizko gizona da-ta
izan du naiko graziya;
Jesukristoren urtiak aña
apostu irabaziya,
orain medalla onoreko bat
ez al luke mereziya? (2)

Juan Jose Sarasola'ren partetik

(2) Bertso-papera, "Beasain'en A. Zunzunegi'ren moldiztegian", Juan Iturralde, "Juanito Kojua", Donostia.

(1925)

JUAN JOSE SARASOLA'REN PROMESA

1925'garren urtean alborranak izan zitu-
an Lexok, eta Donostia'ko Manteo'ko
ospitalean operatu zuten. Oso ondo gel-
ditu zan.

Lezo'rako promesa egiña zuan, ta bere
jaioterri orretara nola joan zan, prome-
sa ori kunplitzearren, urrengo bertso aue-
tan kontatzen du.

Manteo'ko ospitalean etzuten ez jateko-
rik ta ez edatekorik sartzen uzten. Bañan
Lexok, apetitu aundiko gizona baitzan,
eta alborranak jateko gogorik kentzen ez
baitzioten, onela esan zion andreari, bisi-
taz etorri zitzaion batean:

—Ollo-ixtarra jango nuke nik ba!

Ta andreak:

—Ekarriko dizut ba!

—Ez dizute sartzen utziko ordea! Erre-
jistratuko zaitue!

—Etzaio ajola! Nolabait ere ekarriko
dizut!

Ala, urrena joan zanean, ollo-ixtarra
paketetxo batean jarri ta ura mantal-az-
pian izkutatuta abiatu zan. Atean, ordea,
moja bat karabinerotza egiten ari zan,
emakumeak errejistratzen, ezer pasa etze-
zaten. Lexoren andrearen txanda iritxi
zanean, onela esan zion:

—Orain zuri!

Ta Lexoren andreak:

—Baita nik ere zuri!

Ta errejistratu-itxura egin zion mojari.
Onek, ikaratuta, atzera jo zuan, «*ai!*» aun-
di bat botiaz, ta Lexoren andrea barrena
sartu zan, bere ollo-ixtarra ta guzi.

1/ Milla ta beatzireun da
ogei ta bostian,
agoztoko illaren
azkeneko astian,
gertatu nintzalako
estadu tristian,
zer gogoraziyuak
etorri zaizkian,
etorri zaizkian!

2/ Lezo'rako artu det
kariño berriya,
beti aitortzen dedan
jaiotako erriya;
agur, Gurutze Santu
estimagarriya,
besuak zabaldua
gugatik jarriya,
gugatik jarriya.

3/ Milagrosua bazan
orain milla urte,
uste det baduela
len aña birtute;
sinistatu dezagun
bizi geran arte
beraren (1)
maitatzeko fuerte,
maitatzeko fuerte.

4/ Nere estutasun bat
ezagutu beza,
geroztik egin nuen
Lezo'ra promesa,
bertan konfesatuta
entzuteko meza,
zerbait geiago're bai
egin al baneza,
egin al baneza.

(1) Ezin irakurri izan degu emen bertso-paperak
zer dion.

- 5/ Kandela jarri niyon
 San Antoniyori,
 bana ofrezitua
 baneukan biyari;
 gero bisitatu det
 Santo Kristo ori,
 deboziyo geiago
 ez diyot iñori,
 ez diyot iñori.
- 6/ Manteo'ko ospitala
 gauza bearra da,
 oso errenditua
 sartu nitzan ara;
 kendu ziratenian
 gorputzeko traba,
 sosegoz pasa nuen
 San Agustin gaba,
 San Agustin gaba. (2)
- 7/ Illabete justura
 atera naiz andik,
 kezka bat kendu gabe
 neukan oraindik:
 promesa kunplitu det
 errira juanik,
 ez det uste onetan
 uts egin dedanik,
 uts egin dedanik.

(2) Gazteluren liburuan Auspoa'ren 61'gn. alean, 87'gn. orri-aldean, bertso au Gazteluk botia balitz bezela ematen da. Oker, beraz, Lexok jarria baita.

- 8/ Bi operaziyo txar
sei urteren barren,
geiago ez nadilla
kastigatu arren;
Gurutze Santuari
nai diyot aitormen,
beraren oñetara
argatik natorren,
argatik natorren.
- 9/ Nonbait libratu nitzan
len estamogotik,
ta orain alborranak
zañaren barrutik;
odol galduak kendu
ez balira ortik,
pagatuko nuela
uste det larrutik,
uste det larrutik.
- 10/ Bi aldiz gertatu naiz
ederki sangratzen,
zauri txiki bat daukat
oraindik purgatzen;
asistitu nautenak
ez ditut mendratzen,
ondo portatu zaizkit,
ari da sendatzen,
ari da sendatzen.

- 11/ Akordia kenduta
egindako lanak
gero sufritzen ditu
konturatzen danak;
Jaungoikoan izenian
guretzat emanak,
pazientziyan pasa
biaitugu danak,
biaitugu danak.
- 12/ Konfesatzen naiz baño
zerbait utsegiña,
askotan buruari
nago atzegiña,
nere borondatia
ezta desegiña,
padeziyuan mende
bizi ez bagiña,
bizi ez bagiña.
- 13/ Nunbait atsekabe bat
dala aditzian,
arako lizentzirik
ez dan bakoitzian,
nik ere nere penak
dauzkat biyotzian,
zer egiña jartzen zait
au gogoratzian,
au gogoratzian.

14/ Eskarmentuak sartzen
gaitu ezaueran,
nola bukaeran ta
ala asieran;
deseo asko daude
nere bizieran,
ez dakit oraingua
logratuko dedan,
logratuko dedan.

15/ Meza bat animantzat
nuke aterako,
lengo uts egitiak
eztu kalterako,
eta parientian
naitasunerako,
ongille guziyentzat
osasunerako,
osasunerako.

16/ Guazen kristandadeko
lege fiñetara,
gizon jakintsunaren
esamiñetara;
Jesukristoren itzak
datoz ziñetara,
burua makur zagun
bere oñetara,
bere oñetara. (3)

(3) *Bertso-papera*: "Tip. R. Ferrer", Makazaga-
-ren moldiztegia, Errenteria'n, jaso.

(1926)

ABIADORIEN BERTSUAK

1/ Bertsuak paratzeko
jarri naiz gayian,
urte-sasoyian
milla ta beatzireun da
ogei ta seyian;
igande arrats batez
pentzatzen oyian
sartu ote niteken
nere arrazoyian
aireplanuan lanak
berritu nayian.

2/ Milla ta zortzireun da
berrogei ta bostian
egin zan ajustian,
jakinduriz etzeuden
orain ainbestian;
batzuek zardadian,
bestiak gaztian,
zentzu berdiñekoak
zergatik eztian,
gizona juzgatzen da
lanak ekustian.

3/ Irurogei ta zazpi
urte-tenoriak
kunplitu gabiak,
esaten zigutenez
lengo aguriak;
Estados Unidos'ko
abiadoriak
munduan lenbiziko
prueba ateriak;
geroztik sortu dira
sistema obiak.

4/ España'ya'n bezela
reino bakoitzian,
istillu latzian,
lenengo asiera
zuten arkaitzian;
zabalera baño len
eroritzen zian
nun-nai ametitzeko
moduan etzian;
ai ura naigabia
aien biyotzian!

5/ Diotenez bizi da
Norteko partian
bere suertian
asko saiatu zana
koraje fuertian;
guardasolaren forma
lenengo urtian,
gasolarik etzan
gastatzen artian;
andik aurrerakua
modu apartian.

6/ Famak urrutikuak
ziran oraindikan
askorengandikan,
esperantza aundiyak (1)
zetozen andikan;
Inglaterra'n eta
Norteamerika'n,
Rusiya'n ta Turkia'n,
gañera Afrika'n...
Españiya'n ez al da
aman semerikan?

7/ Damututa zeudenak
berriz ere asi
ta ezin galerazi,
mekanikuen prueba
guriak lenbizi;
jeniyo berakuak
nerbiyuak bizi,
egin bear zutela
eten edo ausi;
Alemani'ra gabe
etzuten ikasi.

(1) Bertso-paperak: *aundiya*.

8/ Nunbait begira zegon
infernuko Patxi
oien zenbait tatxi,
portatu gabe ezin
famarik eratxi;
ogei metro altura
ziranak iritxi,
betik gora juan baño
azkarrago jatxi;
gero sendatu arte
fundamentu gutxi.

9/ Orduko aitona zarrak
goguan zer zuten
zaudete entzuten:
ez dala zimendorik
gabe erantzuten,
aien bistan norbaitek
miñ artzen bazuten,
parte gaiztua zala
ai ziran esaten;
gobernadore danak
debekatu zuten.

10/ Ogei ta amar urtian
pakia zan ortik,
etzeguan bueltik,
berriz logratu zuten
estranjeriyatik;
Beljika'tikan eta
Alemaniya'tik,
prantzes ta españolak
ara juanagatik,
danak argitu ziran
jakinduriyatik.

11/ Beste adelantuak
gero ikasiyak
naziyo guziyak,
batzuek egin arren
buelta itsusiyak:
oroian alturatik
beraño jausiyak,
gizonak illak eta
makinak ausiyak;
zeiñ eskarmentatu du
ori ekusiyak?

12/ Palos'tik Afrika'ra
lau gizon aidian
leorran parian,
kortxozko lantxarekin
juateko urian;
urdintasuna goien
itsasua bian,
millaka kilometro
pasiaz birian,
nunbait deskantsatuko
al ziran gabian!

13/ Aitatik beratatik
egindako lanak
ez dira baldanak,
Buenos Aires'eraño
Leon'dikan joanak;
oraiñ Españiya'tik
daude kanpeonak,
bizi diranarentzat
portariyo onak,
larrutik pagatzen du
deskuidatzen danak.

14/ Negoziyo danetan
itz-birea sortzen,
zalla dago sartzen,
zergatik erozeñek
ez du ondo artzen;
bañon jakinduriyak
diranean neurtzen,
konduta duenari
ez diyogu galtzen;
zepellinak ai dira
karga asko jartzen.

15/ Txoritik fundatuta
egindako moduak,
ustez seguruak,
beti nekatzen daude
zenbaiten buruak;
motor dobliak eta
belazko eguak,
arranuak iltzera
dijuaz globuak,
gero ta aparejo
airosuaguak.

16/ Aize utsezko pruebak
omen dira aurki,
len beziñ ederki,
esaten digutena
goguan eduki;
espiriturik gabe
alturaño jaiki,
sorginkeriya deitzen
ez bazaio oiki,
zer ekusteko gauden
Jaungoikuak daki!

17/ Paris'tik etorriyak
beida ze egin duan
gure inguruan:
ederki jostatu zan
enaran moduan;
zazpi kanpana buelta
eman eta onduan,
urpian sartu zala
ekusi genduan;
geiago aztarrenik
ez dute munduan.

18/ Donostiya'ko Kontxa'n
bi gizon famoso
asieran gozo,
azkenian aietaz
egin biet kaso;
lenbizi ito zana
billatu eta jaso,
bigarren aldiena
galdua da oso;
orainguak ez daude
aren peligroso.

19/ Usuaren antzera
linietan para
asko aldetara,
goitik gurutzen dira
leku danetara;
Colon'ek artutako
Ameriketara,
batzuek urrutira,
bestiak bertara;
iya aberatsenak
dijuaz ortara.

20/ Or dabillenak ez du
talenturik urri,
dabill gustagarri,
batzuetan lasai ta
bestietan larri;
titulo danak ondo
elitezke neurri,
bañon prezisuenak
nai nituen jarri;
orra Juan Jose Lezo'k
ogei bertso berri. (3)

(3) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Le-
xo'ren alaba Adelina'gandik jaso.

"Bertsolariya" bertso-errebista, 33'gn. zenb., 1932/
III/1.

(1927)

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

Edozein bertsozalek dakian bezela, Txirrita ta Fermin Imaz'ek sesio gordiña izan zuten beren artean, alkarri bertso mikatz asko jarriaz.

Bertso oiek danak, Auspoa'ren 24'garren alean arkituko ditu irakurleak, baita pasadizuaren adierazpena ere.

Bañan onako bertso auetan ageri denez, Lexo salsan sartu nai izaten zutenak ere izandu ziran.

Ta onek, naspill artatik libre nai zuan ezkerro, bere burua garbitzeko bertso auek jarri zituan.

Txirrita ta Imaz'en bertsoetatik ageri ez dana, Lexoren bertso auek diote: gertaeraren urtea. Lenengo bertsoan irakurtzen denez, 1927'garrena zan.

1/ Milla beatzireun da
ogei ta zazpiyan
arkitzen naiz naigabe
triste askiyan;
bi aldetako penak
oraintxen neuzkiyan;
esan bear det nola
naizen Donostiya'n:
ez nabil gaizkiyan,
nere iritziyan,
lengo parrokiyan,
modo egokiyan...
alare autan nabil
naizen tokiyan!

2/ *Calle Easo'n* nitzan
Manueloenian,
garagarrillak zortzi
zituenian,
nere kontrako gauz bat
jakin deranian;
geiago ere baziran
an aldamenian;
kantuko lanian,
naizen baldanian,
ez nago lenian,
baju nagonian;
eskerrak nabillela
zentzu onian!

3/ Lau illabete t'erdiz
onera ezkeru,
ez nuan aitatzerik
iñork espero;
tabernan naizenian
kanta ta enredo,
asko bezela ez naiz
sartutzen gabero;
zenbait erdi ero
nere kontra bero,
mingañez lijero,
gutxi errepero;
jostaketa txarrian
dabiltza gero.

4/ Alde batera badet
meseri aña kalte,
kulparik ez dedala
agertu arte;
Fermiñen bertsuekin
bai dedala parte,
orain len askotan
esana daukate;
belarriyak tente
jarri dizkirate,
eman biat frente;
ez banabil fuerte,
testimoniyo-pian
galduko naute.

5/ Bi bertsolarik zuten
disputa artua,
oien kulparik ez da
ni aitatua,
beste sujeto baten
atarramentua,
ez dakit nola diran
neri gorrotua;
orren talentua
gezurrez lantua,
itzez aumentua,
zer puldamentua!
petiziyo txarreko
mandamentua.

6/ Orren desairia zan
goiko galtzaratik,
baliatu naizela
bertsuetatik;
bigarrengo pikua
Errenteria'tik,
billatuko ninduten
izan banu faltik;
kaltia gogotik,
ez dakit zenbatik,
zer dute nigatik?
konpon bitez ortik!
nik ez diyot sumatu
Fermiñi kantik.

7/ Esamiñatu gabe
daukadan dotriñaz,
buru-berotzalliak
daude lastimaz;
iñor ez da biartu
nik daukadan firmaz,
motibua dalako
mintzatzen asi naz;
kantuko kozinaz
kutsatua ni naz;
zuentzat gutxi naz,
Txirrita ta Imaz;
beste kastigo baten
mende bizi naz.

8/ Ez banuen ikasi
familira biltzen,
galdu biar nubela
zait iruditzen;
bertsuetako lanak
gutxi dit luzitzen,
ezkasago naiz berriz
besterik neurritzen,
dananak sufritzen,
alare bizitzen,
zalla nunbait iltzen,
nekez konbertitzen;
kostatzen zait zenbaiti
adierazitzen.

9/ Ezkonduak badegu
zer begiraturik,
ez nua juzgatzera
danan traturik;
aditu nai duenak
gustoko kanturik (1)
ez tabernan kontatu
etxeko konturik;
izketa junturik
badago sarturik,
gaita mudaturik,
ez artu punturik;
ni ortaraxe nago
konformaturik.

10/ Errezeloso asko
biotzetik eri,
belarriyak berotzen
ai zaizkit neri;
ontzat artuko balitz
zenbait jakinduri,
elitzake pasako
dan aña komeri;
lagundu lanari,
beretzat onari,
ainbeste memori
datorkiyonari,
buruan sartzen zaio
berez danari.

(1) Bertso-paperak *konturik* dio, eta urrengo puntuan ere bai. Poto, beraz. Nik uste, emen *kanturik* bear du.

11/ Ez det bertsorik jarri
Txirritaren kontra,
desafiyorik berriz
ez diyot bota;
dakidan aldetikan
ez dit ezer zor-ta,
eldu-bide aundiya
letorkian or ta;
nik daukadan nota,
jakiña dago-ta,
zertako gorrota?
naiago det porta;
pake on batek ez du
gutxi inporta!

12/ Projimuaren kontra
sartutzia maukan,
ez dakit bentajarik
nork ote daukan;
txakur gaiztuaguak
asi gabe zaunkan,
gauza ori garbitzeko
desiua neukan;
ez nago bentajan,
indarretan bajan,
gertatzen naiz bakan,
ni ez nabill tranpan;
naiago det kabitu
gizonen markan.

13/ Norbaitek badakizki
gurekin nastiak,
arrazoirik gabeko
buru-austiak;
beñere ez nau poztu
ola irabaztiak,
geiago serbitzen dit
talentuz jaztiak;
ni eta bestiak
ez gera gastiak,
azitzen kostiak,
lan du ikastiak;
eginkizun asko du
bizi tristiak.

14/ Burutik anketara
zain guziyak fiñak
zituztenak baziran
gizon jakiñak;
aurrekuen aitonak
zeduzkaten griñak,
nai izanagatikan
etziran berdiñak;
batzuek liraiñak,
bestiak bikaiñak,
nork bere tamañak,
baditugu maiñak;
gu're alañen gero
amak egiñak.

15/ Ni naiz bertsolari bat
pobria jatorriz,
erozeñek berdintzen
ez nau etorriz;
gauzak esango ditut
itxuraz ta neurirz,
nola tatxatzen naizen
kontu lotsagarritz;
aitortzen det egiz,
tristia naiz begiz,
eskasa eztarriz,
ta eskolan aprendiz;
ikasteko sasoia
juana det berriz.

16/ Metitzen ez naizena
sekulan iñoren,
ez dakit nere kulpa
nola egiña den;
uste ez nuen batek
tentatu ninduben,
baño pekatariya
ez det esan nor den;
orrenbeste kemen
dakigula geunden,
senistia arren,
saiatzen naiz emen,
betiko sermoyian
sartu baño len.

17/ Orain irurogei urte
Lezo'n aurra nintzan,
Garagarrillan biyan
jaiua naiz an;
bataiatu ninduten
San Juango elizan,
begira geroztik zenbat
pasatzen gabiltzan,
ni nere bizitzan,
prestuaren gisan;
ala komeni zan,
deseo ori zan;
zartzera pikarua (2)
ez det nai izan. (3)

(2) Bertso-papcrean: *sortzera*.

(3) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea; ez
nuan apuntatu zeñi jaso nion.

(1928)

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Milla ta beretzireun da
ogei eta zortzi
urte inguratuak
palta dira gutxi
Jesus mundura zala
zerutikan jetxi;
bere amoriyua
zigun erakutsi,
diabruaren mende
ez ginduen utzi.

2/ Bertsuak ipintzia
neonen burutik
disponitua nago
Santa Kruz gautik;
dotriña mudatzia
len zegon modutik,
katolikuarentzat
zalla da gogotik;
gonbertitzen eztana
or konpon gugatik!

3/ Uso arrazoizkua
pasata onduan,
ez al dakigu nola
ikasi genduan?
gazte denboran giñan
kariño senduan,
edadetuta guaz
iya atzenduan,
persekuziyo asko
dauzkigu munduan.

4/ Aritzen niyon lengo
guraso zarrari,
erabat utzitzeko
eskola txarrari;
begira jaiotzetik
datorren zorrari,
alde egin litekela
etsaian larrari;
zertan galdu biegu
lege eder ori?

5/ Jesusen izerdiko
zenbait borondate,
indartu biarrian
nora daramate?
nere antzeko askok
zer egiten dute?
maldeziyo gaizto ta
salbotakoz bete;
mingaiñ zikiñetatik
orrenbeste kalte!

6/ Goizian jaiki eta
lenengo nastia:
gaizki irakurriya
norbaiti kostia;
oraziyuan ordez
Dios ta hostia,
euskeraren kalteko
izkuntza tristia,
arritzen naiz batzuak
ori ikastia.

7/ Zerbait gertatu bada
konbentuetatikan,
bategatik guziyak
ez dute paltikan;
besteren pekatuak
kendu burutikan,
gure kontzientziya
libre da ortikan,
konpesatu gindezke
norberegatikan.

8/ Aragiyaren gaitzak
goiz ero berandu
arraxkatzen diranak
ditu beregandu;
artzairik abillenak
ezin gaitu ondu,
lengo enemiguak
zitezkie kendu,
beste engañiyorik
ezer ezpagendu.

- 9/ Bataiatuarentzat
erejian nota,
zer dala uste dezute
onenera jota?
erlejiyuaren ta
kreduaren kontra,
Ama Elizarengatik
etzaiela inporta,
oiek bear lirake
salletikan bota.
- 10/ Sakrilejiyo asko
gaiztuak elizan,
esku-biria kentzen
norbait ibilli zan;
Kristoren odolikan
eztala kalizan,
sinistuko bagendu
oiek diyoten gisan,
salbatzeko birerik
ez liteke izan.
- 11/ Pariziyuan alde
Kaipas ta Satanas,
arrokeriyan billa
dabiltza apanaz,
Jaungoikuaren kontra
birauak esanaz;
etzaiote damutu
egindako lanaz,
betiko neurtu ziran
Luziperren kanaz.

- 12/ Oieri laguntzarik
eiten badiyogu,
semę-alabari zer
esan bear'ioĝu?
onen esker-gabiak
nola baitgeran gu,
bañon errespetua
guardatu biagu,
kristandade garbiyan
bizi nai badegu.
- 13/ Elizak ondatzeko
justiziya nundik?
geienak zutik daude
bota gabetandik;
zerurako biria
badago oraindik,
berri onik etortzen
ezpazaigu andik,
ze esperantza dago
salbajiagandik?
- 14/ Gure gorputzak laister
jango ditu lurrak,
lenagotik ez gaude
zuzentzen samurrak;
geiena galtzen gaitu
aziyo laburrak,
itzak ederrak eta
kariño zimurrak,
bear ez gendukena
alkarren beldurrak.

15/ Pikaruaren kulpaz
pagatzen du onak,
kontu artuko digu
agintzen dagonak;
deitzen digun denboran
Jesus gure Jaunak,
bere tribunalera
juan biagu danak,
an juzgatuko dira
egindako lanak. (1)

(1) Bertso-papera, "Imp. Económica.—Rentería",
Lexo'ren alaba Adelina'gandik jaso.

(1929)

ASUERO'RI GRAZIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'REN PARTETIK

- 1/ Ogeigarren sigluan
ogei ta beretziyan
gure ziudadia
dago gorantziyan;
sendagille onena
zein da probintziyan?
Don Fernando Asuero
nere iritziyan.

- 2/ Don Fernando Asuero'k
daukazkiyan famak,
zabaldutzera nua
al ditzakianak;
geiago ere badira
Donostiya'n onak,
ori eztu ukatzen
portatu diyonak.

3/ Ezagaturik nola
dan gizon abilla,
urte askuan orla
konserba dedilla;
beragana biltzen da
guzizko kuadrilla,
ezin juan litezke
obiaren billa.

4/ Begiko zañetatik
ortz eta agiñak,
sugur eta belarri,
eztarriko miñak,
urak ezin garbitu
dituen zikiñak;
nai gabe sortzen dira
orlako sumiñak.

5/ Ekusten duelako
rayos ekixetan,
estimaziyo asko
du aberetsetan;
pobriak ere eztitu
utzi nai lotsetan,
animua sartua
dauka biyotzetan.

6/ Paralisisek eta
reumak baldatuak,
asko ikusten dira
orrek moldatuak;
elbarriyak ziranak
gaitzak ondatuak,
esperantza galdu ta
gero sendatuak

7/ Batek epurditikan
duela ajia,
belaunetatik berriz
len gaizki lajia,
giltzetan okertua
gerriko ejia...
ark ere sendatzeko
badu korajia.

8/ Iru doblían oñez
zabillen artista,
ondo atera zaio
orko errebista;
milagrúa bezela
liteke txinista,
zuzentzen ari zaigu
Jose periodista.

- 9/ Kurtsaleko onduan
dakuan hotela,
orain denbora gutxi
ereki dutela;
gaxo asko biltzen da
nola dakitela,
oi logratu duena
eztago motela.
- 10/ Millaka gaxo daude
jaun orri begira,
gorputzari jartzeko
biar dan mugira;
orrenbeste naigabe
sendatzen badira,
munduan dan gizonik
onena ori da.
- 11/ Itxuak argitu ta
mutuak izketan,
birtute aundiko gauza
da nere ustetan;
lenago enbaliyuak
ziranak gaztetan,
ezin sendatu ziran
orrekin bestetan.

12/ Emeretzi urtian
zeguana mutu,
Cruz Roja'ra sartua
etzaio damutu;
itzegiñ-erazi ta
gañera sendatu,
bizi dan arterako
gizona salbatu.

13/ Zaragoza'kua da
enbaliyu ori,
oso ondo dijuan
itxura diruri;
biba ta obsekiyo
egin diyo ugari
bere erriko Ama
Pillarekuari.

14/ Oñazez beterikan
len ezin iraunak,
soseguz jarri dizte
beso ta belaunak;
neri esan diranez
inpormatu naunak,
azañak egin ditu
Don Fernando jaunak.

15/ Bañu ta indiziyo
daki korriente,
oraiñ Amerika'ra
eraman nai dute;
beti Euskal-errira
dauka borondate,
Donostiya'n aziya
dala mediante.

16/ Maiatzeko illaren
azken samarrian,
Korpus ta San Fernando
ogei ta amarrian,
omenaje berri bat
grazi ederrian
egin diyote jende
aundiyen aurrian. (1)

(1) Bertso-papera, "Imp. Macazaga.—Rentería",
Lexo'ren alaba Adelinagandik.

(1929)

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

- 1/ Asuero'n famak
bigarren aldiyan
erabaki nai ditut
izketa garbiyan;
guziyon gustokuak
eztira agiyan,
baño errespetatzen
saiatu nagiyan.

- 2/ Milla zortzi egun
larogei ta seian
Donostiya'n jaio zan
erri lasaian;
berrogei ta iru urte
dauka sasoian,
garbi ateratzen da
bere arrazoian. (1)

(1) 1886 urtean jaio bazan, eta bertso auek jar-
tzerakoan 43 urte bazituan, bertso-sail au 1929 ur-
tekoa da.

3/ Nola jayotetxiak
número tres duben,
irugarren bizitza
Café Miramar'en,
ori kolejiyora
gazterik juan arren
orain ezagutzen da
zer prueba dakarren.

4/ Orrek eskubarekin
duenik igurtzi,
len baño gaizkiyago
eztu iñor utzi;
gaitzak kendu dizkiyo
zenbait aberatsi,
pobriarentzat ere
kunplimentu gutxi.

5/ Sendagille onena
oraindik da ori,
dabilkiyen klasian
jakingo du nori;
gañera mesedia
egiten da ari,
errukitzen dalako
ezin dutenari.

6/ Konzientziya garbiya
dauka bere kontu,
egiten duben lana
zuzen eta juntu;
eztubanari eman,
dubenari artu,
badaki projimua
nola anparatu.

7/ Umoretik datozen
reuma perlesiyak,
biyotzeko saltua
eta min biziyak,
iñork ezin litzake
sendatu guziyak;
erabakiya dauka
goiko justiziyak.

8/ Neska txiki ta mutil,
gizon eta andre,
naigabia duena
kendu arte pobre;
miñistro, sazerdote,
markes eta konde,
danak aundiyaguan
eskuetan daude.

9/ Señora aberats bat
eztet izentatu,
baldatuba zeguan da
nai zuen sendatu;
saiatu zaio zenbait
mediku sonatu,
Donosti'kuak bestek
eztiyo sumatu.

10/ Trantzian dagonian
eztago afanaz,
gero konturatzen da
egizko esanaz;
señora kontentu da
egin zaion lanaz,
Dotor Asuero'ri
eskerrak emanaz.

11/ Zenbait fakultatibo,
abillak izanik,
orain arritzen dira
alkarri esanik:
«Marka oiek onduko
dituen gizonik
iñork etzeizkion
aterako zanik.»

12/ Prueba egin da andik
egun gutxirako,
orren mubimentuak
dira grazirako;
sudurretik txisme bat
lendabizirako,
sentiduba jartzen du
gorputz guztirako.

13/ Lan au estudiatzen
bederatzi urtian,
bere gisa jardun da
ikasi artian;
ezin sufritu asko
badira tartian,
alper alperrik daude
kolera fuertian.

14/ Bere palaziyora
edo jauregira
automobilla franko
inguratu dira;
iritxiko dirala
osasun aundira
esperantza geiena
duenak an dira.

15/ Jauregi eder baten
jabe dago ori,
paradisuan sartu
zutela diruri;
an ere aziertubak
egin ditu ugari,
zerbait erakutsiyaz
gaztiaguari.

16/ Sevilla'n diru asko
beretzat emana,
pobre beartsuenetan
partitu duana;
enpeñuz daramate
Aita Santuana,
kardenal batek dauka
sendatzeko lana.

17/ Orainguan Sevilla'n
okupatu dute,
milloiak eskeñiyaz
Erroma'ra arte;
gero Buenos Aires'era
omen daramate,
Argentina'tik badu
zerbait borondate.

18/ Estranjeriya pozik
ezpalu emango,
eginkizunik gabe
ez litzake juango;
beren familiakin
datorrela ondo,
ala desio diyot,
biba Don Fernando!

19/ Donostiya'tik baño
seme oberikan,
nundik ateratzen da
abillagorikan?
Cruz Roja'n senti badu
nobedaderikan,
etzaiola aztutzen
ango biderikan. (2)

(2) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Lexo'-
ren alaba Adelinagandik jaso.

(1929)

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Ogeigarrengo gizaldiyan,
ogei ta bederatziyan,
gure animak jarri ditzagun (1)
salbatzeko dezentziyan;
ardi galduak bezela gaude
iya salletik utziyan,
artzai berri bat agertu zaigu
euskaldunan probintziyan.

2/ Katak jartzia disponitu det
Aita Egin jaunari,
erretoretza Irun'gotikan
obispo egin danari;
gazte-gazterik jarraitu zion
kristandareko lanari,
Jaungoikuaren serbitzurako
bere bizitza onari.

(1) Bertso-paperean: *gure anima jarri gitzagun.*

- 3/ Jose Eginu bere jaiotzaz
degu Azkoitiya'kua,
jakindurizko semia eta
guraso onetakua;
Ama Elizaren esamiñetan
eztago nolanaikua,
Aita Santuak Erroma'tikan
baimena emandakua.
- 4/ Guraso zarrak jua zitzazkan
Jaungoikuaren glorira,
esan leiteke aiek daudela
izar tartetik begira;
semiak bere eskubiretik
badu zerbaiten mobira,
kristau guziyak salbatu nairik
alegiñean ari da.
- 5/ Ordezia'ko jesuitetan
bederatzi urte zeuzkala
lendabiziko sartu zanian,
etzan burutik makala;
ango maisuak, ezaguturik
gogo aundiya zeukala,
esan ziyoten: «Gure antzera
jarko baziñan ojala!»

6/ Ordezia'tik asiera ta
Santanderren apaiz egin,
umildadia erakutsiyaz
kalterik izan ezterin;
teolojiyak ikasi arte
ezertan eztu uts egin,
oraiñ guztiyak presente dauzka,
badaki nola itzegin.

7/ Ordenatu ta beriala zan
Itziar'ko kojutore,
Donostiya'ra ekarri zuten
an iru urte jota're;
San Bizenteko jendiarekin
enpliu artan dotore,
lau urte barru izendatua da
Irunako erretore.

8/ Amalau urte inguru ditu
parroku erretoretzat,
sermoietan ta konpesiyuan
pare gabia guretzat;
erri askotan ezagutua,
maitagarriya danantzat,
Gipuzkoa'tik pama aundiyak
agertu dira orrentzat.

9/ Irun'en bertan egin da zenbait
puntu ziyo gustagarrik,
sinistamentu asko gabiak
biurtu dira egizko;
beste gradurik izan baño len
nonbratu dute Obispo,
bere orde zko gelditu dana
maita dezagun berrizko.

10/ Eliz-puntu ziyo ederrak ziran
Ilbeltzaren amabian,
ze esanikan ez daguana
amairuan da ogeian;
iru obispok meza eman duten
Ebanjeliyon garaian
eztakit zenbat milla persona
apaindu diran doaian.

11/ Organua ta kantuarekin
meza nausi berriyan,
iru obispo oietatikan
Jose Eginu erdiyan;
goizian eta arratsaldian
justizi dana guardiyan;
ogei ta zazpigarren eguna
goguan dute erriyan.

- 12/ Erraztuna ta kordioarekin
dauka eskubiko eskua,
soñian berriz abitu fiña,
kariño egiazkua;
Ama Elizaren sari ederra
ain da karidarezkua,
eguzkiyaren drisdizariya
gurutze bat urrezkua.
- 13/ Oraindik badu irabaziya
beste merezimentua,
au da bienabenturaduatik
datorren luzimentua;
seireun aurri emana dauka
konprimaziyo santua,
aingeru-sallan izan dedilla
zerurako gertatua.
- 14/ Arzobispo ta kardenal jaunak
oso modu egokiyan
gustatu eta ipiñi dute
orain dagon parrokiyan;
nork begiratu paltarik eztu
lana egin duen tokiyan,
Itziarr'en ta Donostiy'ontan
Irun'en ta Azkoitiya'n.

15/ Len Santanderr'en apaiz egiña,
oraiñ obispoarako,
pama geiago badira baiño
uztera nua geroko;
egokiera duen denboran
jaio zan alderdirako,
Euskal-erriya bedeinkatzia
aztuta ezta jirako. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. Macazaga.—Rentería",
Lexo'ren alaba Adelinagandik jaso.

(1932)

URTE BERRIYAREN BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

- 1/ Urte berri asierako
zarraren errematia,
eginkizunik ederrena da
graziyan eramatia;
kristau fiela, izan zaiogun
alkarri borondatia,
garbitasunak irikitzen du
karidadeko atia,
bide onian sartu gaitezen
nai bada zuzen juatia.

- 2/ Jesus Belen'en jaio zanetik
asi ta onera arte,
kunplitu dira milla bederatzi eun
da ogei ta amabi urte;
geroztik onuntz sortu geranak
zer egin jarri digute,
bizi-lekurik aberatsena
zergatik dagoen arlote,
naiago nuke ez dakitenak
sinistatuko balute.

- 3/ Parte oneko asko dabilta
 gaiztuarekin nastuta,
 aurreko zarrak erakutsiya
 zertarako dan aztuta,
 alaitasuna zuten begiyak (1)
 illundu edo beztuta,
 dakiyenari burla egiñez
 orgulloz aberastuta;
 bukatzen ere ez da erreza
 orain dabillen disputa.
- 4/ Erreparuan jarri zaitezte,
 adiskide ezagunak,
 sazerdote ta parientiak,
 señide eta lagunak;
 orañ artian alkarren kontra
 pasa ditugun egunak,
 beste aldera jartzia nai du
 Amaren biyotz bigunak,
 aren esana egin dezagun
 euskera maite degunak.
- 5/ Zazpi semiak zuten baratza
 naspillatuba loretan,
 lenago bitan zegon arrosa
 orain iru koloretan;
 katolikuak, adi zazute
 ondo zer esaten detan:
 arrazoyian sartu giñazke (2))
 makiña bat legetan,
 gezurtiyaren laguntzaliak
 ez balirake guetan.

(1) Bertso-paperean: *alaitasunak*.

(2) Bertso-paperean: *giñuzke*.

- 6/ Nun dira lengo Euskal-erriko
oitura eta gauza onak?
pake santuan bizitzen ziran
garai artako gizonak;
beste sujeto batzuetatik
gero datozkigun sonak,
indartu dira lujuriya ta
lasaikerizko esanak,
engañiyua besterik ez du
bi arpegiko personak.
- 7/ Projimuantzat zabaldu biar
luteken atiak isten,
Jainkuak daki esku-bidia
zergatik ematen dizten;
pariziyuak beti dabilta
umillari suba pizten,
jakintsuaren talentuetâ
nola ez diran iristen,
beste munduko ekuskizunik
berak eztute sinisten.
- 8/ Pekatariya ez det esaten
pekatubak esan arren,
ezin atera degun arantza
daukagu len bezin barren;
Adan da Ebaren aldetik gera
parientiak alkarren,
bataiatubak geran meriyoz
biagu zerbait aitormen,
esker gabeko aunditasunak (3)
begiratu zer dakarren.

(3) Bertso-paperean: *aunditasuna*

- 9/ Gorputzarentzat biarrak dira
erariya ta jatenak,
lanak ere bai neurri onian
ematen dizkigutenak;
bestela ezin konpondu gera
izanik jabe batenak,
asko badira Ongilliaren
kontrariyuak ertenak,
parte onaren izenekuak,
gaiztua maite dutenak.
- 10/ Sentimentuba duen biyotza
egin liteke bi erdi,
ikusirikan kulpa gabia
galtze aña alderdi; (*sic*)
asko nai degun adiskidiak
itz egiñagatik garbi,
kontrariyua datorrenian
ari bi kandelaz argi,
uniyo txarra daukagulako
pasa da zenbait pikardi.
- 11/ Ai, mundu ontan lotsa gaiztotik
ordena txarrak badatoz,
bildur dirala batzuek eta
beste batzuek gorrotoz;
milla serbitzu ditubenari
paltatzen zaio bi botoz,
Jaunak eskutik utzi bazaitu
etsaiak nigana datoz,
Barrabas libre nai zutelako
kondenatu zan Pilatos.

12/ Aren antzeko gizona pranko
gaur mantentzen du ogiyak,
pariziyuak defenditzeko
desio aundiyagiyak;
konzientziya naspillatua
gezurrak eta egiyak,
justizi onik ezin egin du
entendimentu nagiyak,
esperentziya ugari daude
zabaldutzeko begiyak.

13/ Itxasua, begiya eta euskera
iru gauza diferente,
biar bezela tratatzekotan
alkarren antza badute:
zikintasuna baztarretara,
garbiyarekin amante,
estadu ori ezaguturik
bada makiña bat urte,
oraindik ala segitu balu
ez gendun izango kalte.

14/ Talde berriya datorrenian
erliak zer egiten du?
txarrena dana lenbailen ill ta
kanpora eramaten du;
personak ere arrazoizkua
tranparik gabe jaten du,
ezin dubenari lagundu eta
alperrak diranak kendu,
modu ontara ez al giñezke
obetoago mantendu?

15/ Asieratik esan dedana
dijua erremateko,
zer egitia komeni zaigun
goguan eramateko:
lotsagabiak mendian artu
lana egiñez jateko,
talentuzkuak agintzen jarri
ta iñork ez luke kalteko,
bi gauza oiek biar ditugu
bire onian juateko. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. Macazaga.—Rentería",
Juanito Zabaleta bertsolariaren alarguna dan Moni-
ka Galarraga'gandik jaso.

(1932)

BERTSO BERRIYAK

JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Milla bederatzi eun da
ogei ta amabiyen,
arkitzen gera ondorenguk
galtzeko zoriyan;
obe degu serbitu
lengo istoriyan,
euskaldunaren lege jatorra
galdu ez deriyan.

2/ Gure aitan aitonak
ziran gurasuak,
amonan amak biyotz oneko
amoriyosuak,
orain zeruan dauden
anima gozuak,
penatzen egin zituztelako (1)
munduko pausuak.

(1) Bertso-paperean *penaren* dago; moldiztegiaren utsegiñen bat izango dalakoan, *penatzen* jarri degu.

3/ Neketan eta pobre
 lenago bizirik,
ill ziranian ze ejemplo onak
 guretzat utzirik!
 ezpadegu sinisten
 oien gurutzerik,
ez daukagu kristandaria
 garbi ekusirik.

4/ Oraingo mundutarrak
 milloika dabiltza,
ukatzen dute Jesukristoren
 Pasiyoko itza,
 naziyo geienetan
 kutsatu den gaitza,
gurian ere gaienduko dan
 bildurrak gabiltza.

5/ Ama Eliza Santaren
 fediaren kontra
erreinu ontan leziyo txarra
 nai digute bota;
 jakinduri asko ta
 bearrena palta:
esaten dute ezer eztala
 mundutikan juanta.

- 6/ Erakusten ai dira
gaztiak diranai
matrimoniyo ezkondu gabe
izateko ernai;
entierruak kenduta
bataiua're bai,
aberiaren antza besterik
ez dute jarri nai.
- 7/ Idoluak dabilta
salsa ta enbusteri,
berak dituzten tatxa gaiztuak
botatzen besteri;
artikulo eskasa
or zenbait gazteri,
begira inozentiaren billa
dabilten askori.
- 8/ KREDUAREN ENTRAÑAK
ez daude lasaiak,
nola dabilta konbentuetan
lengo buruzaiak?
justuarentzat ere
badaude etsaiak,
kulpa gabiak zaitu ditzala
Erroma'ko artzaiak.

- 9/ Txaketa-murantiak
daukaten grandeza,
bire gaiztotik irabaziyaz
zerbait interesa;
pobre askorentzako
jornalikan eza,
bakoitzak bere konzientziya
esamiña beza.
- 10/ Kanpo askoko lurra
ikuitu gabiak,
langilliari utzi nai ez ta
dauzkate jabiak;
logratuko omen du
bandera moriak,
esperantzetan bizi gaitezen,
adiskide neriak.
- 11/ Nork bere izerditik
sortzia jatena,
ezin duena sostenituaz
egin litekena;
umildu bear degu
jabe on batena,
ejenplu au da gure asabak
utzi zigutena.

12/ Ni naiz katoliko bat
aspaldi piztua,
iñorentzako etzait gustatzen
dotriña gaiztua;
aingeru gardienan
kariño listua,
anparatzalle onena dala
nago sinistua.

13/ Aurrak errespetuan
nai ditugu azi,
parte gaiztuak engañatuta
ez diran erosi,
zerurako birian
giyatu lenbizi;
pariziyuari kontra egiñaz
obe degu bizi.

14/ Gutxi gerala baño
euskaldunak fuerte,
saia gaitezen lege garbiyak
ezagutu arte;
Jaungoikuak badauka
zerbait borondate,
bere aldeko mandamentuak
nai baitugu bete. (2)

(2) Bertso-papera, "Imp. Macazaga.—Rentería",
Lexo'ren alaba Adelina'gandik jaso.

"Bertsolariya" bertso-errebista, 44'gn. zenb., 1932/
VII/17.

(1932)

«KANTAK JARTZEN NAIZ ABIYAN...»

1/ Kantak jartzen naiz abiyán
gezurrik gabe egiyan
garbi agertu nariyan;
ogei ta amabigarren urtian
ogeigarren gizaldiyan,
juan daneko aspaldiyan
gu gaude pake aundiyan
Donostiya'ko uriyan.

2/ Espirituzko usua,
bizi-leku erosua,
askorentzako gozua;
egvak txabal eta burua
gatzeluraño jasua,
konparaziyo osua,
danantzat badu plazua,
ain da amoriyosua.

- 3/ Egunez garbitasuna,
gabian argitasuna,
beti ekusten zaizuna;
makiña batei luzatu zaió
biziya ta osasuna,
aberatsari entzuna,
bada zeñek erantzuna,
auxen da edertasuna.
- 4/ Degun izkera zarrían
nai genduke indarrian
Iru-txuloko lurrian;
nola bentaja aundiyak dauzkan
itxasoz ta legorrian,
utzi gabe bazterrian
lengo lege jatorrian
begira nola jarri'an.
- 5/ Eskola ta jakinduri
erakusten dira ari
zenbait amaren umeri;
errespetua guardatuaz
agintzen duten jaunari,
zintzo segitu lanari,
eroso datorrenari,
barka zaiogun onari.

6/ Zenbaitek lanik ezpadu,
ematen zaio kostadu,
desgustu ori basta du;
bañan zeozer zuzenduko da,
gizon argiyak dauzkagu;
bakoitzak bere estadu
txarkeritikan eztegu,
bizirik artxek gauzkagu.

7/ Baserri-nekazaliak
izan dituzten peliak (1)
baitare arrantzaliak;
oietatikan etortzen bada (2)
mantentzen gaitu kaliak;
lenago dagon aliak
ugari ditu jaliak,
guziyak gera zaliak.

8/ Kanpotik datoz beltzenak,
kurajerikan latzenak,
luzatutzera motzenak;
usai gozua aritzen dute
baten ondoren dozenak;
bañon eztira zuzenak
kristandarian izenak
ondatzera datozenak.

(1) Eskuz-idatzian: *izandu*.

(2) Eskuz-idatzian: *oietaticaren*.

- 9/ Euskera kristandarian
zeguen modo obian
gazte denbora gurian,
gure aitonak eta amonak
agintzen zuten legian;
gurutziaren parian
txapel erantzi birian
paltatu gabe fedian.
- 10/ Igualdarian eske
zabiltzatenak jai eta aste
nozpait kontura zaitezte:
desperdintasun aundiyanian
zeurek billatzen zaituzte;
parte gaiztuakin naste,
irabazten dala uste,
engañatuak zerazte.
- 11/ Bere erriya onena
dala esaten duena,
zertara dator gurenâ?
alegiñian naspillatzera
lenago ondo dauena?
muturra sartu aurrena
besterenian barrena,
zein piyätzen da orrena?

- 12/ Beren lurretik igesi
an ezin diranak bizi,
badute pranko malizi;
ze kulpa degu egin geranak
emen jayo eta azi?
oietakuak nagusi
jartzen badira lenbizi,
ez gaituzte nai ekusi.
- 13/ Eskubiriari eldu,
ta ezin badira igualdu,
berak daukate ze galdu;
jende prestua maite dezagun,
lotsagabiak bialdu,
al dan urrutina saldu,
arrokeriyak itzaldtu,
nai badegu ondo azaldu.
- 14/ Arrantzaliak begira,
zuentzat zuen mugira,
enator enbusterira;
ureko berri eztakitenak
igeri asten badira,
juan bañan len istorira,
geienak galduko dira,
kaltegarriya ori da.

15/ Uelga-kontua nundik-ta? (3)
danak ezautzen ongi ta
askorentzako enbita;
nekatzen danak jornal aundiya
kostu geiago eginta,
pamilirako ezinta,
gauz ori dakiyena aita,
zerbait probatua baita.

16/ Kezka gaiztuak kenduta
jarri gaitezen onduta,
erriyak merezi du-ta;
egunen batez lege garbiyak
geiago naiko digu-ta,
erespetoz konponduta
obia degu konduta,
lenago ezta galduta.

17/ Ura-partian preskatzen
Donostiya da prestatzen
garbitasuna juzkatzen;
Europa'n dauden aberatsenak
ai dira manipestatzen,
naiz diru asko kastatzen
danari auxen gustatzen,
zeñei etzayo kostatzen?

(3) nundik-ta=nundik da.

18/ Biba gure Donostiya
paketsua ta eztiya,
kariñosua guztiya;
Noeren arkan berinkatuta
lonbratu zan eraztiya,
borondatezko askiya,
euskaldunaren jaizkiya,
eztu merezi gaizkiya. (4)

(4) Lexo'ren alaba Adelina'k emandako eskuz-
-idatzi batetik.

(1933)

BERTSO BERRIYAK

1/ Ogei ta amairugarren urtian,
ogeigarren gizaldiyan,
Jangoikuaren aserre on bat
degu ezin itzaliyan;
Noeren arka bezela guaz
iya-iya irauliyan,
orrenbesteko denboralerik
ezta izan Kantabriya'n,
juan daneko aspaldiyan.

2/ Garagarraren amabotsian
Corpus Christi arratsian
amarretatik goiz arteraño
giñan istillo latzian;
orakana bat lertu danian
gertatu gera trantzian,
makiña batei atsekaberik
jarri zaio biyotzian,
gauz ori gogoratzian.

- 3/ Urruti gabe izan omen da
lur-ikara eta arriya,
azken juiziyo balitz bezela
ura jendian larriya!
Uste gabeko euri-kolpia
nola zegon etorriya,
biyamoneko amabiyetan
pasa zan lengo neurriya,
uralde izugarriya.
- 4/ Zenbait egazti, zerri eta bei
ondu da orainguan,
etxian berriz bietatikan
kasikan iya galduan;
mendiyetik datozen urak,
ibaiak diran onduan
Jangoikuak daki inguru ontan
zenbat kalte egin duan,
errukitzeko moduan.
- 5/ Antigua'ko zerbezeriko
onduan zan komeriya,
salbatu dira kristabak bañan
deskuidatu ziran iya;
eskarrik asko txalupa zala
nunbaitetik bialiya;
telltutikan laguntza eske
gertatu dan pameliya,
ezta ondo ibiliya.

6/ Dantzatu dira txalupak eta
dantzatu dira batelak,
orduko urak artuak beko
sukaldiak eta gelak;
bodegetako mobimentuak
etziran noski motelak,
ustuta zeuden barrikak eta
beteta zauden kupelak
artu dituzte epelak.

7/ Denborali au asi zanian
Turkiya'n eta Rusiya'n,
ango jauntxuak omen zabiltzan
iya burutik nasiyan;
Españiya'ra iritxi dana
lenbizi Andaluziya'n;
illuntasun au zabaldu zaigu
trumonada itxusiyan
kasikan mundu guziyan.

8/ Ordubetian amabost millai
metro isatseko manga,
Kantabria'rik etzan agortu
ainbeste ur eramanda;
Norte aldetik dagon putzua
ustutzer a nora jua da?
Araba'tikan Bizkaia'raño,
gero Gipuzkua'n txanda,
gogongarriya izan da.

- 9/ Azienda asko ito dirala
Usurbill'an naute esan,
faurriketako kaltiak berriz
Anduañ'en ta Tolosa'n;
auetan baño aundiyagua
Errenteriya'n nola zan,
iru metrotik gorako urak
kalietan eta plazan,
orduan naiko lan bazan.
- 10/ Garagarraren amalautikan
amazazpi bitartian,
naigabe asko izandua da
nekazalian artian;
kristandareko jakintsuenak
dauzkigu borondatian,
oien bearra izaten degu
bizi geran lur maitian,
garbiyak izan gaitian.
- 11/ Arrotasuna umiltzen dala
birtutiaren indarrez,
aiskire batek esaten digu
guretzat ondo bearrez;
etorkizuna zertaraño dan
iñork ezta kigu aurrez,
interesetan sendo daurenak
batzuek daure negarrez,
itxasoz eta legorrez.

- 12/ Jainkuak bestek eztiyo artu
neurrik orainguari,
astrolomuak estudiatzen
geroztik daure ugari;
lengo bakarria bezelakorik
emen etzaigu ageri,
gogoratzian aita-gure bat
errezatzen diyot ari:
dipunto Orkulaga'ri.
- 13/ Mendiyetako lur-erekiyak
goitik beraño jausiyak,
larrutu dira sekañak eta
ibai ondoko sasiyak;
erriberetan diran kosetxak
loi-pian sartuta utziyak,
paeta zarrak uraturikan
zubi galantak ausiyak,
ezagun dira guziyak.
- 14/ Baserri asko, zekor da asto,
beiak urak eramanak,
beste orlako bat eztegu ekusi
eun urtian bizi danak;
erremeiatu al balitezke
paltan gertatu diranak,
karidaria egin dezagun
borondatia duanak,
ero al dezakianak.

15/ Gogoratzten zait Errenteri'ko
langille batek esana:
Baliyorikan geienekua
izandu degu gauz ona:
gau illunian gertatu balitz
egunez gertatu zana,
txiki ta aundi paltatuko zan
makiñatxo bat persona,
bestela salbatu zana. (1)

(1) Lexo'ren etxean arkitutako eskuz-idatzi bate-
tik artuak

(1933)

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Milla betzireun da ogei t'amairuan
ogei ta iru Urrillak,
uraldiakin izandu dira
kalte ikaragarriyak;
urte santuak eman dizkigu
aurten ixtillu gorriyak,
lenguen markak pasa dizkigu
urakanaren neurriyak,
ondatau dira erriyak.

2/ Itxasotikan segitzen manga
etzan txantxetan asiya,
Garagarraren erdi ezker
zebillen trumoi nasiya;
kulpa gabeko makiña bati
laburtu zaio biziya,
oraingo ontan Errenteriya'n
gertatu dan desgraziya
gogoangarriya guziya.

- 3/ Lengo kaltian suskriziyoa
orain ari ziran kobratzen,
ustez seguro zeudelakoan
al dezatena logratzen;
aundiyagoa zetorrenikan
etziranak akordatzen,
azkenerako galdu gordian
beren buruak salbatzen,
danak etziran libratzen.
- 4/ Estaziyoko papeleratik
Pasaia'ra bitartian
alperrik galdu diran milloiak
ez dakigu zenbat-tian; (1)
piñuak eta aideko gauzak
kanale dana betian,
zabaldu eta Bayona'raño
juan dira korrientian,
langillientzat kaltian.
- 5/ Iru metro eta erdiko urak
iritxi ziran bostera,
dilubiyua gora zetorren
ordu batetik bestera;
amar t'erdiyak ingurua zan
asi zanean jextera,
gau illunian argirik gabe
bildurra berriz osterá;
zein urrikaltzen ez gera?

(1) zenbat tian = zenbat diran.

6/ Nunbait ez gera eskarmentatzen
iritxi arte ordura,
lasaienai're etortzen zaio
ajola edo ardura;
ospitaleko gaxuakgatik
norbaiti zaio burura,
al dan lenena jaso dituzte
telltuan ingurura,
posible zuten modura.

7/ Donostiya'ko bonberu oiek
inguratu ziranian,
bertan ziranak dudarik gabe
lanak artuak mendian;
amak negarrez ta ume gaxuak
ezin billatu nun dian, (2)
errukituta goienetara
eramanak aidanian,
al zan modu onenian.

8/ Antigua'ko klinikan daude
ogei ta amar neska txiki,
emengo monjan giyatzalliak
laguntzen diye ederki;
garbitasunez kontentu dira,
ez dute milla aitzaki,
al daneko relijiyosak
ain biyotz ona izaki,
begiratzeko goxoki.

(2) Bertso-paperean: *diran*.

- 9/ Erriyuaren aldamenian
Oyartzun'go baserriyan,
kosetxak eta lurrak eraman
ditu ixtillu gorriyan;
ajola aundiya zaionen batek
esan du Euskal-erriyan
begiratu bear aundiya dala
Irun eta Ondarrabiya'n,
geiena Errenderiya'n.
- 10/ Basseri baten pentsu, ikatzak,
egaztiyak eta danak,
ate batetik sartuak eta
bestetik eramana;
sagar-pilla bat munto ta guzi
bixtatik galdu diranak,
berriz laguntza egin dezake
borondatia duanak,
edo al dezakeanak. (3)
- 11/ Gaztañan-goiko etxe-jabia
Inazio Otaegi,
justu-justuan bizi danantzat
ark ere kalte geiegi;
esan lezake ondasun asko
utzi diyola urari,
berriz datorren suskriziyotik
baliatu al baledi,
premiyan dala diruri.

(3) Bertso-paperean: *dezakenak*.

12/ Garagarraren asieratik
Urriyan azken artian,
Erregerikan aberatsena
asarretu da kortian;
eskerrik asko jakintsuenak
daudela borondatian,
projimuari begiratuaz
bizi geran lur maitian,
garbiyak izan gaitian. (4)

(4) "Argia", 1933'ngo. Abenduaren 21.

(1934)

«OGEI TA AMALAU GARREN URTIAN...»

1/ Ogei ta amalaugarren urtian
ogeigarrengo sigluan,
artikulo bat irakurri det
testamentuko libruan;
jaberik maitienak,
gu egin gaituenak,
bizitzeko peligruan,
jakintsunaren edertasuna
galdu lezake beinguan.

2/ Urteberriko lur-ikarari
jartzera nua bertsuak,
begira nola beldurtzen duen
indar aundiko pultsuak;
moru artako lanik
egin lezakianik
Jaungoikuaren zentzuak,
aitortu gabe bizi diranak
badira kristau batzuak.

3/ Urte santua bukatu eta
berriya sartu danian,
amets gaiztuan esnatu nitzan
goizeko bostak aldian;
istillu ori zer zan, (1)
ero zer pasatzen zan,
aldamenetik galdian,
gure orduko mobimentuak
eztakit nora jua dian.

4/ Gogongarrizko asiera zan
aurten urte berriyetan,
urrutikorik eztakit baño
emen euskal erriyetan;
Bizkaian ere gaizki
ibilli dira noski
kalian ta mendiyetan;
ez al liteke zerbait sinistu
orlako mirariyetan?

5/ Zazpi illabete t'erdiz aurretik
bazan beste lur-ikara,
nekazaliak ondatzeraño
gañetikan arrikara;
aizezko orakanak,
ualde eta danak
botatzeko norbait bada;
gogor egiten asten bagera,
alperrikako jokara.

(1) Eskuz-idatzian: *istiyu*.

- 6/ Zertatik dira lur-erekiyak,
ikarak eta etenak?
anbat goguan izango dute
lenago eztakitenak;
senire ta lagunak,
maite bear degunak,
alkarri ematen penak;
nola ez gera obetuago
konpontzen Jabe batenak?
- 7/ Badegu beste izketa txar bat
ilbandu gabe josiya,
erderatikan naspillatua,
euskaldunak ikasiya;
naitasunak atzendu,
gañera ekartzen du
seta gaiztoko auziya;
obe genduke konjuratuta
balego galeraziya.
- 8/ Diaurro zarra borroka dabill
bazter guziya puskatzen,
noiz arteraño gallenduko dan
ezta erraza juzkatzen;
gizonik zintzuenak
eta jakintsuenak
asiyagatik asmatzen,
batek bakarrak bestek eztaki
kuapillu au askatzen.

- 9/ Gogongarriyak arrats bateko
izarraren ibillerak,
gero trumoia formatu zuen
oreia beltzan billerak;
errezelua kendu
aitortuko bagendu
eztatozela naierak;
arkaitzak ere urratzen ditu
egin zituenak Berak.
- 10/ Beste aldera mintzatzen dira
amaika gure antzeko,
itxurarikan eztaukatenak
ezagututa ontzeko;
zenbait ajolagabe
desapiyoka daure
kristandaria galtzeko;
aundiyagua aserratzen da
mundua dardairatzeko.
- 11/ Juan dan urteko atsekabia
eztakigu nola neurtu,
ontasun asko galdu zituen,
gañera mendiyak lertu;
milagruak dirala
ero kastiguz dala
sinistamentua nor-tu? (2)
okerragua ekusi gabe
obe genduke bildurtu.

(2) nor-tu=nork du.

12/ Bi lur-ikara nola izan diran
zortzi illabetez onoztik,
iruripena sartua dauka
Bilbao'k eta Donosti'k;
esperentziya pranko
jarri dituztelako
aideko zenbait egaztik,
astrolomuak estudiatzen
ari zaizkigu geroztik.

13/ Birtutiaren indar aundiko
lurraren dardarizuak,
Jabiarentzat ariñak dira,
guretzat berriz pisuak;
norbaitek nai gaitu gu,
sopritzen baditugu
samiñak eta izuak;
nai duanian gozatzen ditu
Espirituzko usuak. (3)

(3) Lexoren alaba Adelina'k emandako eskuz-ida-
tzi batetik.

(1935)

BERTSOLARI-EGUNEAN

1935'garren urteko Ilbeltzaren 20'an, San Sebastian egunarekin, Lenengo Bertsolari-eguna ospatu zan Donostia'n. Egun artan kantatu zuten bertsolarietatik bat, Lexo izan zan.

Denborarekin, txapelketa ontako zenbait bertsorekin, eta urrengo urteko txapelketan kantatu ziranakin, liburu bat agertu zan, «Bertsolari-guduak» izenburua zuana.

Lexok kantatu zituanetatik, bi besterik ez dauzka, ta oiek puntuan botiak:

**Zeñentzat izango da
gaurkoan saria?**

**Irabazten duenak
zeruan gloria,
zuri erantzun eta
ara esan egia:
oraindik ez da galdu
nere memoria.**

**Au da lanbide zaila
gaurko au nerea!**

**Ondo neurtu lezake
bakoitzak berea,
ezkurturikan dago
neretzat legea,
sasoirikan onena
joana da nerea.**

(1935)

«ORAINGO GIZALDIYAN...»

1/ Oraingo gizaldiyan
ogeigarrenguan
zerbait bagenduan
ogei eta amabost-
garren abenduan;
alkar maite bagendu
kariño senduan,
ez giñake ibilko
ezin konponduan;
ardi galduan gisa
gabiltza munduan.

2/ Kristandare garbiyan
danari kabitzen
zer zayo aritzen?
«Bizi geran artian
egiyaz gabiltzen,
gure berdintasuna
jaiotzen ta iltzen,
justuen erregia
dagola agintzen;
aren kontran ez gera
obeto ibiltzen.»

3/ Berrogei urtez onuntz
makiña bat tratu
egin zaigu sortu,
erdiyak kalterako
ditugula kontu;
bestelako etsaiak
agintzeko artu,
aiek Euskalerrian
aurreragi sartu,
gure kontzientziyak
badu nondik neurtu.

4/ Zenbait persona-klase
zaigu añaditu
ta aiei obeditu,
norbere etxietan
geiegi al ditu?
orduak gutxitu ta
jornalak aunditu,
orduan giñalako
kontentu gelditu,
geroztikako petxak
lanak eman ditu.

5/ Kontari omen daude
zenbait gizon kortes,
abillanak ustez,
jende geiegi dela
munduban ekustez;
gerra ero kolera
bear dala nai t'ez,
ori esaten dubenak
diruaren maitez,
apostu eztuela
il nai borondatez.

6/ Jornal onak daurela
askok esaten du,
uste izaten du,
jantziya ta errentak
zer eramaten du?
lakari bana urre
astian bagendu,
aren lautatik iru
deretxotan kendu,
gañerakuarekin
ezin da mantendu.

7/ Nekazalian kontra
dabiltzanak aurrez
burla egin bearrez,
ustez portatu ziran
aziyo ederrez;
bazter guziyak bete
biziyo z ta zorrez,
Jangoikuaz aztuta
munduari parrez;
gaiztuarekin eztek
azertatzen errez!

8/ Beste batzuek berriz
Elizatik Duke
egin ziran merke,
itz legunak esanez
inbusteri truke;
esku batekin eman
petxuari kolpe,
bestearekin tira
zerbait balegoke,
alakorik ezpalitz
obia genduke!

9/ Iruña'ko elizan
pasa dana aurten,
zaio antza ematen;
sujeto bat zebillen
sartu eta erten,
ango dirubak eta
gauzak eramaten,
dagon tokitik etzan
ezer gabe juaten;
ezagutu artian
kosta zitzaioten.

10/ Estranjeriko batek
orrenbeste kemen
izatia emen,
umilla zalakuan
gustatuta zeuden;
bertako ministruak
asko jakiñ arren
diaurrua sartu zan
berak bezin barren;
geiegi piyatziak
ara zer dakarren.

11/ Imintziyua franko
bazuen arako
ainbeste palako,
engañatuta zeuden
obia zalako;
Jainkuak daki zenbat
... bezelako, (1)
ez ni Elizarentzat
kontra naizelako,
baizik pariziyuak
dijuazelako.

(1) Papera puskatua dago emen.

12/ Gogoraziyo txarra
zeukan ark mezetan
erdi ametsetan,
komuniyua artzera
joten zen goizetan;
konpesiyo onaren
kontrako gauzetan
alperrik ibilko da
teman ero setan,
len aña enganiyo
eztu apaizetan.

13/ Adelantutik dala
askoren bajeza,
jornalikan eza,
biziyotikan berriz
bire aldrebesa;
alperrak bestengandik
nai du interesa,
piñaren izerdiya
zupatzeko presa;
langille beartsuak
begiratu beza.

14/ Santuaren itxuran
parte gaiztokuak,
orden estukuak,
mendekuari senper
erakustekuak;
iñor engañatu arte
oso gustokuak,
gero ezagun dira
aundi kastakuak;
oik eztira zerua
irabaztekuak.

15/ Gure bizi-bearra
batzuentzat luze,
igar edo eze,
Luziperren lagunak
beti daure gose;
irurogei ta amabi
erlijiyo klase,
danetan paltatzen da,
jakindu det auxe;
alare interesaz
iñor ezin ase.

16/ Kometak giyaten du
izarran mubira
mundura begira,
Tubarren artaldian
banatzen ari da;
mantentzeko soruak
oraindik badira,
nor bere salletara
bilduko balira;
artzai onak eraman
gaitzala perira. (2)

(2) Lexo'ren alaba Adelina'k emandako eskuz-
-idatzi batetik.

(1935)

«MILLA BERETZIREUN DA...»

Bertso auek, Orio'ko txalupa urez bete ta ondora joan zaneakoak dira.

Estropada ontaz jarritako beste bi bertso-aldi *Auspoa*'ren 58'garren alean arkituko ditu irakurleak, 60'garren orri-alde-tik asita.

- 1/ Milla beretzireun da
ogei ta amabostian
estropada ederrak
ziran nere ustian;
San Pedro portatu da
danak ainbestian,
premiyorik geiena
ark irabaztian,
Donostiya'n ez gaude
itxura tristian.

- 2/ Agorraren zortziya
goguangarriya,
urteero bezela
bireko neurriya;
Sestao ta San Pedro
ta Ondarrabiya,
asieratik au da
ondo etorriya,
beste iruak zuten
istillu gorriya.
- 3/ Ondarrabi-Marina,
Donostiya ta Oriyo,
oriek olatua
zuten kontrariyo;
atzeko biyek zuten
naiko istoriyo,
urez bete ziran ta
ezta misterio,
suerte txarra izan
dutela meriyo.
- 4/ Atzekuak etziran
balizetan justu,
aruntzian ta (1)
onuntzian estu;
jotzen bazuten ere
baporiak txistu,
ontziyak puskatuak
ezin ziran piztu,
trabesa asko galdu da,
nai dunak sinistu.

(1) Papera puskatua dago, ta ezin irakurri da.

5/ Pasa biar zirala
bestiaren markak,
lasai esaten zuten
jasorikan maukak;
itsaso legunian
guztizko galopak,
aserratzen danian
zeñek ditu kulpak?
papera dirurite
orlako txalopak.

6/ Bigarren ensaiua
urrungo iganderako,
aurretik ziren biyek
ziran banderako;
amaika t'erdiyetan
pronto lanerako,
itsasua zakartu
lau egunerako,
gero prestatu ziran
ostegunerako.

7/ Ostegunian ere
trabesak ugari,
zazpigarren txalopa
zitzaigun ageri;
ekusiyagatikan
iru Ondarrabi,
gure artian etzan
ainbeste errabi,
oien garbitasuna
gustatu zait neri.

- 8/ Azkeneko estropadan
emeretzi illak,
konpletatu dituzte
beren iru millak;
errespeto aundiyan
sartu dan kuadrillak,
gaztiak diralarik
prestu ta umillak,
nonai presentatzeko
oik dira mutillak!
- 9/ Iru tripulaziyo
iruak bigarren,
esateko moruban
onenaren urren;
Oriyo'k indarraren
pama izan arren,
Donostiya'n eztago
uste bezin barren,
esperantza geiegik
ara zer dakarren.
- 10/ Manuel Arrillaga,
gizon arituba,
itsasoko lanetan
asko korrituba;
zartuta're ezin zaio
galdu kredituba,
seme ta illobarekin
orren merituba,
nola osatzen diran
nago arrituba.

11/ Sei urte segituan
ditu sei bandera,
aurten allegatu da
zazpigarrenera;
urte asko dubenak
sasoia gain-bera,
bista ere laburtu
zaio erarera,
gaztiak gertu daure
orren esanera. (2)

(2) Lexo'ren alaba Adelina'k emandako eskuz-
-idatzietatik artutako bertsoak.

(1935)

GORPUTZ ONAREN BERTSUAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Milla ta bederatzireun da
ogei ta amabosta,
osatzen badegu ere
bear zaigu kosta;
prestuan naitasuna
jakin gabe motz-ta, (1)
eginkizun aundiyak
ondoren datoz ta.

2/ Zerbait gogoraziyo
aurtenguan bazan,
sartu litekiena
Udarregin bozan;
aren testamentua
askok jakin dezan,
euskaldun guziyari
biar zaio esan.

(1) motz-ta=motz da.

3/ Zortzireun da larogei
urterekin milla,
ta amaseigarrenan
izango zan illa;
gorputza enterratu
zuten Usurbill'a,
zerutarrak zebiltzan
animaren billa.

4/ Au zan bertsolariya
sortu dan onena,
Pastor Izubelaren
antzekua dena;
jenioz etzalako
gaizto nabarmena,
zazpi probintziyetan
badu aitormena.

5/ Gizon estimatua
erri askotatik,
Donostiya'n ere bai
euskal festetatik;
ori etortzen bazan
Mendizorrotz betik,
letraduak etzuten
alako izketik.

6/ Oñordiak geranak
nai degu euskera,
erdiyak aintzakotzat
ez duten izkera;
zitalkeriya jira
zagun goikoz bera,
orgulloz apainduta
obiak ez gera.

7/ Usurbil'ko semia
Alkain Udarregi,
suerte guzietan
etzan ederregi;
munduban zabaldu du
makiña bat egi,
aren arrazoyian
nai badegu segi.

8/ Gaztetan Udarregi'n,
gero Urkamendi'n,
biyetatik San Martin
egin zuen berdin;
iñori peatziak
ematen ziyon min,
luzaro bizitu zan
Artikula-aundi'n.

- 9/ Udaran betizuak
artu mendiz-mendi,
Aralarr'a juten zan
egin gabe aundi;
errenditu zan arte
gaxo ero mangi,
orren irabaziya
etxerako ongi.
- 10/ Pamili-gizon ona
izanagatika,
gaitza sartu zitzaion
biriketatika;
batetik medikua,
bestetik botika,
gonbertituta juan zan
mundu ontatika.
- 11/ Gazte bat Usurbill'an
orduko apaiza,
Artikula biria
bazekiyen aixa;
gelara sartu eta
etzan apendizaga,
Espiritu Santuaren
uxuaren gisa.

12/ Gaxua au ikusi
zuben garayian,
piska bat exerita
jarri zan oyian;
petxotik nekatua
itzegin nayian,
bañon lagundu ziyon
al zuen gayian.

13/ Aitonak errezatzen
ziyonian ekin,
zeozer bertutia
bazeon arekin;
eskolarikan ez ta
berak aña jakin,
apaiza arritu zan
ordukuarekin.

14/ Beñ baño geiagotan
konpesiyo ona
eta elizakuak
ziran beregana;
Eukaristi Santua
eman ziyon jauna,
orain Obispo dago
Bitori'ra juana.

15/ Danari barkaziyua
eskatu aurrena,
parientiarentzat
gauzik ederrena;
ez dezatela izan
luzaroko pena,
au da testamentua
Udarregirena.

16/ Irurogei ta zortzi
urteko bizitzan,
erlijio santutik
mudatu ezin zan;
justuen eriyotza
itxura dan gisan,
Mateo Mujika'ren
besuetan il zan.

17/ Gotzari obispo jauna
juan dan aspaldiyan,
kristandadeko pama
nai du España'ya'n;
Juan Joseri lagundu
ziyon agoniyan,
Jesusek artu dezan
bere konpaña'yan.

18/ Ogei ta emeretzi
urteren buruan,
difuntuaren itza
Argiya'n zeguan;
neri iruritzen zait
dagola zeruan,
aingeruen onduan
gure esperuan. (2)

(2) Bertso-papera "Imp. Macazaga.—Rentería",
Donostia'ko Oriamendi baserriko Segundo Kalonje'-
gandik jaso.

"Argia" asterokoa; eztakigu zein egunetakoa.

(1936)

BERTSO BERRIYAK

JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Urte gogongarriya
millatik urrena,
beatzireun da ogei eta
amaseigarrena:
inkurriyo gaixtua
dago alkarrena,
mudatzen ez bagera
gauzik okerrena.

2/ Mixiyuen sermoiak
dira Antigua'n,
esan digute nola
gauden katiguan;
kulpitutik ari dira
beren enpliu
gu ere aitortzeko
gaude motibuan.

3/ Martxuan amarretik
emeretzi arte,
San Jose'ren nobenan
artu degu parte;
euskerazko sermoiak
gusto eman dute,
urtian orlako bat
ez genduke kalte.

4/ Rafael Lasa eta
Nikolas Lekuona,
au da Aita paria
etorri zaiguna;
Lasa degu euskeraz
itz egin diguna,
espíritu aundiko
jakinduri duna.

5/ Gure kontzientziya
dago zikinduta,
nola garbituko dan
gaude jakinduta;
konfesatzeko diyo
biyotzak finduta
ez du nai ukatzia
baietz aginduta.

6/ Zortzigarren egunian
bederatziurrenak,
Ama Santisimaren
naigabe ta penak;
erabaki dituzte
Atotxa'n daudenak,
Aita Kaputxinoak
San Frantzisko'renak.

7/ Ezkondu ta ezkongai,
familiko lanak,
batez ere guraso
egiñak geranak;
aitortzen baditugu
Semiaren famak,
konbertituko gaitu
naigabezko Amak.

8/ Krixtau bakoitzak degu
aingeru bat guardi,
etsaiak ere nai du
ark aña alderdi;
onenaren aldera
juan gaitezen garbi,
eziñ egingo zaigu
anima bi erdi.

9/ Entregatzen bazai
osorik Jesusi,
bedeinkatuko gaitu
aingeru ta guzi;
Luziferren katia
bear degu ausi,
len bezela diabruz
ez gaitezen josi.

10/ Gauza gogorra zuen
Judasek azaldu,
ogei ta amar dirutan
Jaungoikua saldu;
geroztik kutsu txarra
ezin da bialdu,
gaxtuak asmatzen du
ona nola galdu.

11/ Barrabas kartzelatik
atera zanian,
Jesus kastigatu zan
aren izenian;
orduko justiziya
gaizki esanian,
gaur ere ez gabiltza
lege zuzenian.

12/ Ez dala infernurik
ta ez dala zerurik,
mundua gozatzia
beste estadurik;
ori sinistatuta
zenbait jakindurik,
gaztetasuna franko
badauka galdurik.

13/ Zer ikusten ditugu
dantza zikiñetan,
nobela txarretan ta
teatro-zinetan?
gorputza ez badabill
estadu fiñetan,
jostaketa gaxtua
geroko, ziñetan.

14/ Guraso sasoikuak,
au ondo ikasi:
seme eta alabak
errespetoz ezi;
izaten badira're
luzaruan bizi,
zerurako bidea
aplikatu-azi.

15/ Emakumiak eta
igual gizonak,
ez gaitezen arrotu,
umillak izanak;
egiten baditugu
frailien esanak,
eskudatuko gaitu
gure juez onak. (1)

(1) "Argia", 1936/IV/5.

(1943)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Milla beatzi eun da
berrogei ta iruan
artzagun goguan
nola misionistak
ziran Antigua'n;
erakutsi digute
modu eztiruan,
garbiyak izan bear
degu sentiduan,
Jesusek artu gaitzan
bere partiduan.

2/ Pensamentu berri bat
etorri zaidana
zerbaitek emana,
oraiñ denbora gutxi
bururatu dana,
zuzen egingo banu
asi dedan lana;
gorrotorik ez daukat
projimuengana,
danari opa diet
salbaziyo bana.

3/ Aurten Antigua'ko
misiolariyak
talentuz argiyak,
alabatzera nua,
guretzat jarriyak;
bi aita kaputxino
euskaldun garbiyak,
oiek Arantzazu'tik
dira etorriyak,
San Franziskoren seme
estimagarriyak.

4/ Alegiña egin dute
kariño onian,
txit borondatian,
kondenatu ez dediñ
iñor gure artian;
beti ibilli gabe
alkarren kaltian,
Garizuma santuan
gonberti gaitian,
etzaigu damutuko
egunen batian.

5/ Lenengo sermoyian
ari zaizkigula,
geok dakigula,
esan zuten etsaiak
non-nai dauzkigula;
konfesio on bana
egiñ dezagula,
anima garbitzia
mesede degula,
bestela zoritxarra
etorko zaigula.

6/ Barkaziyoa eskatu
Ama Mariari,
mantxik gabiari,
baitare Irutasun
Trinidadiari;
Espiritu Santua
etzaigu ageri,
baño etorriya da
laguntzera guri,
obe degu maitatu
ditxa eder ori.

7/ Espiritu Santua ta
Aita serbitzala,
justu dabilzala,
Semea gurutzian
gugatik ill zala;
auxen da erakutsi
diguten itzala,
jakiñik arrixkuan
beti gabiltzala,
tentaziyo gaixtotik
libratu gaitzala.

8/ Jaungoiko bat bakarra
iru personetan,
lege zuzenetan,
erabakiya dago
lengo gizonetan;
batzuak zardadian,
bestiak umetan,
kontu eman biarra
daukagu danetan,
destierroko balle
tristia onetan.

9/ Pekatu egiteko
gaude perillian,
modu debillian,
gertatu danak daki
nola ibilli'an;
aberatsaren kulpa
jende langillian,
gorrotuan ta iya
gosiak illian...
bizi-modua dago
estado zallian!

10/ Gezurretatik sortzen
diran baliyuak,
gauza seriyuak,
zallak dira geroko
erremediyuak;
lapurkeriya eta
testimoniyuak
fameliyetan galtzen
ditu uniyuak
ezpadira mudatzen
lengo jeniyuak.

11/ Gure aiton-amonak
beren garaietan,
ziran doaietan,
izarrak adoratzen
zituzten goietan;
errosariyua esan
maiz famelietan,
meza osua entzun
igande-jaietan,
debozio aundiya
jarri zan aietan.

12/ Kariñoz ari biar
degu errezatzen,
ala da usatzen,
ez murmuraziyuan
mingaña luzatzen;
goikoari etzaio
gezurrik pasatzen,
saia gaitzen ari
kolera gozatzen,
tribunaleko kausa
ari da osatzen.

13/ Jainkuan legekuak
amar mandamentu,
artu fundamentu,
alperrik dira beste
milla pentsamentu;
saiatzen dira zenbait
eliz ta konbentu,
aietan ere ezta
nai aña talentu,
pakiak egiñ arte
ez dira kontentu.

14/ Konfesiyo on baten
ondorengo lanak
ez dira baldanak,
damua egiazkoan
absolbitzen danak;
baño lagundu digu
bitarteko onak,
erakusten dizkigu
biyotzaren famak,
zazpi ezpatarekiñ
jositako Amak.

15/ Komuniyo jenerala
illaren labian,
eliza gurian,
seietako meza zan
denbora berian;
lo asko egin gabe
bezpera gabian,
pentsatzen egon nitzan
ain bakardadian
seguro ote gauden
zeruko bidian.

16/ Goiz eta arratsalde
ziran leziyuak,
oiek funtziyuak,
Aita Eternuaren
bedeinkaziyuak;
ederki bukatuak
dira misiyuak,
zenbat baliyo duan
oien preziyuak?
eztu esamiñatzen
gure juiziyuak.

17/ Martxuaren ogei ta
bostgarren eguna,
askok dakiguna,
jaun oien etorrera
izandu deguna;
Apirillaren laba
juan zaizkiguna,
danakin egiñ degu
partiera biguna,
bizi geran artian
aztuko etzaiguna.

18/ Seme-alabak gaitu
gure Eliz Amak,
ala dira sonak,
esaten digutela
fedeko personak;
emakumiak eta
igual gizonak,
salbatuko bagera
gaiztuak ta onak,
egiñ biar ditugu
frailian esanak.

19/ Imajiña eder bat
guziyontzakua,
da biyotzekua,
bakoitzak egunero
adoratzekua;
itza eman diyogu
errezatzekua,
iru Abe-Maria
erregutzekua,
gora Ama Birjiña
Arantzazu'kua! (1)

(1) Lexo'ren alaba Adelina'k etxean zituan eskuz-
-idatzietatik artuak.

BERTSO BERRIYAK

JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK
AMA SANTISIMAREN AITA
SAN JOAKIÑEI

1/ Zeñek ikasi nai du
justuan damua?
San Joakiñen bizitza
kantatzera nua;
guziyarentzako ezta
izango damua,
itz ori mantentzeko
bota det planua,
iñork baldin badauka
kariño sanua.

2/ Dabiden odoleko
Joakiñ patriarka,
pobrezaren ondoren
zebillen jiraka;
kondairan letzen bada
egiyazko marka,
gure uts-egitiak
naiz dizkizu barka,
guraso onaren onra
santu orrek dauka.

- 3/ Au da ogei urtetan
ezkontza izana,
amasei urtekua
artu zuen Ana;
zorioneko andre
birtutez emana,
konformatuak zeuden
Jaungoikuengana,
egin dezala oitaz
disponitzen dana.
- 4/ San Joakiñ saiatzen zan
eman da artuan,
ille-tratuan eta
ganadu-tratuan;
ontasun asko zuben
itxurak zituan,
gizon pobre umill bat
bizitza juntuan,
danakiñ kunplituaz
uniyo santuan.
- 5/ Urte askoan etzuten
izan kriaturik,
zartzaro bizi ziran
zerbait duraturik,
esan biar batekiñ
naiko penaturik,
jende askoren autan
zeuren sonaturik,
zertan faltatu duten
eziñ sumaturik.

- 6/ Matrimoniyu ortan
nola aurrrik etzan,
orduan lotsa edo
desonra omen zan;
norbaitek sortu zuen
zeudela ofentsan,
ekuskizun aundiya
izango ote zan,
Jaungoikuak etziyen
orlakorik esan.
- 7/ Oraziyua egiñaz
beren naigabian,
señale etzirala
bizi maldadian;
errebelaziyo bat
bazan ondorian,
beteko zitubena
pozez bondarian;
oien garbitasunak
orra nola dian.
- 8/ Aingeru batengandik
aurretikan jakiñ,
alaba bat izango
zutela berekiñ,
ama egingo zana
Seme onarekiñ
Trinidadeko persona
bigarrenarekiñ;
San Joakiñ kontentu zan
au entzunarekiñ.

- 9/ Izarra eder bat erten
zala mediante,
lañubak ezkutatu
ziran korriente;
goibel tristia zegon
kasik ori arte,
uztargi eta klaro
gero baliente,
Mesiasen aldetik
daude pariente.
- 10/ Zorioneko aita
beneragarriya,
kariñoz izandu du
mudantza berriya,
Espiritu Santuak
birez ekarriya,
beragaitik sortu zan
guretzat argiya,
pekaturik gabeko
jatorri garbiya.
- 11/ Nazaret'en jaio zan
alaba maitia,
birjindade garbiko
graziyaz betia;
aita eta ama Ana
jeniyoz bat dia,
gu ere aietara
nai dute juatia,
Eternuaren obraz
gozatzen baitia.

- 12/ Iru milla beatzireun da
larogei ta lau urte,
mundua in zanetik
au jaio zan arte;
Agorraren zortziyan
señaladamente,
zeruak eta lurak
poztu ziran fuerte,
katoliko guziyok
artu degu parte.
- 13/ Destierru ontako
bizitza eskasa,
bitartekotasunak
eman diyo traza;
neke ta naigabiak
biotzian pasa,
aur bedeinkatu ori (1)
maitatzeko gauza,
orduko Sant'Ana ta
San Joakiñen poza!
- 14/ Iru urte ezkeru
denbora frankuan,
Jaungoikua serbitzen
zeguen tenpluan;
guraso santu oiek
beren ejenpluan,
alderago ekusi,
nai zutelakuan,
Jerusalena ziran
bizitzera juan.

(1) Bertso-paperean: *beinkatu*.

- 15/ Umiak azitzian
garbi ta jasua,
ala esamiñatzen
dira gurasuak;
asentatu gaitian
buru airosuak,
aldez aurretik daude
bire penosuak,
libratu nai badira
geroko gozuak.
- 16/ Simortuko gerala (*sic*)
diyo ama Anak,
konbertitzen bagaitu
animatxo banak;
naiz gurasuak eta
igual ume onak
errespetatzen ditu
familiko lanak,
San Joakiñen ordenaz
baliatzen danak.
- 17/ Umildade aundikua
izanik bizitzan,
relijiyo santutik
mudatu eziñ zan;
zierto eztakigu
zeiñ urtetan il zan,
bañan bere despedida
norekiñ egin zan,
libru txiki batetik
informatu nintzan.

- 18/ Sufritu zibelako
mundu penosuan,
errezibitu zuten
gloriya gozuan;
beñere etzan erori
pekatu pixuan,
justuan eriyotza
alkantzatu zuan,
bere emaztia ta
alaban besuan.
- 19/ Amarekiñ alaba
laguntzalle piña,
kontzeziyo garbiko
Maria Birjiña;
bedeinkatua izanik
jatorrezko griña,
San Joserren esposa
geroztik egiña,
gure salbatzallian
Ama Erregiña.
- 20/ Agoztuen amabost-
garren egunian,
Salbe kantatzen zaio
aiñ gogo onian;
bere aitaren eguna
biyaramonian;
ekusirik nolako
pruebak eman dian,
beti zelebra zagun
euskaldun jendian.

- 21/ Aitaren imajiña
ero findaria,
erririk geienetan
dago aldaria;
guri asistitzeko
dauka poderia,
eskatu nai bazaio
zerbait faboria,
nun billatuko degu
guraso obia?
- 22/ Orren relijiyo bat
dago Italiya'n,
burua Kolonia'n
juan dan aspaldiyan;
nekezalian alde
berriz España'ya'n,
dotriña korritzeko
lengo letaniyan,
partia nai genduke
bere kompañiyan.
- 23/ San Joakiñ patriarka
ortara daneko,
alabak egiñ zuben
aiñ zori oneko;
aingeruak daukate
aitaren ordeko,
izan dituen famak
etzaizka gordeko,
zeruan gertatzen da
eternidadeko.

24/ Aitona eta amona
Ama Semiekiñ,
beste aita ordia
an dute berekiñ,
Jesus, Maria ta Jose
Ana ta Joakiñ,
famili sagradua
bost personarekiñ;
ai bilduko bagiña
gu ere aiekiñ! (2)

(2) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Oiar-tzun'en jaso.

BERTSO BERRIYAK
JUAN JOSE SARASOLA'K JARRIYAK

1/ Aurtengo Ilbeltzeko
katu biren festa,
igande-gau batian
jo dute orkesta;
oien bakardadia
nunbait aldrebes-ta, (1)
lagunari ojuka,
anparorik ez ta.

2/ Etzaiote aztutzen
gabeko errondik,
arra kanpotik eta
emia barrendik;
gero libertadia
jakiña da nundik,
argumentu zuzenik
ez dute iñundik.

(1) aldrebes-ta=aldrebes da.

3/ Oien eskandalua
aditzen zan goitik,
errabiya batian
jeiki nitzan oitik;
makilla tira niyon
biziro gogotik,
ezurrik autsi gabe
juan ziran nigatik.

4/ Tigre kolorekua
etxian deguna,
bestia bizkar beltza,
lepo txuri duna;
orrek apenas duben
atzapar biguna,
guria da muturra
larrutu diguna.

5/ Egiten dutenian
kanpoko zirika,
bodegara sartu ta
elkarri segika;
maleziyez betiak
daude gazterikan,
ez digute egiten
burla besterikan.

6/ Gabeko amabiyetan
diadarka asi,
batek Arnao'ri ta
bestiak Barrabas'i;
orra padeziyuak
bi diabruz josi,
sorgiñak bialduak
dituzte igesi.

7/ Etzan kariñozkua
lenengo zirriya,
gero polikiyago
ongi-etorriya;
lazo bat izan banu
leiuari jarriya,
ikusi biar zuten
istillu gorriya.

8/ Noizpait eman diyote
alkarri arrazoi,
inbusteri asko ta
muturretik usai;
biyak izanagatik
ezkontzeko sasoi,
maleta bildu arte
ez dabilta lasai.

- 9/ Kanpora juanagatik
guria da lista,
itxua izan balitz
gabeko artista;
txulo txiki-txikitik
sartutzen da *txista*,
nik-paño obia dauka (2)
begitako bista.
- 10/ Bestia zarragua
aurtengo Ilbeltzian,
atzaparra igual
sartzen du eltzian;
kozinan ari dana
bistatik galtzian,
banketerik onena
aren korputzian.
- 11/ Emakumien faltan
sukaldian kirik,
armariyoko atia
ezin irikirik;
deskuidatzen bazaio
iñori jakirik,
pikaru orrek eztu
pasatzen plakirik.

(2) nik-paño=nik baño.

12/ Lapur abilla da ta
lotsagabe kara,
besterenian ere
al dana tripara;
emaztiak ordena
zorrotza dit para:
lepua moztutzeko
arrapatzen bada. (3)

(3) Usurbil'ko Egiluze-txiki baserriko bertso-bil-
duma, eskuz-idatzitakoa.

«USTE EZ NUEN BATEK...»

Errenderia'n bizi dan eta Saiburu bertsolariaren semea dan Juan Mari Lujanbio'k, onako bertso au eman digu, Lexok jarria zala esanaz.

Jarri-aldi luzea izango zan, ta bertso-paperetan ere zabalduko zan, bañan oietako bakar bat ere ez da, zori txarrez, gure eskuetara etorri.

Oiartzun ta «Kaskazuri paria» aitatzen ditu Lexo'k. Kaskazuri, Oiartzun'go bi bertsolariren ez-izena zan. Anaiak ziran. Jose Joakin ta Antonio Urbieta zeritzaten. Eztakigu Lexo ta bi anai auen artean zer istillu zerabilkiten.

Ona bertsoa:

Uste ez nuen batek
tentatzen nau bapo,
juzku txarra egiña
daguelako;
eztet kantikan jarri
Oiartzun'erako,
Kaskazuri paria
dira berentzako;
bi gure kontrako,
eztabiltza poko,
ziplu eta tako,
berriketa pranko;
nork dauka zer esana
Lexorentzako?

«BERTSUA PARATZIA...»

- 1/ Bertsua paratzia
jarri zait kasketan
uts egingo ez banu
legezko izketan,
nola nekazalia
bizi dan kezketan,
negar egin lezake
seitatik bostetan;
arrair gosiak daude
emengo kostetan.

- 2/ Kosta Kantabri au ta
Bizkaiko arrokan
ibaiaren ondoko
legorraren bakan
pariziyo guziyak
biltzen dira tropan;
gu ezin mantendurik
oiekin borrokan,
buru on baten falta
badago Europa'n.

3/ Begira Españi'rako
zein zeguen ona,
gerra zibilla baño
lenago zegona,
galtzadunaren orde
gelditua gona,
aitaren arrazoiak
zituen amona,
maite induelako (*sic*)
sufritzen egona.

4/ Bigarren katolika
Isabela zanak,
ogei ta amaika urtian
egindako lanak,
ez ukatziagatik
aitaren esanak;
gero damutzen gaitu
au palta izanak,
buruari atzegin
gaizki gabiltzanak.

5/ Ekusirikan nola
desio lukian,
etsaiak etziyoten
utzitzen pakian;
artian bizi giñan
estado merkian,
au konsideratzia
zeñen ederki'an
sartu baño lenago
betiko lurpian.

6/ Aitaren esanera
umildu zan sarri,
lege okerragua
ez zuen nai jarri,
egiten zegolako
luzaruan argi,
kint'au ta fetxik gabe
bizi giñan garbi;
orduan egondu zan
Españiya ongi.

7/ Nola amoriyua
genduben orrena,
Errepublika gaitza
sortu zan urrena;
ortik ezagutzen da
tranpa zatorrena:
ona kanporako ta
gaiztuak barrena,
ori izandu degu
gauzarik txarrena.

8/ Donosti'ko erriyan
utzirik korua,
bialdu zutenian
ama kottarua,
aguro gallendu zan
jende pikarua;
oien borondatia
etzan oparua;
Fueruak indartzeko
a zer anparua!

- 9/ Pobrian sabeletik
datorren jaiotza
bezin tristia dauka
euskerak biyotza;
aurrekuan meriyoz
sartu zaigu otza,
orakana lertu zan
Ebro'tik onuntza,
gu azpiyan artzia
ez al degu lotsa?
- 10/ Geroztik legi orrek
nola irauten du?
engañiyo gaiztuak
pena ematen du;
isla aberatsenak
galdu ero kendu,
alper daudenak berriz
emendik mantendu,
piñaren izerdiya
amaikak jaten du.
- 11/ Orretatikan dator
gure naigabia,
zerbait itz egiteko
daukagu biria;
zuzenena litzake
len zegon legia,
batek agintzen balu
genduke obia,
orduan badakigu
zein degun jabia.

12/ Ezagutua nago
askotan negoni
betiko ez zirala
gustuan gomeni;
aditzen diyodana
amaika amoni:
izarrak kendu zaizka
Don Karlos Borbon'i
zergati jarri zuen
ainbeste armoni.

13/ Ekusten degunian
zerbait diferentzi,
urrikitura gaude
amartik beatzi;
lengo ejenpluari
obe zaio eutsi,
Jainkuaren legia
nai ez bada utzi,
gaiztuari biria
zertan erakutsi?

14/ Gerona guardatzera
beagu peliatu,
ez bedi txarretara
iñor obligatu;
alperrik pagatzen da
zenbait enpleatu,
sumatuko bagendu
nola bolteatu,
oraindaño ez dira
gutxi baliatu.

15/ Justuaren diabrua,
eskumuñak zuri,
lenago sartu dezu
makiña bat ziri;
gure lurretik juan
zindezke gaxo ori,
bestela begiratu
obeto gauzari,
ez iñozentiaren
odolik ixuri.

16/ Notiziya berri bat
badet Andoain'dik,
akordatzen zaizkigu
batzuek oraindik;
kontuan jarri naute
zenbait gizon aundik,
beti esperantzetan
izateko andik,
lagunduko digula
Aita Larramendi'k.

17/ Euskal mendiko ostro
aritzen artian,
nola eskarmentuan
izandu baitian,
alkar artzen badegu
kariño maitian,
kezkatik aterako
gera nozbaitian,
okerraguan mende
jarri ez gaitian. (1)

(1) Lexo'ren alaba Adelina'k emandako eskuz-ida-
tzietatik artuak.

«GANARUAN ARTIAN...»

Bertso-pare au ere, Lexoren eskuz-ida-
tzietan agertu da. Jarri-aldi luze baten
zattia da, dudarik gabe. Bi auek ez beste
bertso danak, betiko galduak izango dira.

6/ Ganaruan artian
Belen'go estalpian
..... prestatzen zaigu (1)
pobre ta pakian;
guretzat ejenplua
jarri nai zukian,
bestela aberatsa
izan zitekian.

7/ Zori ordu onian
jaio zera, Jesus,
arren bete gaitzazu
bendeziyo santuz;
itzaz ta obraz eta desioz
eta pensamentuz
zure amoriyua
dago fundamentuz.

(1) Ezin irakurri degu paperak emen zer dion.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Iñuriaren garbitasuna
txantxangorriyan bixita,
Konzeziyoko Amak nai ditu
errespetoz ekusita;
fameliya mantendu
zenbatek egiten du
aur bat ederki azita;
danantzat gaizki zertan itz egiñ
ez dezute merezi ta?

- 2/ Iñure onak ekusten dira
aurra maitatzen dutenak,
esperentziyak argatik daude
txori pamatu batenak;
al dan tokira jua ta
mokuan eramanta
ematen dizka jatenak;
aren bularra ezta trabatzen
perrejillaren xortanak.

3/ Kukuan aurra mantentzen duen
iñure txantxangorriyak,
alperkeriyan bizi eztala
ematen ditu berriyak;
zintzua izanda're
kulpa aundirik gabe
tiratzen zaizka arriyak;
kristabak ere alaxen daude
askoren autan jarriyak.

4/ Uda partian apaintzen diran
zenbait iñure dotore,
lengo moduko edertasuna
badute nolabait'ere;
naiz berriyetan asi,
aurrak ondo ikusi
besuan eramanta're;
saiatu gabe bizi dirala
nik ezteritzat batere.

5/ Etxeko-andre nagusiyakin
len oñez juaten zian,
ta oraiñ berriz automobillan
edo bestela kotxian;
beren aurakin juanta
teatrotikan buelta
beanduan arratsian;
gauzik txarrena lo eskasiya
aberatsaren etxian.

6/ Urte pare bat pasiagatik
ondo apainduta jaten,
baserritarrak ekusten dira
berriz aitxurrera juaten;
jeniyo piñekuak
len ziran añakuak
pozik autsi edo eten;
orlakuaren guraso zarrak
apenaz kalterik duten.

7/ Aurra azitzen izaten dira
zortzitatik zazpi onak,
zabarrarekin ez konparatu
zintzo dabillen personak;
egokira danian
buruz-bire onian
irabaztera txanponak;
illobatxuak gozaten ditu
aitonak eta amonak.

8/ Iñuretzara juaten dira
batzuek alargunduta,
beste batzuek deskuidatuak
aiek ere lagunduta;
bizi bagera noble
guziyentzako obe
jeniyo txarrak onduta,
ezin duena sostenitzeko
daukanak emango du-ta.

9/ Debillak ere izaten dira
aberatsaren aurretan,
preziso piztu bear dutenak
sanuaren bularretan;
urrutira juan gabe
emen bertan badaude
Euskal-erriko lurretan;
osasuna ta borondatia
ezta pagatzen urretan.

10/ Ama petxutik gaizkitutako
asko aingeru inutill
bular prestuak sendatu ditu
oraindik ez diranak ill;
errespetoz aziyak
Jaungoikuari graziyak
zenbait neskatx eta mutill;
bizi-bearrak erakutsiyak
badaure milla maratill.

11/ Oien kontrako zenbait gizoni
jartzen bazaio kasketan,
arrazoi duen eztakiela
minberatzen da izketan;
kontrako uniyuan
edo engañiyuan
usatu danak gaztetan,
emakumian berri eztaki
txarkerirako bestetan.

12/ Eztakiyena zertako ari
iñori tatxak sumatzen?
besteren aurra azitzen duen
ama ez al da penatzen?
zenbait diabroz josi
ez ditezela asi
kreditu txarrak banatzen;
pameli onak seme-alabak
ez ditu abandonatzen.

13/ Ai umezurtza desgraziatu
aita ta amik gabiak!
aientzat ere koskortu arte
bear dira iñuriak;
norbaitek nai gaitu gu,
kunplitzen baditugu
kristandadeko legiak;
bere sariya emango digu
egiñ ginduen jabiak.

14/ Gogoratzen naiz amona batek
esan ziguna Ernani'ñ
erozein moruz autan artziak
ari ematen ziyon miñ;
zintzo dabillenari,
kulpik ez duenari,
zertako itzak eragiñ?
auzuak neurtzen ibilli gabe
etxian bada zer egiñ.

15/ Lau edo bost aur dituen batek
beste bat nai du ekusi,
bei esne-dunak dauden lekuan
erre-bero eta guzi;
serbitzen egonduta
andik etxera jun ta
gero kanpokua azi,
orretaraño saiatzen danak
onra ez al du merezi?

16/ Bere txituak txikiyak ditu
iñure txantxangorriyak,
egatu arte aien onduan
lan ematen du larriyak;
nai zutenari galde
arrazoiaren alde,
orra izketan neurriyak,
kale garbitzen enpliatzen dan
aitona batek jarriyak. (1)

(1) *Bertso-papera*: "Imp. Macazaga.—Rentería",
Makazaga-renean bertan jasoa.

BERTSO BERRIYAK

Bertso auek, Errenteria'ko Makazaga'renean argitaratu ziran, zeñenak ziran paperetan jarri gabe ordea.

Bertso-paper auetako mordoxka bat, Lexoren alabaren etxean arkitu nuan. Ori bakarrik ere, naikoa bazan Lexorenak ote diran susmo egiteko.

Bañan gero, Lexo ondo ezagutu zuten zenbait bertsozalek, bertso auek arek jarriak dirala esan didate.

Lexok, Kontxa ondotik egunero pasatzen baitzan, gauza ikusgarri asko ikusten zuan ondarretan udara-partean. Ta ori gai arturik, bertso auek paratu zituan.

Ez dakigu noizkoak diran, bañan gaur egunean jarriak dirala ematen dute.

1/ Gure Gipuzkoa'ko
kapital garbiyan
ekusgarri asko da
egun argiyan:
kristau edadekuak
umian neurriyan,
jaio ziran bezela
iya-iya jarriyan;
udaran erdiyan,
Donosti'ko erriyan,
itxura urriyan,
zarpa bat gerriyan;
gañerako guziya
larru gorriyan.

2/ Udaran ondarran
dabilen jazkeraz
egiyak esatera
nua euskeraz;
bizi-bide guziya
balego aukeraz,
ezin keja liteke
nik dedan izkeraz;
eztakit erderaz
nai nukian eraz,
lengo esaeraz
nola gaude beraz?
lujuriya gallendu
zaigu tankeraz.

3/ Gaztien artetikan
dator lujuriya,
ajol gabietatik
lasaikeriya;
zarrak era badute
naiko komeriya
pixtiyaren antzera
jarri dira iya;
oien igariya
nunbait ugariya,
plako ta guriya
dena ageriya,
eguzkietan beltzeran (1)
jende txuriya.

4/ Gure gazte denboran
zana debekatu
orañ esaten dute:
ezta pekatu;
Paradisoko obra
bakarrik tapatu,
birerik galdu gabe
lezake topatu;
txantxetan jokatu,
ezin edukatu,
alperrik nekatu,
zertako ukatu?
eztakite mundua
nola bukatu.

(1) Bertso-paperean: *beltzaren*.

- 5/ *De bracete* dabiltzan
pobre t'aberatsak,
oien larru azalak
ez dira latzak;
mutillik pollitenak
eta neska motzak
uretik ondarrera
ez dijuaz otzak; (2)
orlako laguntzak
imintziyo utsak,
etxian zorrotzak,
kanpuan arrotzak;
ezer galerazitzen
eztiye lotsak.
- 6/ Ume koskorran bistan
arpegiz-arpegi
Jaungoikuak badaki
zer txorakeri;
ondo iruritzian
bati edo biri,
gaztetasunak badu
ainbeste inbiri;
zenbait lepo txuri
bularretan guri,
iztarrak ageri,
zertako da ori?
begiyak argitzeko
lo dagonari.

(2) Bertso-paperean: *dijua*.

7/ Ondarretik kanpora
gizonan kontua,
izaten dute zeñek
begiratua;
tunika bat bakarra
soñian artua,
goguan izateko
atarramentua;
abito santua,
aurretik juntua,
botoiaz lotua,
askatzen prontua...
Pilatos'en antzeko
erretratua.

8/ Ezpain pintatu oiek
ez dira traketsak,
emakumiak ere
beren ametsak;
korputz lirañekua
miatzen saietsak,
dir-dir egiten die
begiyaren ertzak;
señoritan galtzak,
izketako saltsak,
oien semejantzak
noiznai alegrantzak,
enamoratzen baitu
alkarren antzak.

9/ Ez dira igualak
guziyan juzkuak,
badira moimentu
arrazoizkuak:
jinasiyan dabiltzan
anka eta eskuak,
osasunarentzako
gauza bidezkuak;
batzuek justuak,
jeniyoz prestuak,
baita ere preskuak,
aberatsa askuak,
pobriak bezelaxen
aragizkuak.

10/ Kanpotarrak bezela
geiago ere bai,
senar emazte eta
zenbat ezkongai;
igual aritzen zaio
bertako personai,
ez kasorik egiteko
iñoren esanai;
zenbait dama galai
alkarrentzat alai,
arriba ta anai,
sasoia daukanai...
berri onak zabaldu
litezke non-nai.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXXO, ALARGUNI
- 18-19. *A. Zavala*: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: LURDESKO GERTAERAK (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitx*, *Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.

- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BIDUMA.
54. *A. Zavala*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrústegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala*: IRU BERTSOLARI.
67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.
- 71-72. *A. Iturriaga*: IPUIAK.
73. *A. Zavala*: IRU ANAI BERTSOLARI.
- 74-75. *A. Zavala*: ERRENTERIA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.
76. *A. Zavala*: ALZA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.
- 77-78. *A. Zavala*: PAULO YANZI TA BERE LAGUNEN BERTSOAK.
- 79-80-81. *A. Zavala*: LEXO BERTSOLARIA.

